



**Agindua, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, eraikuntza- eta eraispén-obretako hondakinak eta materialak sortzeari eta kudeatzeari buruzkoa eta gerora erabiltzeko hondakintzat noiz hartzen diren dekretu-proiektua aldeztu aurretik onartzen duena.**

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren 2022ko apirilaren 7ko Aginduaren bidez, honako dekretu-proiektua egiteko prozedura hastea erabaki zen: eraikuntza- eta eraispén-obretako hondakinak eta materialak sortzeari eta kudeatzeari buruzkoa eta gerora erabiltzeko hondakintzat noiz hartzen diren zehazteko irizpideak ezartzen dituen dekretu-proiektua.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 7. artikuluan ezartzen duenez, xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldeztu aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsultatze irizpideak egin aurretik.

Azaldutako guztiagatik, dekretu-proiektuaren testua ikusita, honako hau

**Orden del Consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad por la que se aprueba con carácter previo el proyecto de decreto sobre la producción y gestión de residuos y materiales procedentes de obras de construcción y demolición y por el que se establecen los criterios para determinar cuándo dejan de ser considerados como residuos para su posterior utilización.**

Por Orden de la consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente de fecha de 7 de abril de 2022 se acordó iniciar el procedimiento de elaboración del proyecto de decreto sobre la producción y gestión de residuos y materiales procedentes de obras de construcción y demolición y por el que se establecen los criterios para determinar cuándo dejan de ser considerados como residuos para su posterior utilización.

La Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, establece en su artículo 7 que, una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, deberán contar con la aprobación previa por el órgano que haya dictado la orden de iniciación, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan.

Por todo lo anteriormente expuesto, visto el texto del proyecto de decreto elaborado,

**EBAZTEN DUT**

**RESUELVO**





**Lehenengoa.-** Honako dekretu-proiektua aldeaz aurretik onartzea: eraikuntza- eta eraispen-obretako hondakinak eta materialak sortzeari eta kudeatzeari buruzkoa eta gerora erabiltzeko hondakintzat noiz hartzen diren zehazteko irizpideak ezartzen dituen dekretu-proiektua.

**Bigarrena.-** Dekretu-proiektuaren testua Eusko Legebiltzarrera bidaltzea, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikulua 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera.

**Hirugarrena.-** Aipatutako proiektua egiteko prozedurarekin jarraitzeko agintzea, proiektua egiteko prozedurari hasiera eman zion Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren Aginduan eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritako izapideekin bat etorritz.

**Primero. -** Aprobar, con carácter previo, el proyecto de decreto sobre la producción y gestión de residuos y materiales procedentes de obras de construcción y demolición y por el que se establecen los criterios para determinar cuándo dejan de ser considerados como residuos para su posterior utilización.

**Segundo. -** Remitir el texto del proyecto de decreto al Parlamento Vasco, en virtud de lo establecido en el apartado 1 del artículo 56 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.

**Tercero. -** Ordenar la continuación del procedimiento de elaboración del referido proyecto, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden de la consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, por la que se inició su procedimiento de elaboración, y en la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

**Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua  
Consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad**

**MIKEL JAUREGI LETEMENDIA**

(Elektronikoki sinatuta / Firmado electrónicamente)



## **DEKRETU PROIEKTUA, eraikuntza- eta eraispén-obretako hondakinak eta materialak sortzeari eta kudeatzeari buruzkoa eta gerora erabiltzeko hondakintzat noiz hartzen diren zehazteko irizpideak ezartzen dituena.**

Eraikuntzako eta eraispéneko hondakinak dira Europar hondakinen lehentasunezko korrantea, bolumen handian sortzen direlako, bai eta dituzten baliabideen balorizazio potentzialagatik ere. Ildo horretan, Ingurumenaren Europako Agentziak 2024ko “Addressing the environmental and climate footprint of buildings” txostenean adierazi zuen eraikuntza sektoreak daukala Europar Batasuneko hondakin fluxu handiena, lurralde horretan sortutako hondakin guztien %35 sortzen baititu, eta dauden lehengaien %50 kontsumitu. Beraz, ezinbestekoa da horien sorrera prebenitzeko eta birziklatze maila altua bermatzeko ahaleginak areagotzea.

Testuinguru horretan, 2024an, Europako Batzordearen “Including guidelines for pre-demolition and pre-renovation audits of construction works” aurre-eraispéneko eta eraikuntzako auditoriak egiteko jarraibideen protokoloa eguneratu zen, eta bai 2020ko Eraikuntza Estrategiara bai eraikuntza sektoreko baliabideen eraginkortasun aukerei buruzko bere jakinarazpena egokitu zen.

Bestalde, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/851 Zuzentarauak, 2008/98/EE Zuzentaria aldatzen duenak, birziklapenerako eta Europako legeria betetzeko oztopoak identifikatu zituen, eta kontzeptuzko berritasunak sartu zituen, hala nola materialen balorizazioa edo betelanaren definizioa. Gainera, beste tresna batzuk nabarmentzen dira, hala nola “Ekonomia zirkular baterantz: zero hondakinen programa Europarako” jakinarazpena, ekonomia zirkularra sustatzen duena hazkunde jasangarrirako bide gisa eta BPG adierazle gisa erabiltzea proposatzen duena, eta baita aurre-eraispéneko auditoretzen gidak ere, auditoria horien estrategiei, derrigortasunari eta edukiari buruzko Europako lehen dokumentuak.

Bestalde, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/1157 (EB) Erregelamenduak, 2024ko apirilaren 11koak, hondakinen lekualdatzei buruzkoak – 1257/2013 (EB) eta 2020/1056 (EB) Erregelamenduak aldatzen dituena eta 1013/2006 (EE) Erregelamendua indargabetzen duena–, ingurumena eta giza osasuna babesteko eta klima neutritasunari laguntzeko eta ekonomia zirkularra eta zero kutsadura lortzeko neurriak ezartzen ditu, hondakinen lekualdakete eta destinoko trataerak eragin ditzaketen ondorio kaltegarriak prebenituz edo murriztuz. Eta Europako Batzordearen uztailaren 2ko 2025/1290 (EB) Betearazpen Erregelamenduak 2024/1157 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen ditu, hondakinen eta beste sistema edo programa informatiko batzuen lekualdatzeekin lotutako informazioa eta dokumentuak aurkezteko eta trukatzeko sistema zentralaren arteko elkarreragingarritasunerako beharrezkoak diren eskakizunei dagokienez, bai eta aurkezpen hori praktikan aplikatzeko beharrezkoak diren beste betekizun tekniko eta antolatzaile batzuei dagokienez ere.

Aurreko guztia Europako Batzordeak 2019ko irailean egindako jakinarazpenean kokatzen da. Jakinarazpen harekin, Europako Itun Berdea argitaratu zen, eta, bertan, besteak



beste, ekonomia garbi eta zirkularrerako trantsizioaren bidez baliabideen erabilera eraginkorra bultzatzeko ekintza plan bat ezarri zen.

Estatuan, hauek dira erreferentziako oinarrizko araudiak: Ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, eta Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duen 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa.

Ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak betebeharrak jasotzen ditu, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen sorrera murriztea eta jatorrian behar bezala bereiztea ziurtatzeko, bai eta eraispenerako modu selektiboan egingo direla ziurtatzeko ere. Halaber, hondakin izateari uzteko irizpideak zehazten ditu, eta aukera ematen du autonomia erkidegoek irizpide horiek ezar ditzaten, Europako Batasunak edo Estatuak definitu ez dituen hondakin korranteetarako.

Bestalde, otsailaren 1eko oinarrizko 105/2008 Errege Dekretuak ezartzen du arlo horretako alderdi jakin batzuk autonomia erkidegoek onartzen duten legeria espezifikoak arautu behar dituela. Hala gertatzen da, adibidez, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak balorizatzeko eta desagerrarazteko eragiketen arauak edo erregulazioak ezartzen dituen betebeharrak betetzen direla bermatzeko aukera ematen duen fidantza eratzea eskatzeko aukerarekin.

Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen esparruan aplikagarriak dira, halaber, beste arau batzuk, hala nola: Estatuaren lurralde barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duen 553/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa; Hondakinen arloko berme finantzarioei buruzko 208/2022 Errege Dekretua, martxoaren 22koa; edo Lurrak balorizatzeko arau orokorrak zehazten dituen Nekazaritza, Arrantza eta Ingurumen Ministerioaren 1007/2017 Agindua, urriaren 10ekoa, lurrak eta harri naturalak balorizatzeko arau orokorrak zehazten dituenak, betelanean eta sortu ziren obrez bestelakoetan erabiltzeko.

Testuinguru horretan, Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Plana (PEMAR 2025-2035) onartu berri da, eraikuntzako eta eraispenerako hondakineterako eta lur eta harri garbietarako datozen urteetarako balorizazio helburuak ezartzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legeak eta Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legeak osatzen dute eraikuntza obretako hondakinei eta materialei aplikatu beharreko indarreko lege esparrua.

Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen kudeaketari dagokionez, 112/2012 Dekretuak, ekainaren 26koak, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen du gaur egun, eta, hala, Estatuko araudian ezarritakoa zehazten da, eta lurraldean hondakin tipologia horren balorizazioaren arloko helburuak betetzea errazten da.



Gainera, 212/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Ingurumenaren Arloko Lankidetzak Erakundeak arautzen ditu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Arloko Lankidetzak Erakundearen Erregistroa sortzen du. Hala ere, irailaren 10eko 407/2013 Dekretuaren arabera, aurreko egoerara itzuli ginen, non Elkargo Ofizialek kudeaketaren amaierako txostenak egiaztatu behar izaten zituzten. Hala, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak txosten horiek egiaztatzeke emandako jarraibideak argitaratu ziren.

Azkenik, garrantzia hartu du, halaber, Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuaren 2015eko urtarrilaren 12ko Aginduak, zeinak eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen balorizaziotik eratorritako agregakin birziklatuak erabiltzeko baldintzak ezarri zituen.

Ikuspegi programatikoko batetik, hauek dira indarrean dagoen Euskadiko Ekonomia Zirkularreko 2030 Estrategiaren helburu estrategikoak: produktibitate materiala eta material zirkularraren erabilera tasa %30 handitzea eta BPG unitate bakoitzeko hondakinen sorrera tasa %30 murriztea. Eta eraikuntzaren sektorea jotzen da helburu horiek lortzeko funtsezko sektoretzat.

Zehazki, Euskadiko Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketarako 2030eko Planaren helburua da guztizko hondakinen sorrera tasa murriztea, hiri hondakinen gaikako bilketa ugaltzea, hondakinak bigarren mailako material bihurtuta balorizatzea eta hondakinen kudeaketa murriztea desagerrarazte eragiketen bidez, eta hori guztia aurreko planaren esparruan lortutako emaitzetatik abiatuta. Horrela, 2030ean eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen balorizazioa %85ekoa izatea lortzeko eta 2010eko datuekin alderatuta hondakinen sorkuntza %15 murrizteko helburua ezartzen du. Harriak eta lurrak, hondakindegira bideratutako hondakin ez-arriskutsuen korrante nagusia, %20an bakarrik berrerabiltzen dira gaur egun, eta, beraz, Planaren lehentasunezko korrontetzat hartzen dira.

Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua aldarrikatu zenetik, aurrerapen tekniko nabarmena gertatu da obretako hondakinen bereizketan, balorizazio plantetako hondakinen tratamenduan eta kalitate hobeko agregakin birziklatuak lortzean. Era berean, material horietarako erabilera berriak probatu eta frogatu dira. Hala ere, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen arloko egungo helburuak lortzeko tresna eta neurri gehigarriak hartu behar dira. Obren udal kontrola udalerrri batzuetan hondakin horien kudeaketa egokia bermatzeko eraginkorra izan den arren, beste kasu batzuetan ez da nahikoa izan, eta, beraz, ikuskaritza eta kontrol mekanismo gehigarriak integratu eta indartu behar dira. Zehazki, lur eta harriei dagokienez, ez-naturalak berrerabiltzeko irizpideak ezartzeko beharra identifikatzen da, bai eta hondakina sortzen den unetik berrerabiltzeko aukera izan arte biltegitratzeko espazioak errazteko beharra ere.

Aipatutako araudia eta Estatuko eta autonomiako planak indarrean dauden bitartean metatutako esperientzia eta dauden aurrerapen teknikoak kontuan hartuta, ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua berrikusi eta eguneratu behar dela ondorioztatu da, eta eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen sorrera prebenitu eta minimizatzeko alderdi



berriak gehitu behar direla, kudeaketan hierarkia betetzen dela bermatzeko eta horien balorizazioa lehenesteko. Era berean, finkatu egin behar dira honako hauek: hondakin izateari noiz uzten dion zehazteko eta sorkuntza zikloan berriz sartzeko irizpideak, eta lurren eta harrien erregulazio espezifikoak, bakoitzaren izaera eta zirkunstantziak kontuan izanda. Gainera, Dekretu hau garatzeko onartzen diren tresnekin, hondakinaren trazabilitatea ere bermatu nahi da. Horretarako, prozesuan esku hartzen duten eragile guztien betebeharrak bete behar dira, erantzukizunak banatuta eta hondakinak sortzen dituenaren erantzukizun handiagoaren printzipioa baliatuta.

Azken batean, Dekretu honek eraikuntzako eta eraispenerako hondakinei aplikatu beharreko araubide juridikoa garatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan, hondakin tipologia horren kudeaketan hierarkia betetzea lortzeko, ingurumen baldintza seguruetan.

Dekretuak zazpi kapitulu, lau xedapen gehigarri, lau xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat, zazpi azken xedapen eta zortzi eranskin ditu.

I. kapituluak, xedapen orokorrei buruzkoak, helburua, aplikazio eremua, definizioak, hondakinen hierarkia eta kudeaketako buruaskitasun eta hurbiltasun printzipioak ezartzen ditu.

II. kapituluak, eraikuntza eta eraispenerako hondakin eta materialak sortzeari eta edukitzeari buruzkoak, sortzen dituztenen eta edukitzen dituztenen betebeharrak zehazten ditu, bai eta obra txikiak hondakinak jasotzeko eta biltegitzeko gune garbien betebeharrak ere.

III. kapituluak Kudeaketaren Azterketa, Kudeaketa Plana eta Kudeaketaren Amaierako Txostena arautzen ditu. Gainera, Ingurumenaren Arloko Lankidetzaren Erakundeek tresna horiek egiaztatzen dituzten funtzioak zehazten ditu, eta hondakinen sorkuntza eta kudeaketaren esparruan fidantza eratzeko eta baliabide elektronikoak erabiltzeko baldintzak ezartzen ditu.

IV. kapituluak, kudeaketari buruzkoak, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak balorizatzeko eragiketak baimentzeko araubidea zehazten du, bai eta horien kudeatzaileen betebeharrak zein diren ere. Bestalde, desagertze eragiketak egiten dituzten pertsonentzako betebeharrak ezartzen ditu, eta hondakin izateari uzteko baldintzak zehazten ditu, ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 5. artikuluan jasotako baldintzen arabera, eta kudeaketa sistemaren edukia garatzen du, betekizun horietako bat baita.

V. kapituluak eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen balorizaziotik datozen bigarren mailako materialen erabilerak zehazten ditu, eta horien erabiltzaileen betebeharrak ezartzen ditu.

VI. kapituluak eraikuntza eta eraispenerako lur eta harrietarako eskakizun espezifikoak arautzen ditu. Sortze obratik kanpo horiek behar bezala tratatzeko,



Nekazaritza, Arrantza eta Ingurumen Ministerioaren 1007/2017 Agindua onartu zen, urriaren 10ekoa, lurrak eta harri naturalak balorizatzeko arau orokorreari buruzkoa, betelanetan eta sortu ziren obrez bestelakoetan erabiltzeko, eta bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu beste lur eta harri mota batzuk. Horrela, bada, kapitulu honek Agindu horretan arautu gabeko lurrak eta harriak bigarren mailako materialtzat hartzeko baldintzak ezartzen ditu. Gainera, hondeatutako hondakinak eta materialak sortzen eta edukitzen dituztenen betebeharrak zehazten ditu, baita aldi baterako biltegitartzeko eta erabiltzeko betebeharrak ere. Azkenik, lur eta harri horiek hondakindegian uzteko debekua ezartzen du.

VII. kapituluak betelanak egiteko ingurumen baldintzak ezartzen ditu, balorizazio eragiketa gisa eta aire zabaleko meatze hutsuneak lehengoratzeko.

Horrez gain, tresna osagarri berriak onartuko dira, Dekretu honetatik eratorritako berezitasun teknikoak eta prozedurazkoak garatzeko.

Dekretu hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 129. artikuluan xedatutako printzipioekin, erregelamenduak egiteko ahala baliatzeari dagokionez. Behar eta eraginkortasun printzipioei dagokienez, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuak autonomia erkidegoen alde jasotzen duen erregelamendu bidezko gaikuntzan oinarritzen da. Era berean, araua proportzionaltasun printzipiora egokitzen da, bete beharreko beharrari erantzuteko ezinbesteko erregulazioa bakarrik jasotzen baitu, baita segurtasun juridikoaren printzipiora ere, indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin eta eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen eta lurzoruen –lurrak eta harriak– arloko araudi espezifikoarekin koherentzian garatzen baita. Gardentasun printzipioari dagokionez, parte hartzeko aukera izan dute herritarrek eta eraginpeko interesak izan ditzaketen erakunde publiko eta pribatuak. Azkenik, araua eraginkortasun printzipiora egokitzen da, ez baititu beharrezkoak ez diren karga administratiboak ezartzen.

Araua kontsulta publikora eta entzunaldi eta informazio publikora eraman da [ ](e)(a)n, Merkatu Batasuna Bermatzeko abenduaren 9ko 20/2013 Legean xedatutakoaren arabera, eta Merkatu Batasunerako Kontseiluaren Idazkaritzak gaitutako plataforman argitaratu da, eta gainerako administrazio publikoei berrikusteko bidali zaie.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legean aurreikusitako izapide guztiak egin dira, eta, era berean, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak eskatzen dituen nahitaezko txosten guztiak bildu dira.

Azkenik, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.c) eta 26.1 artikulua betez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari egin zaio dekretu honi buruzko kontsulta, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari entzun ondoren, onartu egin da.



Ondorioz, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarriko sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2026ko [ ] (e)ko [ ] (e)(a)n egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren,

## XEDATZEN DUT

### I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

#### **1. artikulua.** *Xedea.*

1. Dekretu honen helburua da eraikuntza eta eraispén obretako hondakin eta materialak sortzeari, edukitzeari eta kudeatzeari aplika dakiokéen erregimen juridikoa garatzea, eta hondakin izateari noiz uzten dioten eta ondoren bigarren mailako material moduan noiz erabil daitezkeén zehazteko irizpideak ezartzea.

2. Lur eta harri naturalak eta ez-naturalak balorizatzeko, berrerabiltzeko eta erabiltzeko irizpideak arautzen dira, eta betelanetan eta aire zabaleko meatze hutsuneak lehengoratzeko aplikagarriak diren ingurumen eskakizun espezifikoa garatzen dira.

#### **2. artikulua.** *Aplikazio eremua.*

Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako edo kudeatutako eraikuntzako eta eraispéneko hondakin eta materialei aplikatu behar zaie.

#### **3. artikulua.** *Hondakinen hierarkia, buruaskitasuna eta hurbiltasuna kudeaketan.*

1. Agintari eskudunek, ingurumen emaitza global onena lortzeko, hondakinen hierarkia aplikatuko dute, lehentasun ordena honen arabera:

- a) prebentzioa,
- b) berrerabiltzeko prestatzea,
- c) birziklatzea,
- d) beste balorizazio mota bat; tartean, balorizazio energetikoa, eta
- e) desagerraraztea.

2. Eraikuntzako eta eraispéneko hondakinei –tratamendutik salbuetsita dauden hondakinei izan ezik–, hondakindegian biltegitatuta desagerrarazi aurretik, “R05 – Birziklapena edo beste materia ez-organiko batzuk berreskuratzea” balorizazio eragiketa bat egingo zaie.

3. Eraikuntzako eta eraispéneko hondakinen eta materialen kudeaketa buruaskitasun eta hurbiltasun printzipioen arabera arautuko da. Printzipio horiek aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako eraikuntzako eta eraispéneko hondakinen balorizazioa sorkuntza puntutik ahalik eta gertuen dauden instalazioetan egitea lehenetsiko da,



ingurumena eta osasun publikoa neurri handian babestea ziurtatzeko teknologia eta metodo egokienak erabiliz, horien kudeaketan eraginkortasuna eta ingurumena babesteko eskakizunak kontuan hartuta.

4. Printzipio horiek aplikatuz, eraikuntza edo eraispenerako hondakinak beste autonomia erkidego edo herrialde batzuetara eramatea ukatu ahal izango da, modu arrazoituan, desagerraraztea denean helburua.

#### 4. artikulua. *Definizioak.*

1. Dekretu honen eraginetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

- a) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen agregakin birziklatua: Dekretu honetan ezarritakoaren arabera hondakin izateari utzi dioten eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen eta materialen tratamenduaren ondoriozko agregakina.
- b) Adostasun adierazpena: “R0506 – Agregakinak sortzeko hondakin ez-organikoak balorizatzeko eragiketa” egiteko baimena duen hondakinen kudeatzaileak osatu beharreko dokumentua, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinek eta materialek hondakin izateari utz diezaioten.
- c) Erantzukizunpeko adierazpena: hondakinen kudeatzaileak osatu beharreko dokumentua, baldin eta eragiketa hauetako bat egiteko baimena badu: “R0505 – Hondakin ez-organikoak birziklatzea, zementua fabrikatzeko lehengaien ordez”, “R0507 – Hondakin ez-organikoak birziklatzea, beste fabrikazio prozesu batzuetako lehengaien ordez” edo “R0511 – Hondakin ez-organikoak berrerabiltzeko prestatzea”. Eta ez da beharrezkoa izango adostasun adierazpenik izatea. Ondorioz, eragiketa horiek hondakin izateari uztea dakarte, implizituki.
- d) Eraispen selektiboa: eraispen obra batean pixkanaka eta koordinatuta egindako eragiketen multzoa, obran dauden materialen aprobetxamendua maximizatzeko, bereizketa, berrerabilpen eta birziklatze tasa ahalik eta handienak lortzeko eta eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen frakzio nahasketaren sorrera minimizatzeko.
- e) Lurzoruen Erakunde Akreditatua: lurzoruaren kalitatea ikertu eta lehengoratzeko erakundea, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren arabera egiaztatua (199/2006 Dekretua, lurzoruaren kalitatea ikertu eta lehengoratzeko erakundeak egiaztatzen sistema ezartzen duena eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen inguruan egin beharreko ikerketen edukia eta irismena zehazten dituen).
- f) Laginak Hartzeko Erakunde Akreditatua: Akreditazio Erakunde Nazionalak UNE EN ISO IEC 17020:2012 Arauaren eskakizunen arabera egiaztatua, “Hondakinak” arloan, arau horretan ezarritako baldintza eta irizpideen arabera.
- g) Ingurumenaren Arloko Lankidetzaren Erakundea: nortasun juridiko propioa duen erakundea, publikoa edo pribatua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Sailaren laguntzailea, ingurumen arloko eskumenak dituen, jarduerak egiaztatzeko, baliozkotzeko eta kontrolatzeko jarduerak egiteko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Arloko Lankidetzaren Erakundeek Erregistroan inskribatua.



- h) Parametro kritikoak: Dekretu honen arabera, balorizazioa edo desagertzea gizakien osasunerako eta ingurumenerako arriskurik gabe egiten direla bermatzeko kontrolatu behar diren hondakin edo materialaren eta kudeaketa prozesuaren balioak, baldintzak edo ezaugarriak, baldin eta horiek Dekretu honi lotutako Erabileren Aginduan ezarritako muga balioaren %75 gainditzen badute.
- i) Planta mugikorra: tratatu nahi den eraikuntzako eta eraispenerako hondakinera hurbiltzeko muntatzen edo lekualdatzen den instalazioa, baina ez da han utziko, obra zehatz bati lotuta baitago.
- j) Hondakin egokiak: Dekretu honen ondorioetarako, hondakindegia egokitzeko eta aire zabaleko meatze hutsuneak lehengoratzeko ezarritako baldintzak betetzeko tratamendu prozesuak egin dituzten hondakinak hartzen dira hondakin egokitzat.
- k) Hondakin desegokiak: bereizitako edo sailkatutako hondakin frakzio jakin baten izaera ez duten hondakinak; hau da, hondakin hori definitzen duen EHZ kodeari ez dagokion guztia.
- l) Lur eta harri naturalak: egoera naturalean dauden lurzoruen hondeaketatik datozen materialak. Lur eta harri naturaltzat hartuko dira hondeaketan zehar mugitzen den lurrazalaren zati solidotik datozenak: harkaitzetik hasi, eta jatorri naturaleko lurzoru azalekoenetara bitartean daudenak, eta dauzkaten ezaugarri fisiko-kimikoei edo ematen dituzten funtzio eta zerbitzu ekosistemikoei eragiten dien jatorri antropogenikoko aldaketarik ez dutenak. Lur eta harri horiek lortu ziren obratik ateratzen direnean edo eraikuntzakoak ez diren helburuetarako erabiltzen direnean, hondakintzat hartuko dira, eta EHZ 17 05 04 kodea egokituko zaie, hots, "17 05 03 kodean zehaztutakoak ez diren lur eta harriak".
- m) Lur eta harri ez-naturalak: Lurzorua kutsatzea saihesteko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen arabera aldatu edo kutsatu gabeko lurzoruetan egindako hondeaketatik datozen materialak, artikulu honen l) letran definitutakoez bestelakoak. Material horiek lortu ziren obratik ateratzen direnean edo eraikuntzakoak ez diren helburuetarako erabiltzen direnean, hondakintzat hartuko dira, eta EHZ 17 05 04 kodea egokituko zaie, hots, "17 05 03 kodean zehaztutakoak ez diren lur eta harriak". Ez dira material hondeatu ez-natural gisa hartuko material desegokiak edukia bolumenaren %3tik gorakoa dutenak. Atalase hori gainditzen duen materiala lur eta harriez bestelako hondakintzat hartuko da.
- n) Material birziklatuak: Dekretu honetan ezarritakoaren arabera hondakin izateari utzi dioten eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen tratamendutik eratorritako materialak dira; tartean, agregakinak eta tratamendu horretatik eratorritako beste material batzuk.
- o) Obra handia: obra txikiaren definizioan sartzen ez den eraikuntza edo eraispenerako obra.
- p) Obra txikia: teknika errazeko eraikuntza edo eraispenerako obra, eraikuntza eta ekonomia garrantzi txikikoa, egiturazko elementuetan eraginik ez duena eta arlo horretako goi mailako titulazioa duten profesionalak sinatutako proiekturik behar ez duena. Ez dira obra txikitzat hartuko fatxadak aldatzeko edo eraikinen estalkiak eraikitzeko edo birmoldatzeko helburua dutenak.
- q) Langileak: hondakinak edo materialak tratatzeko eragiketarako egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.



- r) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakina: Ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen a) letrako «Hondakinaren» definizioa betez, eraikuntza eta eraispenera jardueren ondorioz sortzen den edozein substantzia edo objektu.
- s) Meatze hutsuneak lehengoratzea: meatzaritza jardueren eraginpeko lurra lehengoratzea eta horretara bakarrik bideratutako obrak dira, egoera egoki batera itzultzeko, bereziki lurzoruaren kalitateari, faunari, habitat naturalei, ur gezako sistemei, paisaiari eta erabilera onuragarri egokiei dagokienez. Dekretu honen aplikazio eremutik kanpo geratzen dira abandonatutako meatze hutsuneetako obrak eta lurpeko meatze hutsuneak+.
- t) Lurzoru naturala: kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak egin ez zaizkion lurzorua.
- u) Uholde arriskua duen eremua: uholde arriskuak ebaluatu eta kudeatzeko uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretuan edo hura ordezkatzeko duen araudian definitutakoa.

2. Aurreko atalean definitu gabeko beste edozein terminok eraikuntzako edo eraispenerako hondakinen arloan aplikagarri den gainerako araudian ematen zaion esanahia izango du.

## II. KAPITULUA

### ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN OBRETAKO HONDAKIN ETA MATERIALAK SORTZEA ETA EDUKITZEA

**5. artikulua.** *Obra handietatik datozen eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak eta materialak sortzen dituztenen betebeharrak.*

1. Hondakinen eta eraikuntzako eta eraispenerako materialen arloan aplikatu beharreko gainerako araudiak eskatutakoaz gain, sortzen dituztenek, obra handiko sustatzaile gisa, honako betebeharrak bete beharko dituzte:
  - a) Hondakinen eta materialen kudeaketa egokia bermatzea.
  - b) Oinarrizko eta exekuzioko proiektuetan, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak eta materialak kudeatzeko azterketa egin eta txertatu, dekretu honen 9. artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatuta. Proiektu horietan obraren UTM koordinatuak islatu beharko dira.
  - c) Obraren sortutako eraikitze eta eraisteko hondakinak eta materialak dituzten pertsona guztiei obraren UTM koordinatuak jakinaraztea, Ingurunet plataformaren bidez Hondakinen Sorkuntza eta Kudeaketa Erregistroan erregistratu dezaten.
  - d) Obretako zuzendaritza fakultatibo gisa jardungo duen arduradun tekniko bat izendatzea, Dekretu honen 10. artikuluan araututako Eraikuntzako eta Eraispenerako Hondakin eta Materialen Kudeaketa Plana behar bezala ezartzen eta gauzatzen dela gainbegiratu dezan.
  - e) Hondakinak eta materialak tratatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatuz gero, lekualdaketa bakoitzerako dagokion akreditazio dokumentala izatea, Ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen xedatutakoaren arabera, zeina, bete ondoren, ezin izango baita editatu egiten den egunetik aurrera.



- f) Hondakinak eta materialak planta mugikorrean tratatu, eta obra berean edo beste batean erabiltzeko entregatzea, II. eranskineko ereduaren arabera hondakinak planta mugikorrera entregatu izanaren ziurtagiria sortu, eta, hala dagokionean, entrega hori obraren artxibo kronologikoan islatzea.
- g) Udalaren aurrean fidantza bat eratzea, obratik datozen eraikuntzako eta eraispenerako hondakin eta materialen kudeaketari buruzko baldintzak betetzen direla ziurtatzeko, Dekretu honen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- h) Obra amaitzean, hondakinen eta materialen kudeaketa egokia justifikatzeko, dekretu honen 11. artikuluan araututako kudeaketaren amaierako txostena egin eta udalean aurkeztea. Kudeaketaren amaierako txostena, obraren artxibo kronologikoa jaso beharko duena, Dekretu hau garatzean onartzen den jarraibide teknikoaren Aginduaren arabera egiaztatzea behar da.
- i) Hondakinen kudeaketa azterketa, kudeaketaren amaierako txostena, identifikazio dokumentuak, eta, hala badagokio, hondakinak planta mugikorrera entregatu izanaren ziurtagiriak izatea gutxienez bost urtez. Dokumentu horiek agintari eskudunen eskura egon beharko dute ikuskaritza eta kontrol ondorioetarako, hondakinei eta lurzoru kutsatuei eta ekonomia zirkularrari buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31. eta 64.3 artikuluen arabera.

2. Hainbat kontratista badaude, horietako bat ere kontratista nagusia izan gabe, sustatzaileak bere gain hartu beharko ditu hurrengo artikuluan araututako edukitzailearen betebeharrak.

3. Artikulu honetan aurreikusitako betebeharrak betetzen direla egiaztatzea obra kokatuta dagoen udalerriko udalari dagokio, dekretu honetan jasotako baldintzetan.

**6. artikulua.** *Obra handietatik datozen eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak eta materialak edukitzen dituztenen betebeharrak.*

Hondakinen eta eraikuntzako eta eraispenerako materialen arloan aplikatu beharreko gainerako araudiak eskatutakoaz gain, hondakinak edukitzen dituztenek, obra handia gauzatzeko kontratista arduradunak direnez gero, honako betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

- a) Dekretu honen 10. artikuluan araututako Eraikuntzako eta Eraispenerako Hondakinak eta Materialak Kudeatzeko Plana egiteaz eta behar bezala ezartzeaz arduratuko den arduradun tekniko bat izendatzea, sustatzaileak izendatutako arduradun teknikoarekin solaskide gisa jardungo duena.
- b) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak eta materialak kudeatzeko plana aurkeztea sustatzaileari, eta horren edukia Dekretu honek garatuko duen jarraibide teknikoaren Aginduan arautuko da.
- c) Obra bakoitza Hondakinen Sorkuntza eta Kudeaketa Erregistroan erregistratzea, Ingurunet plataformaren bidez.
- d) Birgaitze eta eraispen obrak egitea, Dekretu honek garatuko duen jarraibide teknikoaren Aginduan jasotako eraispen selektiboko praktika eguneratuen arabera.



- e) EHZ kodeek sortutako hondakinak eta materialak bereiztea eta higiene eta segurtasun baldintza egokietan mantentzea, berrerabili, eta, hala badagokio, birziklatu beharreko hondakinen kopurua maximizatzeko, Dekretu hau garatzean onartzen den jarraibide teknikoan Aginduan ezartzen diren bereizteko eta biltegitratzeko baldintzak kontuan hartuta.
- f) EHZ 17 09 04 kodea duten –17 09 01, 17 09 02 eta 17 09 03 kodeetan zehaztutakoak ez diren eraikuntzako eta eraispenerako hondakin nahastuak– hondakinen frakzioa minimizatzea, eraikuntza lanetan gehienez ere hondakin guztien %5 sortuz, eta, eraispenera obretan, gehienez ere %15, salbu eta hondakin horiek kokalekuan alde aurretik egotearen arrazoi teknikoek edo kudeaketaren amaierako txostenaren behar bezala justifikatutako segurtasun arazoek proportzio hori eragozten badute.
- g) Hondakinak kudeatzaile baimendu bati ematea, tratamenduko azken eragiketa “R05 – Birziklapena edo beste materia ez-organiko batzuk berreskuratzea” dela ziurtatzeko, Ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eranskinaren arabera.
- h) Obra sustatzen duen pertsonari sortutako hondakinak baimena duen kudeatzaile bati entregatu izana egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea, kudeaketaren amaierako txostena egiteko. Materialak beste obra batean berrerabiltzeko bidaliz gero, lekualdaketa hori kudeaketaren amaierako txostenaren dokumentu fluxuan jaso beharko da, bai eta obraren artxibo kronologikoan ere.
- i) Hondakinak Dekretu honen edukiaren arabera kudeatu direla egiaztatzen duen dokumentazioa izatea. Urte natural bakoitzari dagokion dokumentazioa gutxienez bost urtez gorde beharko da. Dokumentu horiek agintari eskudunen eskura egon beharko dute zaintza, ikuskaritza eta kontrol ondorioetarako, hondakinei eta lurzoru kutsatuei eta ekonomia zirkularrari buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31. eta 64.3 artikuluen arabera.

**7. artikulua.** *Obra txikietatik datozen eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak eta materialak sortzen dituztenen edo edukitzen dituztenen betebeharrak.*

1. Hondakinen eta eraikuntzako eta eraispenerako materialen arloan aplikatu beharreko gainerako araudiak eskatutakoaz gain, eta lekualdaketa egiten duenaren arabera, obra txikietan hondakinak sortzen edo edukitzen dituztenek artikulua honetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

2. Sortutako hondakin eta materialak garbigune batean utzi edo baimendutako kudeatzaile bati zuzenean ematen zaizkionean, betebeharrak hauek bete beharko dira:

- a) Hondakinen eta materialen kudeaketa egokia bermatuko duen fidantza eratzea, Dekretu honen 14. artikuluekin bat etorritik.
- b) Hondakinak eta materialak jatorrian bereiztea, Dekretu honek garatuko duen jarraibide teknikoan Aginduan ezartzen denaren arabera.
- c) Hondakinak behar bezala bereizita garraiatzea, eta garbigunean utzi edo baimendutako kudeatzaileari entregatzea, udal ordenantzek zehazten duten moduan. Hondakinak eta materialak garbigunean entregatzearekin batera, obra txikiko lizentziaren edo alde aurreko jakinarazpenaren kopia aurkeztu beharko da, dagokion



udalak ezartzen duenaren arabera, bai eta Dekretu honen I. eranskinean agertzen den garbiguneko entrega egiaztatzeko dokumentuaren kopia ere. Hondakinak baimendutako kudeatzaile bati emanez gero, dokumentu betebeharrak obra handiaren kasurako jasotakoak izango dira.

- d) Artikulu honetako c) atalean aipatutako hondakinen eta materialen kudeaketa egokia egiaztatzen duen dokumentazioa entregatzea sustatzaileari, udalean aurkezteko, eta, hala, fidantza itzultzeko.

3. EHZ 17 09 04 kodea duten hondakinak sortzen badira –"17 09 01, 17 09 02 eta 17 09 03 kodeetan zehaztutakoak ez diren eraikuntzako eta eraispenerako hondakin nahastuak"–, hondakinak edukitzen dituztenek, gainera, honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Obran EHZ 17 09 04 kodea duten hondakin nahasketak –"17 09 01, 17 09 02 eta 17 09 03 kodeetan zehaztutakoak ez diren eraikuntzako eta eraispenerako hondakin nahastuak"– ezin izango dira inoiz %40 baino proportzio handiagoan sortu, eta garbigunean utzi edo kudeatzaile baimendu bati entregatu aurretik obran baloriza daitezkeen frakzioetan bereizteko aukera guztiak agortu beharko dira.
- b) Trenkadak edo igeltsuko beste elementu batzuk bereizi egin beharko dira berrerabiltzeko edo birziklatzeko, EHZ 17 08 02 kodea berariaz adieraziz –"17 08 01 kodean zehaztutakoak ez diren igeltsuan oinarritutako eraikuntza materialak" – hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten dokumentuetan.

4. Artikulu honetan aurreikusitako betebeharrak betetzen direla egiaztatzea obra kokatuta dagoen udalerriko udalari dagokio, udal ordenantzetan xedatutako baldintzetan.

**8. artikulua.** *Obra txikietatik datozen eraikuntzako eta eraispenerako hondakinei dagokienez garbiguneei betebeharrak.*

Hondakinen kudeatzaile gisa dagozkien betebeharrez gain, obra txikietako hondakin eta eraikuntzako eta eraispenerako materialak jasotzeari eta biltegiatzeari lotutako garbiguneei betebeharrak gehigarriak izango dira honako hauek:

- a) Hondakinak eta materialak behar bezala jaso direla egiaztatzea, eta, horretarako, Dekretu honen I. eranskinean agertzen den dokumentua zigilatuta itzuli beharko diote entrega egiten duenari.
- b) Hondakinak eta materialak modu berezian biltegiatzea, Dekretu hau garatzean onartzen den jarraibide teknikoan Aginduan ezartzen denaren arabera.
- c) Amiantoaren hondakinak jasoz gero, gainera, amiantoarekiko esposizio arriskua duten lanei aplikatu beharreko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituen martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan eta aplikatu beharreko gainerako araudian eta lan agintaritzaren eskudunak ezartzen dituen xedapenetan xedatutakoa bete beharko da.

### III. KAPITULUA

#### ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN OBRETAKO HONDAKIN ETA MATERIALAK KUDEATZEKO ESKURAGARRI DAUDEN TRESNAK



**9. artikulua.** *Obra handietatik datozen eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen eta materialen kudeaketa azterketa.*

1. Hondakinen eta materialen kudeaketa azterketa hondakinak sortzen dituenak egindako dokumentua da, eta hondakin eta materialen tipologiak, kantitateak eta kudeaketa bideak zehazten ditu, bai eta balio handiko material birziklatuak fabrikatzeko obran kudeaketa egokia bermatzen duten aurrekontua, baliabideak eta prozedurak ere, eta horien gutxienerako edukia 105/2008 Errege Dekretuaren 4.1 artikuluko a) atalean edo hori ordezkatzeko duen arauan ezartzen da (105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntzako eta eraisteko hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duena).

2. Kudeaketa azterketa, hain zuzen, Dekretu honek garatuko duen jarraibide teknikoaren Aginduak ezartzen duenaren arabera egingo da, eta horretarako gaitzen duen titulazioa duen eraikuntza proiektuen eta obra zuzendaritzaren arloko profesional batek sinatu beharko du.

3. Obra bat eraisteko, eraikitzeko edo hondeatzeko fase bakoitzerako kudeaketa azterketa egin beharko da.

4. Kudeaketa azterketa oinarrizko proiektuetan eta obra gauzatzeko proiektuetan sartu beharko da, eta, proiektu horiekin batera, hondakinak sortzen dituenak dagokion udalean aurkezten duen hirigintza lizentzia edo dokumentu baliokidea eskatuko du.

5. Kudeaketa azterketa alde aurretiko auditorian oinarrituta egin ahal izango da, Dekretu hau garatzean onartuko den jarraibide teknikoaren Aginduan ezartzen denaren arabera.

6. Kudeaketa azterketa Ingurumenaren Arloko Lankidetzaren Erakunde batek egiaztatu beharko du, eta gai edo ez-gai den adieraziko duen txostena egingo du, Dekretu honek garatuko duen jarraibide teknikoaren Aginduaren arabera behar bezala justifikatuta. Obraren sustatzailea administrazio publikoa edo sektore publikoko erakunde bat bada, bere bulego teknikoak edo Ingurumenaren Arloko Lankidetzaren Entitate batek egin ahal izango du egiaztapena.

7. Ez da egiaztapenik eskatuko:

- a) Kudeaketa azterketa Ingurumenaren Arloko Lankidetzaren Erakunde batek egin duenean.
- b) Obraren sustatzailea edo eraikitzailea Ingurumena Kudeatzeko eta Ikusatzeko Sistema Komunitarioari atxikita dagoen kasuetan.

8. Oinarrizko proiektuan oinarrituta kudeaketa azterlana egin den eraikuntza obratan, Ingurumenaren Arloko Lankidetzaren Erakundeak azterketa eguneratu horretan egingo du egiaztapena, oinarrizko proiektua garatzeko obra gauzatzeko proiektuan oinarrituta.



9. Kudeaketa azterketa, beharrezkoa bada egiaztatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko ingurumen organoari bidali beharko zaio, Ingurunet plataformaren bidez.

10. Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen esparruan Hondeaketa Plana badaukaten lekuetan, Plan horrek Hondeaketa Kudeatzeko Azterketa ordezkatu du. Hondakinak sortzen dituen jarduerak lurzorua kutsa dezakeen jarduera izan duen eraikin bat eraistea badakar, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko du hondakinak sortzen dituenak.

**10. artikulua.** *Obra handietatik datozen eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen eta materialen Kudeaketa Plana.*

1. Hondakinak eta materialak kudeatzeko plana kontratistaren betebeharrak nola gauzatuko diren islatzen duen dokumentua da, kudeaketa azterketan definitutako hondakinen eta materialen kudeaketa zehaztuz.

2. Kudeaketa Plana Dekretu hau garatzeko onartuko den jarraibide teknikoen Aginduan ezarritakoaren arabera egingo da, eta kudeaketa azterketaren alderdi ugari zehaztuko ditu.

3. Obra bat eraisteko, eraikitzeko edo hondeatzeko fase bakoitzerako Kudeaketa Plana egin beharko da.

4. Kontratista bat baino gehiago batera egonez gero, sustatzaileak ziurtatuko du dagozkion Kudeaketa Plan guztiak obra osorako plan bakar batean integratzen direla, eta horien koordinazioaz ere arduratuko da.

5. Kudeaketa Plana obraren kontratu dokumentuetan sartuko da, zuzendaritza fakultatiboak baliozkotu eta sustatzaileak onartu ondoren, eta hori betetzea hondakinak dituenaren erantzukizuna izango da.

**11. artikulua.** *Obra handietatik datozen eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen Kudeaketaren Amaierako Txostena.*

1. Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen eta materialen kudeaketaren amaierako txostena obraren zuzendaritza teknikoak sinatutako dokumentua da, eta obran sortutako hondakin eta material horiek behar bezala kudeatzen direla egiaztatuko du.

2. Kudeaketaren amaierako txostena Dekretu hau garatzean onartuko den jarraibide teknikoen Aginduan ezartzen denaren arabera egingo da.



3. Kudeaketaren amaierako txostena Ingurumenaren Arloko Lankidetza Erakunde batek egiaztatu beharko du, eta gai edo ez-gai den adieraziko duen txostena egingo du, Dekretu honek garatuko duen jarraibide teknikoaren arabera behar bezala justifikatuta.

Obraren sustatzailea administrazio publikoa edo sektore publikoko erakunde bat bada, bere bulego teknikoak edo Ingurumenaren Arloko Lankidetza Erakunde batek egingo du kudeaketaren amaierako txostenaren egiaztapena.

4. Ez da egiaztapenik eskatuko:

- a) Kudeaketaren amaierako txostena Ingurumenaren Arloko Lankidetza Erakunde batek egin duenean.
- b) Obraren sustatzailea edo eraikitzailea Ingurumena Kudeatzeko eta Ikusatzeko Sistema Komunitarioari atxikita dagoen kasuetan.

5. Obrak lurzorua kutsa dezakeen jarduera izan duen eraikin bat eraistea badakar, kudeaketaren amaierako txostena Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuan xedatutakoaren arabera egin beharko da.

Kasu horietan, hirigintza lizentzia edo dokumentu baliokidea eskatu zaion udalak txosten bat eskatuko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko ingurumen organoari, kudeaketaren amaierako txostena nahikoa den ebaluatzeko, eta gehienez hilabeteko epean egin beharko da. Epe hori igarotzen bada, txostena aldekoa dela ulertuko da. Kasu horietan, kudeaketaren amaierako txostenak ez du Ingurumenaren Arloko Lankidetza Erakunde baten egiaztapen gehigarririk beharko.

6. Kudeaketaren amaierako txostena, beharrezkoa bada egiaztatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen organoari bidali beharko zaio, Ingurunet plataformaren bidez.

**12. artikulua.** *Hondakinen eta eraikuntzako eta eraispenerako bigarren mailako materialen Ingurumenaren Arloko Lankidetza Erakundeak.*

1. Ingurumenaren Arloko Lankidetza Erakundeek honako eginkizun hauek gauzatuko dituzte, Dekretu hau garatzean onartuko den jarraibide teknikoaren Aginduan ezartzen denaren arabera:

- a) Obra handietatik datozen eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen eta materialen kudeaketa azterketa egiaztatzea.
- b) Obra handietatik datozen eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen kudeaketaren amaierako txostena egiaztatzea.
- c) Eraikuntza soluzio industrializatuen aplikazioa egiaztatzea, fidantza salbuesteko.
- d) Dekretu honen esparruan beharrezkoak izan daitezkeen beste eginkizun batzuk.

2. Funtzio horiek I. mailako Ingurumenaren Arloko Lankidetza Erakundeek egingo dituzte, Ingurumenaren Arloko Lankidetza Erakundeak arautzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Arloko Lankidetza Erakundearen Erregistroa sortzen duen



urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Azken Xedapenetako Laugarrenean jasotakoaren arabera.

3. Dekretu honen ondorioetarako, hondakin kudeatzaile baimendunak ezin izango dira Ingurumenaren Arloko Lankidetzaren Erakunde gisa aritu.

4. Ingurumenaren Arloko Lankidetzaren Erakundeek kudeaketa azterlanak eta eraikuntza eta eraispene obretako hondakin eta materialen kudeaketaren amaierako txostenak egin ahal izango dituzte.

### **13. artikulua.** *Eraikuntza eta eraispene obra handietako fidantza.*

1. Hirigintza lizentzia behar duten eraikuntza eta eraispene obra handietan, udalek obraren sustatzaileari fidantza bat eratzeko eskatuko diote, sortutako eraikuntzako eta eraispene hondakinen eta materialen kudeaketa egokia bermatzeko.

2. Fidantzen kudeaketari buruzko administrazio prozedura guztietan, obren identifikazioarekin batera dagokion Ingurumen Identifikaziorako Zenbakia aurkeztu beharko da.

3. Fidantza ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

- a) Administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko erakunde publikoek eta administrazio horiei atxikitako sektore publikoko erakundeek sustatutako obrak, baliabide propio pertsonifikatuetarako mandatu gisa, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluekin bat etorriz, zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen Espainiako ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duen.
- b) Sustatzaile edo kontratista nagusia Ingurumena Kudeatzeko eta Ikuskatzeko Sistema Komunitarioari atxikita duten obrak.
- c) Gutxienez eraikinaren pisuaren %75ean elementu aurrefabrikatuak aurreikusten dituzten proiektuak dituzten obrak, zimenduak kenduta, eta hala jasota baldin badago Ingurumenaren Arloko Lankidetzaren Erakunde batek egindako kudeaketa azterketaren egiaztapenean.

4. Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntzako eta eraispene hondakinen kudeaketa kostuan oinarrituko da. Kostu hori kudeaketa azterketan zehaztuko da, eta kostu horren %120 izango da.

5. Fidantza hobarritua egongo da, eta zenbatekoa hondakinen kudeaketaren kostuaren %80koa izango da kasu hauetan:

- a) Berrerabiltzeko prestakuntza prozesuetatik datozen materialen, bigarren mailako lehengaien, material birziklatuen edo materialen gutxienez %40ren erabilera jasotzen duten obrak.



b) Kudeaketa azterketa aldez aurreko auditoria bidez egin zaien obrak, Dekretu hau garatzean onartuko den jarraibide teknikoan Aginduan edo Eusko Jaurlaritzaren EEH-Aurrezten tresnaren bidez aurretiazko auditoria horietarako ezartzen denaren arabera. Alderdi horiek kudeaketa azterketaren egiaztapenaren esparruan egiaztatuko dira, eta berariaz jasoko dira dekretu honen 11. artikulua 3. atalean aurreikusitakoaren arabera egindako egiaztapen txostenean.

Hobariak gehienez ere aurreikusitako kostuaren %50 izan arte metatu ahal izango dira, eta hori dagokion kudeaketa azterketan islatuko da.

6. Fidantza eskudirutan, zor publikoko baloreetan, abal bidez, kauzio aseguruaren kontratu bidez edo Zuzenbidean balio duen beste edozein modutan eratu ahal izango da, eta obra kokatuta dagoen udalaren esku jarriko da.

7. Udalak fidantza itzuliko du, obraren sustatzaileak eskatu ondoren eta sortutako hondakin eta materialak behar bezala kudeatzen direla agiri bidez egiaztatu ondoren. Eskaera horrekin batera, kudeaketaren amaierako txostena eta dagokion egiaztapena aurkeztu beharko dira. Kudeaketaren amaierako txostena egiaztatetik salbuetsita dagoen kasuetan, fidantza itzuli egingo da, hura eta salbuespena egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuta.

8. Fidantza ez itzultzeko arrazoiak hauek izango dira:

- a) Hondakinen eta materialen kudeaketa okerra.
- b) Dekretu honetan jasotako hondakin eta materialak bereizteko betebeharrak ez betetzea.
- c) Kudeaketa azterketan adierazi diren sortu beharreko hondakin kopuruen eta kudeaketaren amaierako txostenean kudeatutzat jotakoen arteko desoreka justifikatugabea egotea: eraikuntza obretako pisuan %5etik gora, eta birgaitze, eraispen eta hondeaketa lanetan, %20tik gora.

9. Hondakinen eta materialen kudeaketa egokia egiaztatzen ez bada, eta dagokion zigor araubidea aplikatzeari kalterik egin gabe, fidantza jarri den udalak subsidiarioki gauzatuko ditu hondakinak behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren jarduerak, eta, hori ezinezkoa balitz, fidantzaren zenbatekoa udalerrian ingurumen izaerako jarduerak egiteko erabiliko du.

#### **14. artikulua.** *Eraikuntza eta eraispen obra txikiak fidantza.*

1. Udalek eraikuntza eta eraispen obra txikiak fidantzapean jarriko dituzte, Dekretu honen Lehen Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera udal ordenantzak ezartzen dutenaren arabera. Horien zenbatekoa sortuko den hondakin bolumenaren arabera izango da:

- a) Hondakinen bolumena 2 m<sup>3</sup> baino txikiagoa denean, 60 euroko fidantza eskatuko da.
- b) Hondakinen bolumena 2 m<sup>3</sup> edo handiagoa denean, gutxienez 8 euroko fidantza eskatuko da hondakinen m<sup>3</sup> bakoitzeko, eta, gutxienez, 120 eurokoa izango da fidantza.



Obraren aurrekontuaren %4ko gutxieneko muga ezartzen da, eta, gehienez ere, 500 euro.

2. Udaleko zerbitzu teknikoek fidantzaren zenbatekoa finkatuko dute sustatzaileak aurkeztutako aurrekontuan oinarrituta, hargatik eragotzi gabe fidantza hori igotzea, baldin eta aurrekontua edo sortu beharreko hondakinen eta materialen bolumena handiagoa bada azkenean.

3. Sustatzaileak hondakinen eta materialen kudeaketa egokia justifikatzen duenean itzuliko du udalak fidantza, garbigune batean edo Dekretu honen 7. eta 8. artikuluetan xedatutakoaren arabera baimendutako kudeatzaile bati entregatu zaizkiola egiaztatu ondoren.

#### **15. artikulua.** *Izapidetze telematikoa.*

1. Baliabide elektronikoen erabilera honako honek arautuko du: 91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, herritarrentzako arreta integral eta multikanalari eta bitarteko elektronikoen bidez zerbitzu publikoetarako sarbideari buruzkoa.

2. Hondakinen kudeaketan trazabilitatea bermatzeko, biltegitratze puntu bat duten obrak hondakinak sortzen dituenak edo edukitzen dituenak erregistratu beharko ditu hondakinen sorkuntza eta kudeaketa erregistroan, dagokionaren arabera, Ingurunet plataformaren bidez.

Obra handien kasuan, obra bakoitzaren erregistro kodeak lekualdatzeak identifikatzeko dokumentuetan agertu beharko dira. Proiektuaren izena erabili beharko da obraren izen gisa.

3. Datuak behar bezala biltzen direla eta inplikaturako eragileen arteko informazioa trukatzeko delak bermatzeko, ingurumen arloko eskumenak dituen sailak eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak eta materialak lekualdatzeko berariazko eta nahitaezko prozedura eta tresna telematiko berriak garatu ahal izango ditu.

4. Ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluen arabera, bai Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak eta materialak kudeatzeko planta finkoetarako, bai lurralde horretan lan egin duten planta mugikorretarako, artikulua horretan araututako artxibo kronologikoaren laburpen memoria aurkeztu beharko da, dagokion prozedura telematikoaren bidez.

#### IV. KAPITULUA

#### ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN OBRETAKO HONDAKIN ETA MATERIALEN KUDEAKETA

**16. artikulua.** *Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak tratatzeko eragiketak baimentzea.*



1. Ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak ezartzen dituen betebeharrak alde batera utzi gabe, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak eta materialak tratatzeko eragiketak gauzatzeko, hondakinak kudeatzeko baimena, ingurumen baimen bakarra, edo, hala badagokio, ingurumen baimen integratua beharko da, apirilaren 8ko 7/2022 Legean bertan eta abenduaren Euskadiko ingurumen administrazioari buruzko 9ko 10/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

2. Kasu bakoitzean egin behar diren baimen eskaerek eragiketa horiek gauzatzen diren instalazioen betekizun teknikoak betetzen direla egiaztatzen duen informazioa jasoko dute, Dekretu honen IV. eranskinaren arabera, eta Dekretu honen 20. artikuluan aurreikusitako kudeaketa sistema deskribatuko dute.

**17. artikulua.** *Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak eta materialak kudeatzen dituztenen betebeharrak.*

1. Hondakinen eta eraikuntzako eta eraispenerako materialen arloan aplikatu beharreko gainerako araudiak eskatutakoaz gain, hondakinen kudeatzaileek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Hondakinen eta materialen bereizketarekin jarraitzea, Dekretu honek garatuko duen jarraibide teknikoaren Aginduaren arabera.
- b) Obra bakoitzaren Ingurumen Identifikaziorako Zenbakia adieraztea, Ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikulua arautzen duen artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen memoriaren "Eragiketarako sarrerak. Jatorria" atalean.
- c) Obra bakoitzean hondakinak edukitzen dituztenek edo sustatzaileek eskatuta eta gehienez hilabeteko epean, obra horri dagokion artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen memoriaren laburpena ematea, kudeaketaren amaierako txostena egiteko.

2. Aurrekoez gain, Ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eranskinean aipatzen diren "R05 – Beste materia ez-organiko batzuk birziklatzea edo berreskuratzea" balorizazio eragiketarako baimendutako kudeatzaileen kasuan, bigarren mailako materialen sortzaile gisa, hauek dira betebeharrak:

- a) Dekretu honen 20. artikulua araberako kudeaketa sistema izatea.
- b) Hondakinen eta eraikuntzako eta eraispenerako materialen balorizaziotik datozen agregakinek edo lurrek eta harriek dagokion baimenean eta Dekretu honek garatuko duen jarraibide teknikoaren Aginduan xedatutako baldintzak betetzen dituztela bermatzea.
- c) Bidalketa bakoitzean, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen agregakin birziklatuarekin edo hondeatutako materialarekin batera, adostasun adierazpena edo Dekretu honetako 19. artikuluan eta Dekretu honetako V. edo VI. eranskinetako ereduaren arabera hari lotutako Erabileren Agindu Teknikoan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen erantzukizun adierazpena bidaltzea, eta adierazpen



horiek gutxienez bost urtez artxibatzea, agintari eskudunen esku egon daitezen, edozein ikuskapen edo kontroletarako.

- d) Bigarren mailako materialen edo hondakin tratatuen erabiltzaileei jakinaraztea, adostasun adierazpenaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, zer erabileratara bidera daitezkeen, horien ezaugarriak zein diren eta zein diren erabilera horietarako ingurumen baldintzak.
- e) Bigarren mailako materialaren edo materialen erabiltzailearen eskutik jasotzea tratatutako agregakinaren edo hondeatutako materialaren onarpena eta hura behar bezala erabiltzeko konpromisoa, Dekretu hau garatzean onartutako Erabileren Agindu Teknikoan jasotako baldintzetan.
- f) Dekretu hau garatzean onartutako Erabileren Agindu Teknikoan aurreikusitako analisi eta laginketen emaitzei buruzko informazioa bost urtez gordetzea, bai eta 19. artikuluan araututako erantzukizunpeko adierazpena eta adostasun adierazpena ere.
- g) Artxibo kronologikoan eta Hondakinen Sorkuntza eta Kudeaketa Erregistroan, "38.32.39 Bigarren mailako beste materia ez-metaliko batzuk" jardueraren arabeko produktuen sailkapen kodea duten eraikuntzako eta eraispenerako hondakinetatik eta materialetatik datozen bigarren mailako materialak adieraztea.
- h) Dekretu honetan ezarritako parametro guztien karakterizazio oso bat egitea urtean behin, eta parametro kritikoak betetzeko probak egitea 2.000 tona sortzen diren aldiro. Parametro kritiko horien identifikazioak hondakinaren osaeraren tartea eta aldakortasuna eta propietateak hartuko ditu kontuan, eta atalase jakin bat gainditzen duten parametroetan zehaztu ahal izango da. Atalase hori gainditzen ez bada, ezarritako muga balioekiko aldakortasunagatik edo hurbiltasunagatik parametro garrantzitsuenak hartuko dira kontuan.

**18. artikulua.** *Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak eta materialak desagerrarazteko eragiketak egiten dituztenen betebeharrak.*

1. Hondakinen eta eraikuntzako eta eraispenerako materialen arloan aplikatu beharreko gainerako araudiak eskatutakoaz gain, horiek desagerrarazteko eragiketak egiten dituztenek honako hauek baino ezingo dituzte desagerrarazi hondakindegian:

- a) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen tratamendutik datozen hondakin balorizaezinak, "R05 – Beste materia ez-organiko batzuk birziklatzea edo berreskuratzea" eragiketarako baimendutako kudeatzaileek eginda.
- b) Balorizaziotik salbuetsita egon daitezkeen hondakinak.

2. Hondakindegietan, eraikuntza helburuetarako eta Dekretu honen ondorioetarako, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak eta materialak tratatzeko baimena duten kudeatzaileetatik datozen bigarren mailako materialak erabili beharko dira.

**19. artikulua.** *Hondakin izateari uztea.*



1. Honako balorizazio eragiketa hauek inplizituki dakarte hondakin izateari uztea, adostasun adierazpenik behar izan gabe: “R0505 – Zementua fabrikatzeko lehengaien orde, hondakin ez-organikoak birziklatzea”, “R0507 – Beste fabrikazio prozesu batzuetako lehengaien orde, hondakin ez-organikoak birziklatzea” eta “R0511 – Hondakin ez-organikoak berrerabiltzeko prestakuntza”.

Hala ere, eragiketa horietan, Dekretu honi lotutako Erabileren Agindu Teknikoan ezartzen diren baldintzak bete beharko dira.

Lurrak eta harriak tratatzea helburu duen “R0511 – Hondakin ez-organikoak berrerabiltzeko prestatzea” balorizazio eragiketa kasuan, bidalketa bakoitzean VI. eranskineko erantzukizunpeko adierazpena igorri beharko da.

Eragiketa horietarako hondakinak eta materialak kudeatzeko baimenean, ingurumena babesteko asmoz eragiketa behar bezala garatzeko egokitzat jotzen diren baldintza gehigarriak ezarri ahal izango dira.

2. Ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 5.3 artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe, “R0506 – Agregakinak sortzeko hondakin ez-organikoak balorizatzea” eragiketatik datozen bigarren mailako materialak hondakintzat hartzeari utzi ahal izango dira, betiere honako baldintza hauek guztiak betetzen badira eta kudeatzailearen dagokion baimenean hala ezartzen bada:

- a) Balorizatu beharreko eraikuntzako eta eraispeneko hondakin eta materialak Dekretu honen IV. eranskinean tratamendu bakoitzerako jasotakoak bakarrik izatea.
- b) Hondakinak eta materialak tratatzen diren kasuetan, Dekretu honen IV. eranskinean ezarritako baldintza teknikoak betetzen dituzten instalazioetan egitea.
- c) Balorizazio prozesuaren ondoren lortutako agregakin birziklatuak Dekretu honetako 21. artikuluan eta horri lotutako Erabileren Agindu Teknikoaren 1a-1 taulan xedatutako erabilera eta baldintzetara bakarrik egotea bideratuta. Lur eta harrien kasuan, Dekretu honetako 22. artikulutik 26.era artekoetan xedatutakoa eta Agindu horretako 1a-2 taulan jasotako irizpideak beteko dira.
- d) Agregakin birziklatuek helburu espezifikoetarako betekizun teknikoei buruzko Europar Batasuneko Zuzenbideko xedapenetan eta produktuen arloan aplikatu beharreko araudian ezarritakoa betetzea.
- e) Balorizazioaren arduradunak bigarren mailako materialaren bidalketa bakoitzarekin batera Dekretu honen V. Eranskineko ereduaren arabeko adostasun adierazpena aurkeztea. Adostasun adierazpena edozein bitartekoren bidez egin ahal izango da, paperean edo formatu elektronikoan, baldin eta haren benetakotasuna, edukiaren osotasuna eta irakurgarritasuna bermatzen bada, ematen den egunetik eta kontserbazioaldi osoan. Bidalketa hainbat garraio unitatetan egiten bada, unitate bakoitzak adostasun adierazpen horren kopia bat izan beharko du.

3. Artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko premia sortzen denean, erakunde akreditatuek diseinatu eta hartuko dituzte laginak, UNE-EN ISO/IEC 17020:2012 arauaren arabera, edo Akreditazio Erakunde Nazionalak edo Europar Batasuneko edozein estatu kideetako beste akreditazio erakunde batzuek egiaztatuek, baldin eta 2008ko uztailaren 9ko 765/2008 (EE) Erregelamenduan aurreikusitako binakako ebaluazio sistema arrakastaz gainditu badute.



Erakunde akreditatuak independentea izan behar du bai hondakinak sortzen dituenarekiko bai hondakinak dauzkanarekiko, bai eta hondakinak erabiliko diren destinoko obraren sustatzailearen edo han hondakinak dauzkanarekiko ere.

Laginak UNE-EN 14899:2007 arauaren arabera hartuko dira (Hondakinen karakterizazioa. Hondakinen laginak hartzea. Laginketa plan bat prestatzeko eta aplikatzeko eskema), honako hauek kontuan harturik: UNE-CEN/TR 15310 serieko Txosten Teknikoak eta UNE-EN 932-1:1997 araua (Agregakinen propietate orokorrak zehazteko saiakuntzak. 1. zatia: laginketa metodoak).

4. Artikulu honetan xedatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko premia sortzen denean, hondakinei buruzko saiakuntzak eta analisiak honako hauek egingo dituzte: UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera akreditatutako laborategiek, Akreditazio Erakunde Nazionalak eta Europar Batasuneko edozein estatu kide-tako beste egiaztapen erakunde batzuek.

## **20. artikulua. Kudeaketa sistema.**

1. Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak eta materialak kudeatzen dituztenek, "R05 – Beste materia ez-organiko batzuk birziklatu edo berreskuratzea" eragiketarako baimenduta daudenean, Dekretu honetan jasotako baldintzak betetzen direla frogatzeko kudeaketa sistema bat ezarri eta ziurtatuko dute, ISO "9001:2015 Kalitatea kudeatzeko sistemak eta eskakizunak" arauaren arabera.

2. Kudeaketa sistemak prozedura dokumentatuak eta horien erregistroa jaso beharko ditu, honako baldintza hauek betetzen direla bermatzeko, bai eta Dekretu honek garatuko duen Agindu Teknikoa ere:

- a) Tratatu beharreko hondakinen onarpena kontrolatzea, Dekretu honen IV. eranskinean ezartzen den bezala.
- b) Dekretu honetako IV. eranskinean deskribatutako prozesua eta tratamendu baldintzak gainbegiratzea.
- c) Bigarren mailako materialei dagokienez, dekretu honi lotutako Erabileren Agindu Teknikoan jasotako baldintzak betetzen direla kontrolatzea eta egindako kontrolen emaitzak erregistratzea, bai eta produktuen arloan aplikatu beharreko araudia betetzen dela kontrolatzea ere.
- d) Tratamendu kontratuak, lekualdaketa identifikatzeko dokumentuak, adostasun adierazpenak edo erantzukizunpeko adierazpenak eta lotutako dokumentazioa, karakterizazioak, analitikak, saiakuntzak eta antzekoak kudeatzea.
- e) Bigarren mailako materialaren erabiltzaileek baldintzak betetzeari buruz egindako oharra aztertzea, material mota bakoitzaren destinoaren arabera.
- f) Kudeaketa sistema berrikustea eta hobetzea.
- g) Langileen prestakuntza.

3. Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen eta materialen ondoriozko bigarren mailako materialen erabileretarako, arriskuen azterketa kuantitatiboa eskatzen denean, azterketa hori kudeaketa sisteman sartuko da.



4. Kudeaketa sistemak, kasu guztietan, laginketa diseinuaren metodologia eta tratamenduaren ondoriozko bigarren mailako materialetarako lagin hartzea jaso beharko ditu.

5. Hala eskatzen zaionean, kudeatzaileak kudeaketa sistemarako eta dagozkion erregistroetarako sarbidea erraztu beharko die agintari eskudunei, eta gutxienez 5 urtez gorde beharko dira.

6. Egiatzen hori egiteko adostasuna ebaluatzeko erakunde akreditatu batek, 2008ko uztailaren 9ko 765/2008 (EE) Erregelamenduaren arabera, kudeatzaileak inplementatutako kudeaketa sistemak artikuluko baldintzak betetzen dituela ziurtatuko du.

## V. KAPITULUA

### ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENENKO HONDAKINEN BALORIZAZIOTIK ERATORRITAKO BIGARREN MAILAKO MATERIALEN ERABILERAK

**21. artikulua.** *Eraikuntzako eta eraispeneke hondakinen eta materialen balorizaziotik eratorritako bigarren mailako materialen erabilera.*

1. Hondakin izateari utzi dioten eraikuntzako eta eraispeneke hondakin eta materialen balorizaziotik datozen bigarren mailako materialak Dekretu honen VIII. eranskinean eta horri lotutako Erabileren Agindu Teknikoan ezartzen diren erabileretarako erabili ahal izango dira.

2. Bigarren mailako materialak ezin izango dira Dekretu honetan eta garatzen duen Erabileren Agindu Teknikoan jasotakoez bestelako erabileretarako erabili, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen organoaren berariazko baimena izan ezean; baimen hori, kasuz kasu, interesdunak proposatutako erabileraren edo aplikazioaren egokitasuna eskatu eta justifikatu ondoren emango da. Egokitasun hori aurreikusitako erabilerarako arriskuen azterketa batean oinarrituko da, beharrezkoa izanez gero.

3. Bigarren mailako materialen erabilera horiei ligatu gabeko aplikazioetan ezin izango da baliatu, honako kasu hauetan:

- a) Ondare naturaleko gune babestuetan, Euskadiko Ondare Naturala Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legean ezarritakoaren arabera halakotzat jotakoetan, gune hori kudeatzen duen organoaren aldeko txostena izan ezean.
- b) Material granular gisa aplikazio drainatzaileetan edo azaleko edo lurpeko urekin kontaktuan, ezta urak har ditzakeen eremuetan ere.
- c) Giza kontsumorako ur-bilketak babesteko perimetroetan, eta, horiek onartzen ez diren bitartean, ur-bilketak babesteko eremuetan.
- d) Karstiko gisa sailkatutako ezaugarri geologikoak dituzten eremuetan.



4. Lur eta harri ez-naturalak ezin izango dira honako eragiketa hauetara bideratu: “R1001 – Nekazaritzako eta lorezaintzako lurzoruetan hondakinak balorizatzea” eta “R1002 – Lurzoru degradatuak lehengoratzeko hondakinak balorizatzea”.

**22. artikulua.** *Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen eta materialen balorizaziotik (lurrak eta harriak, tartean) eratorritako bigarren mailako materialen erabiltzaileen betebeharrak.*

Hondakin izateari utzi dioten bigarren mailako materialen edo lur eta harrien azken erabiltzaileek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Soil-soilik kudeatzaile baimenduetatik datozen bigarren mailako materialak erabiltzea.
- b) Bigarren mailako materialak Dekretu honetan eta horri lotutako Erabilera Agindu Teknikoan ezartzen diren erabileren arabera baliatzea.
- c) Bigarren mailako materialaren bidalketa bakoitzean, adostasun adierazpenean jasotako ezaugarriak aurreikusitako erabilerara egokitzen direla egiaztatzea, eta, hala badagokio, adierazpen hori sinatzea.
- d) Erabiltzaile guztiek adostasun adierazpenaren kopia bat gordeko dute gutxienez bost urtez, adierazpena ematen den egunetik zenbatzen hasita, eta agintari eskudunen esku jarriko dute hala eskatzen zaienean.
- e) Bigarren mailako materialen erabilerari buruzko informazioa, lurrak eta harriak barne, obraren dokumentazio teknikoan sartzea, hura arautzen duen araudi sektorialak ezartzen dituen baldintzetan.

## VI. KAPITULUA

### ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN OBRETAKO LUR ETA HARRIEN ARLOKO BETEBEHARRAK

**23. artikulua.** *Hondakinen ekoizleen betebeharrak, eraikuntza eta eraispenerako obrak eta harriei dagokienez.*

Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen eta materialen arloko araudiak eskatutakoaz eta Dekretu honetan araututako betebeharrak gain, lurrak eta harriak sortzen dituzten pertsonak, obra sustatzaile gisa, honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Obra proiektuetan hondeaketarako alternatiben azterketa txertatu, hondeatutako material kopuru txikiagoa ahalbidetuko duen alternatiba hautatzeko. Beste edozein aukera hautatzeko, proiektuan behar bezala justifikatu beharko da.
- b) Lurrak eta harriak, lehentasunez, obran bertan berrerabiltzeko erabili beharko dira, beste material natural batzuen ordean, eta funtzio bera beteko dute, Dekretu honetan eta hari lotutako Erabileren Agindu Teknikoan ezarritako betekizunekin bat etorriz.
- c) Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak eta instalazioak dituzten edo izan dituzten kokalekuetatik datozen lurrak eta harriak jatorrizko obran edo beste obra batean lurzoru gisa erabili daitezkeen zehazteko, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean eta hori garatzeko araudian araututako tresnak erabili beharko dira, ahal den guztietan. Ondorio horietarako, honako hauek dira



tresnak: lurzoruaren kalitatearen ikerketak, hondeaketa planak, karakterizazioak edo lurzoruaren kalitatearen amaierako txostena.

**24. artikulua.** *Eraikuntza eta eraispén obretako lur eta harrien (balorizatu ondoren) erabiltzaileen betebeharrak.*

Eraikuntza eta eraispén obretako lur eta harrien erabiltzaileek, Dekretu honetan eta horri lotutako Aginduan araututako erabileretarako balorizatu ondoren, honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Lurrak eta harriak ez nahastea, balizko kutsadura edo trazabilitatearen galera diluitzeko helburu bakarrarekin.
- b) Lurren eta harrien kokalekuko lurzoruaren kalitatea mantentzea.
- c) Lurrek eta harriek bateragarriak izan beharko dute Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean aipatzen diren lurzoruaren egungo eta aurreikusitako erabilerekin, giza osasunean eta ingurumenean ondorio kaltegarriak gertatzen ez dela bermatzeko.
- d) Ekosistemen eta baliabide hidrikoen zaintza errespetatzea destinoko kokalekuan.

**25. artikulua.** *Hondakinak edukitzen dituztenen betebeharrak, eraikuntza eta eraispén obretatik hondeatutako materialei dagokienez.*

1. Eraikuntzako eta eraispéneko hondakinen eta materialen arloko araudiak eskatutakoaz eta Dekretu honetan araututako betebeharrak gain, hondeatutako materialak edukitzen dituztenek, obrako kontratista gisa, honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Obra proiektuan jasotako jatorrizko kokalekuan hondeatutako materialen gehieneko kopurua errespetatzea. Destinoko kokalekuak ere ez du bere Obra Proiektuan aurreikusitakoa baino material horien kopuru handiagoa onartu beharko. Bi kasuetan, zenbateko horiek zenbatzeko, kontuan hartuko dira egikaritzen ari zirela sartu izan diren obra proiektuetan justifikatutako eta onartutako aldaketak.
- b) Landaretza hazten ari den eta hondeatu, bete edo trinkotuko diren lurzoru naturaleko gainazaletan lurzoru naturaleko goiko geruza kentzea, geruza hori lurzoru natural horretan landareen sustraiek lortzen duten sakonera ikusgarriraino, edo, gutxienez, 15 zentimetrora luzatzen dela ulertuta. Kendutako lurzoru hori narriadura saihesteko baldintzetan biltegitratuko da, ondoren berrerabiltzeko, eta "lurzoru natural zaindua" deituko zaio.
- c) Lurrak eta harriak hondeatu, biltegitratu, garraiatu eta berrerabili edo balorizatzeko eragiketak egin aurretik, jatorrizko kokalekuan landare exotiko inbaditzaileak zabaltzea saihesteko detekzio eta desagerrarazte neurriak hartzea, betiere ekosistemen babesa bermatuta.
- d) Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten lekuetan, Hondeaketa Planean xedatutakoa beteko da, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearekin bat etorritik.



2. Debekatuta dago lurrak eta harriak beste hondakin edo substantzia batzuekin nahastea, nola hondeaketa egiten den bitartean, hala horiek sailkatu eta garraiatzeko ondorengo eragiketetan.

**26. artikulua.** *Eraikuntza eta eraispén obretako lur eta harrien aldi baterako biltegitzearekin lotutako betebeharrak.*

1. Eraikuntza eta eraispén obretako lurrak eta harriak aldi baterako biltegitzeko jarduerak egiten dituztenek honako hauek gauzatu beharko dituzte:

a) Jatorrizko obran, lurrak eta harriak biltegitzea, kronogramak eta norberaren obrak bertan berrerabiltzea ahalbidetzen duten unera arte.

Berrerabilera hori ezinezkoa bada obra berean, lurrak eta harriak hondakintzat hartuko dira, eta gehienez 2 urtez biltegitatu ahal izango dira, obra lizentziaren indarraldia amaitzen denetik edo obra publikoa jasotzen denetik zenbatzen hasita. Une horretatik aurrera, beste obra batera edo baimendutako kudeatzaile batera eraman beharko dira.

b) Destino obran, lurrak eta harriak biltegitzea, kronogramak eta norberaren obrak bertan balorizatzea ahalbidetzen duten unera arte.

Nolanahi ere, lurrak eta harriak biltegitzeko baldintza egokietan eta ezaugarri teknikoen eta ingurumenekoen arabera bereizitako pilaketetan egongo dira.

Aurreko kasuetan ere ezin izango dira nahasketak egin diluzioa xede bakartzat hartuta.

2. Obran bertan aurreikusitako helbururik eta bertan biltegitzeko aukerarik ez duten lurrak eta harriak horretarako baimendutako instalazioetan biltegitatu beharko dira, erabilera zehaztu arte.

Instalazio horiek hondakinak kudeatzeko instalazioak izan beharko dute, Ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 23. artikulua arabera, gutxienez, honako eragiketa hauetarako:

a) R0511 – Hondakin ez-organikoak berrerabiltzeko prestatzea.

b) R1302 – Hondakinak biltegitzea, tratamendu eremuan.

Instalazio horiek Dekretu honen IV. eranskineko 1C atalean jasotako betebeharrak bete beharko dituzte.

**27. artikulua.** *Lurrak eta harriak hondakindegian uzteko debekua ezartzea.*

1. Dekretu honetan eta hori garatzen duen eta baimendutako kudeatzaile batek hala egiaztatzen duen Aginduan ezarritako erabileretako baten baldintzak betetzen dituzten lurrak eta harriak ezingo dira hondakindegian utzi. Berehalako destinatorik izan ezean, Dekretu honen 26. artikuluan ezarritakoaren arabera biltegitatu beharko dira, aldi baterako. Baldintza bakar bat ere betetzen ez dutenak baimendutako kudeatzaileetara bideratu beharko dira, "R0502 – Hondeatutako lurzoruak deskutsatzea" eragiketara eraman ditzaten, eta, ondoren, lurzoruaren balorizazioa emaitzatzen ematen duen Dekretu honi lotutako Erabilera Aginduan jasotako beste eragiketa batera.

2. Dekretu honetan eta hari lotutako Erabileren Agindu Teknikoan ezarritako erabilera baldintzak betetzen ez dituzten lurrak eta harriak bakarrik utzi ahal izango dira



hondakindegian, artikuluko honen 2. atalean ezarritakoaren arabera baldintza horiek lortzeko tratamendua teknikoki bideragarria ez denean. Kasu horretan, hondakina sortzen duen pertsonak Autonomia Erkidegoko ingurumen organoaren aurrean justifikatu beharko du bideraezintasun hori.

## VII. KAPITULUA

### BETELANEN INGURUMEN BALDINTZAK ETA AIRE ZABALEKO MEATZE HUTSUNEEN LEHENGORATZEA

**28. artikulua.** *Betelaneen ingurumen baldintzak, hondakinak eta eraikuntzako eta eraispenerako materialak balorizatzeko eragiketa gisa.*

1. Honako hondakin hauek soilik balorizazio betelaneetarako erabili ahal izango dira "R0508 – Material ez-organikoen balorizazioa betelaneetan" eragiketaren bidez, aire zabaleko meatze hutsuneak lehengoratzearaz bestelako erabileretarako:

- a) Kutsagarria izan litekeen jarduerarik egon ez den lekuetatik datozen lurrik eta harri naturalek osatutako hondakinak, urriaren 10eko Nekazaritza, Arrantza eta Ingurumen Ministerioaren 1007/2017 Aginduan araututakoak, kontuan harturik agindu hori hondeatutako material naturalak betelaneetan eta sortu ziren obretan ez baina beste batzuetan erabiltzeko balorizazio arau orokorreari buruzkoa dela.
- b) Kutsagarriak izan litezkeen jarduerak egon diren lekuetatik datozen lurrik eta harri naturalek osatutako hondakinak; horretarako, kontuan hartu beharko da Dekretu honi lotutako erabileren agindu teknikoan xedatutakoa.

Betelana egiteko ezin izango da bestelako hondakinik erabili.

2. Eragiketa honen arabeko betelaneen erabilerak eta baldintzak Dekretu honi lotutako erabileren agindu teknikoan jasotzen dira.

**29. artikulua.** *Lur eta harriekin, eraikuntzako eta eraispenerako hondakin egokiekin eta birziklatuak diren materialekin aire zabaleko meatze hutsuneak lehengoratzearaz.*

1. Ekonomia zirkularra sustatze aldera, lurrik eta harri naturalak erabili ahal izango dira aire zabaleko meatze hutsuneak lehengoratzeko, Dekretu honi lotutako erabileren agindu teknikoan xedatutakoaren arabera.

2. Salbuespen gisa eta justifikatuta, lur eta harri ez-naturalak, eraikuntzako eta eraispenerako hondakin egokiak eta eraikuntzako eta eraispenerako hondakinetatik datozen agregakin birziklatuak erabili ahal izango dira, Dekretu honi lotutako erabileren agindu teknikoan jasotako baldintzekin.

Salbuespenezko erabilera horiek Autonomia Erkidegoko ingurumen organoaren berariazko baimena izan beharko dute. Baimen hori lortzeko, dagokion eskaera aurkeztu beharko da, ekainaren 12ko 975/2009 Errege Dekretuan (erauzketa industrietako hondakinak kudeatzeari eta meatze jarduerak eragindako espazioa babestu eta birgaitzeari buruzkoa) ezarritako edukia duen lehengoratzeari buruzko planaren ale batekin batera.



Planak, gainera, artikuluko honetan araututako balorizazio eragiketei buruzko informazioa jaso beharko du, bai eta hurrengo 4. paragrafoan ezarritakoaren arabera erabilera horiek baliu daitezkeela justifikatzen duen txosten bat ere. Karstifikazioa dagoela susmatzen den kasuetan, beharrezkoa izango litzateke berriazko azterketa bat egitea karstifikazioaren garapenari buruz eta eremuaren iragazkortasunean izan dezakeen eraginari buruz.

3. Lur eta harri ez-naturalak, eraikuntzako eta eraispenerako hondakin egokiak eta eraikuntzako eta eraispenerako hondakinetatik datozen agregakin birziklatuak ezin izango dira egon azken azaleratik metro batera baino gutxiagora.

Gainera, ezin izango dira material horiekin lehengoratu aire zabaleko meatze hutsuneak edo meatze emakiden barruan dauden eremuak, baldin eta, lehengoratzea beharrezkoa izan arren, ezaugarri hauetakoren bat badute:

- a) Akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun oso handiko guneetan kokatutako eremuak, erreferentzia iturri ofizial baten edo gune horretan egindako azterlan espezifiko baten arabera zehaztuta edo sailkatuta.
- b) 300 metro baino gutxiagora dauden barrunbe karstikoak dituzten eremuak, non meatze hutsunea lehengoratuz gero lurrazaren iragazkortasuna arrisku nabarmenean jar litekeen.
- c) Galeria edo lurpeko barrunbe artifizialei dagozkien eremuak.
- d) Lerradurei, masa mugimenduei edo bloke erorketei lotutako arrisku nabarmenaren ebidentzia duten guneetan kokatutako eremuak, edo gune ezegonkor horietatik 100 metrora edo gutxiagora kokatutakoak, bai eta subsidentzia arriskuaren ebidentziak dituztenak ere, meatzaritza barne.
- e) Elur jausiak izateko arrisku handia daukaten eremuak, urte sasoiari loturiko elur pilaketengatik, edo eragina jasan lezaketan eremuak.
- f) Jabari publiko hidraulikoko eremuetan edo zortasun- eta zaintza-eremuetan dauden eremuak, bai eta itsas-lehorreko jabari publikoan edo horien babes-zortasuneko eremuetan daudenak ere.
- g) Lehengoratu beharreko eremuaren kota minimoaren eta batez besteko maila freatikokoaren arteko distantzia bertikala 2 metrokoa edo txikiagoa den eremuak, edo maila freatikoa kota horretara iritsi daitezkeen eremuak, euri-jasa altuetan edo marearen eraginpeko eremuetan.
- h) Hornidurarako lurrazpiko edo lurrazaleko ur bilketa batean eragina izan dezaketen eremuak, non eguneko batez besteko ur bolumena 10 m<sup>3</sup>-koa edo hortik gorakoa izango den, edo 50 pertsona baino gehiago hornituko diren. Eremu babestuen erregistroan sartuta egon beharko du, Uraren Esparru Zuzentarauari (2000/60/EE Zuzentaraua) jarraiki.
- i) Uretan behera 100 metro baino gutxiagora dauden ur mineralak eta termalak eta hornidura putzuak babesteko perimetroan edo, jakinez gero, lurpeko uraren fluxuaren norabidean eragin dezaketen eremuak. Azaldutako elementu horiek guztiak eremu babestuen erregistroan sartuta egon behar dira, Uraren Esparru Zuzentarauari (2000/60/EE Zuzentaraua) jarraiki.
- j) 100 urteko errepikatze denborako uholde gunean kokatutako eremuak.
- k) Urez hornitzeko urtegi burutik ibaian gora 500 metro baino gutxiagora dauden eremuak.



- l) Naturagune babestuetan, Natura 2000 Sareko naturagune babestuetan edo nazioarteko tresnak aplikatuz babestutako guneetan kokatuta dauden eremuak, Euskadiko Ondare Naturala Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legean ezarritakoaren arabera.
- m) Euskadiko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan sartutako eremuak, lehengoratzek haiek suntsitzea edo ondare balioa galtzea badakar.
- n) Kultura intereseko ondasun gisa edo antzeko babes figura gisa deklaraturako eremuak, dagokien babes perimetroa barne, baldin eta lehengoratzek planak katalogaturako edo inbentariatutako kultura ondarearen galera itzulezina ekar badezake.

4. Material horiek ahalik eta gehien erabiltzeko eta ingurunea jatorrizko egoerara lehengoratzeko, lehengoratzek planen helburua izango da jatorrizko topografia berreskuratzeko behar denaren antzeko material kantitatea baimentzea, edo, bestela, lurra egoera egokira itzultzea, bereziki, kasuen arabera, lurzoruaren kalitateari, faunari, habitat naturalei, ur gezako sistemei, paisaiari eta erabilera onuragarri egokiei dagokienez. Nolanahi ere, erabili beharreko hondakin eta material kopurua helburu horiek lortzeko behar-beharrezkoa den kantitatera mugatuko da.

5. Aire zabaleko meatze hutsunea lehengoratu ondoren lurzoruari emango zaion edozein erabileratan, industria erabilera edo akabera espezifikoa behar duen beste edozein erabilera ez denean, betelanaren gainazaleko azken metroa lur eta harri naturalena izango da, drainatze geruza gisa, eta gutxienez 0,5 metroko lodiera izango du; gainazaleko estaldura geruzak, berriz, gutxienez 0,5 metroko lodiera. Gainera, azken 20 zentimetro azalekoenak "babestutako lurzoru naturalekoak" izan beharko dira, edo, bestela, 100 milimetrotik beherako granulometria duten lur eta harri naturalekoak, materia organikoz eta konpostez aberastuak. Hori lagungarria izango da ingurunea berriz landareztatzeko, batez ere espezie autoktonoekin eta zuhaitzekin.



**Lehenengo xedapen gehigarria.** *Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinei buruzko udal ordenantzak.*

Dekretu hau indarrean sartu eta 12 hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek udal ordenantzak onartu edo eguneratu beharko dituzte, eta ordenantza horietan, Estatuko legerian eta Dekretu honetan xedatutakoari kalterik egin gabe, obra txikietatik datozen eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kudeaketa arautuko da, bai eta, hala badagokio, horien mugak, tasak eta fidantzak ere.

**Bigarren xedapen gehigarria.** *Ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen hamalaugarren xedapen gehigarriaren garapena Euskal Autonomia Erkidegoan. Amiantoaren erroldak eta egutegiak egitea.*

1. Ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen hamalaugarren xedapen gehigarria betetzeko, udalek amiantodun instalazioen eta kokalekuen erroldak eta egutegiak egiteko duten betebeharrari dagokionez, betekizun espezifiko hauek ezartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan:

- a) Udalek Eusko Jaurlaritzak ezarritako metodologiaren arabera egingo dituzte erroldak eta egutegiak.
- b) Erroldak eta egutegiak egin ondoren, udalek osasun, ingurumen eta lan agintariei bidaliko dizkiete, horretarako prestatutako bide elektronikoaren bidez. Era berean, organo eskudunak beste jarraibiderik ematen ez duen bitartean, udalek 2026ko abenduaren 31 baino lehen bidaliko dute eguneratzea, eta, ondoren, 3 urtean behin, erretiratzeko egutegiak udalerriko amiantodun instalazio eta kokaleku guztiak barne hartu arte.
- c) Oinarrizko etapan udal erroldan lehentasuna izan duten amiantodun instalazioen eta kokalekuen titularrek amiantoaren ikuskapen zehatza egin beharko dute lehenetsitako eraikin eta instalazio horietan, bai eta amiantoa dutelako identifikatuta dauden elementuak erretiratzeko eta kudeatzeko plan bat ere, baldin eta, elementuon egoera edo bitzta erabilgarria amaitzeagatik, arriskua badakarte.

Udal titulartasunik ez duten kokaleku edo instalazioen kasuan, udalak errekerimendu bat bidaliko dio titularrari, udal errolda egitean amiantoa daukaten edo edukitzearen susmopean dauden materialak identifikatu direla jakin dezan, eta, beraz, Eusko Jaurlaritzak onartutako metodologian zehaztutako irismena izango duen ikuskapen xehatua egin dezan.

Ikuskapen xehatu horren ondoriozko txostena eta arriskua dakarten materialak erretiratzeko egutegia dagokion udalari bidali beharko zaizkio, udal erroldan sartzeko. Gainera, lan zentroen kasuan, eta amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituen martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuarekin bat etorriz, ikuskapen xehatu horiek Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak koordinatu beharko ditu.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** *Ingurunet plataforma elektronikoa gaitzea.*

Dekretu honetan xedatutakoaren arabera Ingurunet plataforma elektronikoen bidez egin beharreko igorpenak Zerbitzu Elektroniko Orokorreara egingo dira, plataforma hori gaitzen ez den bitartean.

**Laugarren xedapen gehigarria.** *Obra txikitako hondakinak eta materialak udal instalazioetan entregatu izanaren egiaztatzea.*

Dekretu hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, obra txikitik datozen eraikuntzako eta eraispenerako hondakin eta materialak entregatzen diren garbiguneez arduratzen diren erakundeek mekanismo bat ezarri beharko dute hondakin eta material horiek beren instalazioetan entregatu direla egiaztatzeko.

**Lehenengo xedapen iragankorra.** *Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko dauden jarduerak dekretu honetara egokitzea.*

1. "R05 – Beste materia ez-organiko batzuk birziklatzea edo berreskuratzea" eta "R10 – Nekazaritzarentzat onura edo hobekuntza ekologikoa dakarten lurzoruen tratamendua" tratamendu eragiketak egiteko baimena daukaten kudeatzaileek Dekretu honetan jasotako aurreikuspenak bete beharko dituzte, Dekretua indarrean sartu eta urtebeteko epean.

2. Horretarako, dagokion ingurumen baimena aldatzeko eskatu beharko diote Autonomia Erkidegoko ingurumen organoari, dekretu hau indarrean sartu eta 6 hilabeteko epean. Zehazki, gutxienez baimendutako hondakin tipologia kudeatzeko beharrezkoak diren gutxienerako instalazioak edukitzeko egokitu beharko dute aldaketa hori, bai eta "R05 – Beste materia ez-organiko batzuk birziklatzeko edo berreskuratzea" eta "R10 – Nekazaritzarentzat onura edo hobekuntza ekologikoa dakarten lurzoruen tratamendurako" dagokion balorizazio eragiketak egiteko gaitzeko ere.

3. Aurreko paragrafoan aipatutakoez bestelako eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen kudeatzaile baimenduek dekretu honen eskakizunetara egokitzeko plan bat aurkeztu beharko dute Eusko Jaurlaritzako ingurumen organoan, Dekretu hau indarrean sartu eta 3 hilabeteko epean. Egokitzapen hori Dekretu hau indarrean sartu eta urtebeteko epean egin beharko da.

**Bigarren xedapen iragankorra.** *Elkargo profesionalen dekretura egokitzea.*

1. Dekretu hau indarrean jartzen denean (eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren esparruan) Kudeaketako Azken Txostena egiaztatzeko erakunde gisa diharduten elkargo profesionalak Ingurumenaren Arloko Lankidetzara Erakunde gisa lan egiten jarraitu ahal izango dute, Dekretu honen 12. artikuluan jasotakoaren arabera.



2. Elkargo profesional horiek urtebeteko epea izango dute artikuluko horretan aurreikusitako baldintza guztietara egokitzeko.

**Hirugarren xedapen iragankorra.** *Kudeatzaileek kudeaketa sistema bat izateko aldi baterako epea.*

Dekretu hau indarrean jarri eta 2 urte igaro ondoren, 21. artikuluan araututako kudeaketa sistemarik ez duten eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen kudeatzaileei baimena ezeztatuko zaie.

**Laugarren xedapen iragankorra.** *Hasitako prozedurak.*

Dekretu honetan jasotako espedienteak eta administrazio tramitazioak –dekretu hau indarrean jarri aurretik hasitakoak– hasteko unean indarrean zeuden xedapenen arabera tramitatuko dira; horien artean:

- a) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinekin lotutako hondakinen kudeatzaileentzako baimenak; horrek ez du esan nahi, ordea, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko jarduerak Dekretu honetara egokitzeari buruzko lehen xedapen iragankorrean aipatzen diren egokitzapenak kontuan hartuko ez direnik.
- b) Aurkeztutako eskabidearen xede diren eraikuntza edo eraispen proiektuak eta obrak, lizentzia lortzeko daudenak.
- c) Abala gordailututa eduki eta obra amaitu gabe dauden ekimenak.
- d) Gauzatze epe luzeak dauzkaten azpiegitura linealen obrak.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** *Arauk indargabetzea.*

1. Indargabetuta geratzen dira maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, Dekretu honetan xedatutakoarekin bat ez datozenean.

2. Berariaz indargabetuta geratzen da ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena.

3. Berariaz indargabetuta geratzen dira hondakinak hondakindegietan biltegituz eta betelanak eginez desagerraraztea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren 26. eta 27. artikulukoak.

**Azken xedapenetatik lehena.** *Dekretu hau garatzeko eta aldatzeko arau gaikuntza.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean ingurumenaren arloan eskumena duen saileko titularrari ahalmena ematen zaio Dekretu hau garatzeko eta aldatzeko behar diren arau guztiak eman ditzan, dauden aurrerapen zientifiko eta teknologikoekin bat etorritik, agregakin birziklatu etarako erabilera berriak ezartzea barne.



**Azken xedapenetatik bigarrena.** *Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretua aldatzea.*

1. 14. artikulua 5. atala aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

*«Ingurumen segimendurako lanak eta txostena lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko erakunde akreditatu batek egingo ditu, hondeaketaren bolumena 100 metro kubikotik gorakoa denean edo, hondeaketaren bolumena edozein dela ere, hondeatutako material guztia edo haren zati bat sortu zen obran ez baina beste batean berrerabiltzeko baliatzen denean».*

2. IV. eranskinean indargabetuko da "Zabortegi baimenduan berrerabiltzeko eta ezabatzeko irizpide orokorrak" izeneko ataleko bigarren gidoia; "Zabortegi baimenduan berrerabiltzeko eta ezabatzeko irizpide orokorrak" izeneko ataleko azken bi paragrafoak gehituko dira; "Emitzen informazioa" izeneko ataleko laugarren paragrafoko bigarren gidoiaren testua aldatuko da; "Hondeaketa selektiboko planaren edukia" izeneko atalean azken paragrafoa gehituko da dagozkion zortzi gidoiekin, eta "Hondeaketa selektiboko plana gauzatu osteko azken txostenaren edukia" izeneko ataleko azken paragrafoa gehituko da. Beraz, IV. eranskina honela idatzita geratuko da:

#### **ABENDUAREN 26KO 209/2019 DEKRETUAREN IV. ERANSKINA HONDEAKETA SELEKTIBOKO PLANA**

##### ***Helburua eta aplikazio eremua.***

*Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak ezartzen duen bezala, hondeaketa selektiboko planaren helburua da lurzorua kutsa dezakeen jardueraren bat hartu duen edo hartu izan duen kokaleku batean, edo kutsadura horrek kaltetu duen kokaleku batean, hondeaketa jarduerak planifikatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren alderdiak garatzea, baldin eta substantzia baten edo batzuen A (A-EBA) ebaluazio balio adierazleak gainditu badira, edo petrolioaren guztizko hidrokarburoen (TPH) kontzentrazioak 9/2005 Errege Dekretuak ezarritako 50 mg/kg-ko balioa gainditu badu. Hondeaketa plana, ikerketa baten zati gisa, hondeatu eta kudeatu nahi den lurzoruaren eta materialaren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko tresna bat da, eta, ondorioz, hondeaketaren ingurumen segimendua eta kontrola bermatu beharko du, betiere hondeatutako materialak optimizatuz eta behar bezala berrerabili, tratatu edo kudeatuko direla giaztatuz.*

*Hondeaketa selektiboko lanak planifikatu eta gauzatzeko alderdi praktikoak "Lurzoru kutsatuetako hondeaketa selektiboei buruzko gidaliburuan" garatzen dira.*



*Hondeaketa selektiboko plana beharrezkoa izan daiteke, batetik, eraikuntza proiektu baten beharrek eragiten badute hondeaketa, eta, bestetik, alternatibak aztertu ondoren onartutako berreskuratze planaren parte bada hondeaketa.*

*Eraikuntza proiektua, berez, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak hartu izan dituen kokaleku batean lurrak mugitzeko proiektu bat baino ez denean ere, hondeaketa planak ez du inola ere proiektu hori ordeztuko.*

*Kasu bietan, lur mugimendua 500 m<sup>3</sup> baino handiagoa bada, hondeaketa selektiboko planak hainbat aukera baloratuko ditu, hondeatu beharreko material kantitatea ahal den neurrian minimizatzen, berrerabili beharreko material kantitatea maximizatzen eta materialarentzako destinorik egokiena hautatzen.*

*Badira bi zirkunstantzia orokor non nahitaezkoa izango baita ingurumen organoari hondeaketa selektiboko plan bat aurkeztea, hondeaketa egin aurretik onartu beharko dena (ezin izango da hondeaketa egin onarpenik gabe, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean jasotako salbuespenetan izan ezik).*

- Hondeaketa bat lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpen prozedura baten esparruan egin behar denean, hondeatu beharreko bolumena edozein dela ere, hondeaketa selektiboko plan bat aurkeztuko da, erakunde akreditatu batek egina. Plan hori lurzoruaren kalitatearen esplorazio ikerketarekin edo, hala badagokio, ikerketa xehatuarekin batera aurkeztu beharko da.*
- Lurzoruaren kalitatearen arloko adierazpen prozeduratik salbuesitako kasuren batean, hondeatu beharreko materialaren bolumena 500 m<sup>3</sup> baino handiagoa denean. Hondeatu beharreko materialaren bolumena kalkulatzeko, material guztiak hartuko dira kontuan gainazaletik edo 0 edo kotatik, zolatak barne, hondeaketaren gehieneko sakoneraraino. Substratu harritsu ere bolumenean batu beharko da baldin eta, adibidez, lurzoruarekin pareka daitekeen maila batean meteorizatuta badago edo junturetan hondar lurzorua badago.*

### **Hondeaketa planak gauzatzeko alderdi garrantzitsuak.**

#### **Aurretiatzko ikerketaren beharra.**

*Karakterizazio egoki batek aukera eman beharko du hondeatu beharreko materialen nolakoa, eragina eta bolumena ahalik eta zehatzen bereizteko, kanpoko kudeaketarako, berrerabilpenerako edo tratamendurako erabaki unitateak bereizte aldera. Helburu hori lortzeko, hasiera batean, komenigarria izan daiteke edozein lur mugimendu egin aurretik hondeatu beharreko materiala karakterizatzea.*

*Lurzorua kutsa dezakeen jarduera bat hartu izan duen edo hartzen duen kokaleku baten – non hondeaketa partziala edo osoa egingo den– hondeaketa planaz gain ikerketa gehigarri bat aurkeztu behar den ala ez jakiteko, hondeaketa lurzoruaren kalitatearen adierazpen prozedura baten parte den ala ez hartuko da kontuan, jarraian deskribatzen den moduan.*

- **Hondeaketa selektiboko plana lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpen prozedura baten barruan dagoenean**, lurzoruaren kalitateari buruzko esplorazio ikerketaren emaitzak, eta, hala badagokio, ikerketa xehatua hartuko ditu oinarri planak. Irizpide hori aplikatu ahal izango zaie, halaber, dagoeneko lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena, eta, ondorioz, ikerketa bat duten kokalekuei.
  - Saneamenduetarako hondeaketen kasuan, hondeaketa selektiboko plana berreskuratze planaren parte izango da, eta ikerketa oso batetik abiatuta landuko da.
  - Eraikuntza proiektu bakoitzeko hondeaketen kasuan, kokalekuaren esplorazio ikerketa eduki beharko da, eta erreferentziako balioak gaintuz gero, ikerketa xehatua, arriskuen analisi kuantitatiboa (AAK) barne. Hondeaketen langileentzako agertoki zehatzak edo hondeaketaren aurreko agertokiak kontuan hartu behar diren kasu berezietan izan ezik, posible izango da AAKn ez hartzea kontuan hondeatu beharreko materialeko kutsatzaileen kontzentrazioak. Hondeaketako materiala kokalekuan bertan berrerabiltzea planteatzen bada, ikerketa xehatua osoa izan beharko da. Nolanahi ere, hondeatu beharreko materialaren bolumenaren behar besteko karakterizazioa egingo da (erabaki unitateena), tratagarritasuna baloratzeko behar den kutsatzaile kuantifikazioa barne hartuta, edo kanpoan kudeatzeko (zabortegi baimendua) aplikatu beharreko araudiak ezarrita.

Hondeaketa planaren oinarri den eraikuntza proiektuak bat etorri beharko du azkenean gauzatutakoarekin. Horregatik, gauzatu aurretik gerta daitekeen edozein aldaketa garrantzitsuren berri eman beharko zaio ingurumen organoari, baldin eta hondeaketa planean aldaketarik eragiten badu. Hondeaketa amaitzean ingurumen organoak onartutako hasierako planarekiko desberdintasunak antzemateko, ekintza osagarriak egin ahalko dira (ikerketa zabaltzea, AAKa zabaltzea, etab.).

Leku batean saneamendurako edo eraikuntza proiektu bidez egiten diren hondeaketetarako, hondeaketa planak aurreko paragrafoetan deskribatutako ikerketa eta karakterizazio osoak izan beharko ditu, kasu bakoitzerako baldintza berezietan.

- **Hasiera batean lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpen prozedura baten parte ez diren kokalekuetan hondeaketak egiten badira**, normalean ez dago hondeaketa plana diseinatzeko aurretiazko daturik hondeatu eta kudeatu beharreko material motak behar bezala bereizteko. Horregatik, kasu honetan, hondeaketa plana behar bezala diseinatzeko eta ondoren gauzatzeko, plan horrek laginketa eta karakterizazio kanpaina espezifikoak egitea jaso beharko du, ondoko ataletan ematen diren irizpideen arabera.

### **Hondeatu beharreko materialen laginketa**

Hondeatu beharreko materialen lagin adierazgarriak hartzeko hondeaketa planean kontuan hartzen den estrategia "kasuz kasu" diseinatuko da, honako alderdi hauen arabera, besteak beste: kokalekuaren berezitasunak, kutsaduraren banaketa, eragindako mailak, eraikuntza proiektuaren ezaugarriak, materialentzat aurreikusitako tratamendua eta kudeaketa, eta



*lurzoruaren kalitatearen ikerketarik ba ote dagoen. Hala ere, material horien karakterizazio kanpainaren diseinuan oinarrizko irizpide batzuk kontuan hartu beharko dira:*

*Saneamendurako hondeaketetan, hondeaketa planaren aurretik ikerketa bat egin behar bada, hondeaketaren xede balioak gainditzen dituzten kutsatzaileen kontzentrazioek hartzen duten gainazal eta sakonera osora iritsiko da karakterizazio gehigarria. Horrek berekin dakar hondeaketaren ondoren lurzoruaren gainazaletan (gelditzen den lurzoria) sortzen diren kutsatzaile kontzentrazioak balio horiek baino txikiagoak izatea. Hondakin arriskutsuak daudela-eta hondeaketa egin behar den kasuetan, hondeaketaren bidez bermatuko da geratzen den materialak ez dituela arriskugarritasun irizpideak beteko, eta, gainera, gizakien osasunerako eta ingurumenerako arrisku onartezinik ez duela ekarriko. // Eraikuntza proiektuei lotutako hondeaketetan, karakterizazio gehigarriak hondeatu beharreko materialen laginketa eta karakterizazioa egingo du, baldin eta haien kutsatzaile kontzentrazioek A-EBA edo 50 mg/kg-ko TPHa gainditu badituzte. Horrek esan nahi du lurzoruaren kalitatea aldeztu aurretik ezagutu behar dela, hau da, lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketa bat eduki behar dela, bereziki A-EBA betetzen dela eta TPHetarako 50 mg/kg-ko balioa betetzen dela frogatzeko. // Kasu bietan, edo lurzoria kutsa dezakeen jardueraren bat hartu izan duen edo hartzen duen kokaleku batean hondeatu beharreko bolumen bat karakterizatzea dakarren beste edozein kasutan, maila bereizgarri guztietako lagin adierazgarriak hartuko dira, saneamendu proiektuak edo eraikuntza proiektuak markatzen duen sakoneraraino, "erabaki unitate" izeneko bolumenetan. Erabaki unitatea honela defini daiteke: lurzoru edo betelan maila bereko material bolumena (gainazalean sare bat eta haren sakonerak egitetik datorrena), ezaugarri homogeenak dituen. Haren gainean, karakterizazioan edo ezaugarrietan oinarrituta, xede jakin bat defini daiteke, tratatzeko, kudeatzeko edo berrerabiltzeko. Oro har, erabaki unitateen bolumena zehazteko, 1. taulako irizpideak erabiliko dira. Hala ere, kontuan izan behar da, kokalekuaren ezaugarrien, hondeatu beharreko azken bolumenaren eta izaera, jatorri, maila eta abarreko materialak nahasteko debekuen arabera, litekeena dela hemen ezarritakoak baino bolumen txikiagoak dituzten erabaki unitateen kasua gertatzea.*

Hondeaketa bolumena (m <sup>3</sup> )	Erabaki unitatearen bolumena (m <sup>3</sup> )
0 < B ≤ 1.000	100
1.000 < B ≤ 5.000	250
5.000 < B ≤ 10.000	350
B > 10.000	500

*Irizpide horiekiko edozein desbideratze behar bezala justifikatu eta balidatu beharko du ingurumen organoak. Erabaki unitate horiek, beraz, ez dute gaindituko 500 m<sup>3</sup>-ko bolumena, bolumen handiagoen homogeenotasuna modu frogagarrian justifikatu daitekeenean eta ingurumen organoak oniritzia ematen duenean izan ezik.*

- Erabaki unitateen laginketa eta karakterizazio kanpainak bi estrategiaren arabera garatu ahal izango dira: in situ laginketa, hondeaketak egin aurretik karakterizatzeke, eta materiala hondeatu ondoren laginketa pilaketetan egitea. Karakterizaziorako aukerarik onenak bi estrategiak konbinatzen ditu, in situ laginketa eta pilaketetako;*



izan ere, aukera ematen du hondeaketa selektiboa egiteko, behar besteko datuetan oinarrituta, pilaketen gainean hartutako lagin konposatu eta mistoen adierazgarritasuna hobetuz.

- *Praktika orokor gisa, hondeatu beharreko materialen karakterizazio xehatua in situ egingo da, ahal dela hondeaketa selektiboko plana egin aurretik, materialen bereizketa naturari, kutsaduraren banaketari eta abarri buruzko datu nahikoetatik abiatuta egin dadin. Planean argi eta garbi justifikatuta geratu beharko duten arrazoiak direla-eta modu horretan jardun ezin bada, hondeaketa planak erabili beharreko metodologia alternatiboaren deskribapena jasoko du, ingurumen organoak hondeaketa baimentzeko esparruan baloratu ahal izan dezan.*
- *Sarearen tamaina, bestalde, aurretik dauden datuen kopurura, hondeatu beharreko materialaren homogeneotasunera eta hondeaketaren bolumen eta sakonerara egokitu beharko da, besteak beste. Hura diseinatzeko, esplorazio ikerketa egin ondoren, material moten banaketa zehazteko beharrezkoak diren profil eta korrelazio guztiak egingo dira, eskuragarri dauden datuek ahalbidetzen duten zehaztasun handienarekin. Horretarako, ikerketa horretan egindako laginketa puntuetako zutabeetan identifikatutako materialen deskribapen zehatza egingo da lehenik.*
- *Karakterizazio kanpainaren diseinuak, oro har, kontzentrazioek hondeaketaren xede balioak gainditzen dituzten azalera osoaren gaineko laginketa sare bati erantzungo dio, edo, eraikuntza proiektuen kasuan, aurreikusitako hondeaketa azalera osoan, zeina gune berezietan doitu ahal izango baita, eskuragarri dagoen aurretiazko informazioaren arabera. Era berean, karakterizazioan lortu beharreko sakonerak helburu balioen edo proiektuaren sakoneraren irizpide berberak erabiliko ditu. Laginak hartzeko metodoa lortu beharreko sakoneraren arabera hautatuko da. Gainazaleko hondeaketetan, nahikoa izan daiteke eskuzko zundaketak, zundaketa arinak edo laginketak egitea. Hondeaketa sakonagoak egiteko, zundaketa mekanikoak egin beharko dira, edo azaleko karakterizazio kanpainak planifikatu, hondeaketak sakoneran aurrera egin ahala.*
- *Zabortege baimenduan egindako kanpo tratamendua edo kudeaketa helburu duten erabaki unitateak lagin konposatuen bidez karakterizatuko dira. Kokalekua berrerabili nahi bada, xede hori duten erabaki unitateen karakterizazioa lagin sinpleen bidez egingo da, baldin eta berrerabilera hori bermatzen duen ikerketa oso bat badago. Bestela, lagin konposatuei eta sinpleei buruzko informazioa erabiliko da. Kasu guztietan, laginak, erabaki unitateak bezala, antzeko ezaugarriak dituzten materialei dagozkionak izango dira, kudeaketa selektiboa izan dadin, eta hori ere aurretiazko ikerketen datuen arabera definituko da.*

— **Pilaketetako laginketaren** kasuan, in situ laginketan bezala, ez da onartuko 500 m<sup>3</sup> baino bolumen handiagoko erabaki unitaterik, laginketako materialaren homogeneotasunean oinarrituta behar bezala justifikatutako eta ingurumen organoak onartutako kasuetan izan ezik. Erabaki unitateen bolumena 1. taulan ezarritakoaren arabera definituko da.



- *Material homogeenaren pilaketa baten lagin adierazgarri bakoitzak gutxienez pilaketaren bolumen osotik lortutako 10 azpilagin izango ditu.*
- *Pilaketaren barruko laginketa puntuen banaketari dagokionez, sistema erregularrak edo ausazkoak planteatu daitezke, sakoneran zein gainazalean, baldin eta laginen adierazgarritasuna bermatzen bada. Pilaketen laginek ahalik eta adierazgarritasun handiena izan dezaten –oinarri iragazgaitza izan beharko dute eta meteorologiatik babestuta egon beharko dute–, laginak hartuko dira pilaketaren barruko hainbat sakoneratan, eta lagin adierazgarriak biltzeko, gutxienez 30 cm-ko sakonera hartuko da kontuan. Laginak landan bertan homogeneizatu ahal izango dira, baina ez dira bahetuko konposatu lurrunkorrik ez galtzeko. Helburu horrekin berarekin, eta, betiere, horrelako substantzien presentzia susmatzen denean, ahalik eta lagin gutxien egongo da airearen eraginpean.*
- *Ezaugarri homogeenak dituzten pilaketak bereizten laguntzeko, erabilgarria izango da intereseko kutsatzaileentzako neurketa ekipoak izatea landan bertan. Kanpoko destinoa duten erabaki unitateen karakterizazioa 1. taulan ezarritako irizpidearen arabera egingo da. Erabaki unitate horiek berrerabiltzeko, lagin adierazgarri konposatuen zein sinpleen bidez lortutako informazioa beharko da, eta azken horiek aurretiazko ikerketa baten ondorio izango dira.*

### **Programa analitikoa.**

*Berrerabilpena kokalekuan bertan egin nahi bada, informazio nahikoa eduki beharko da, edozein ikerketa fasetan kokalekuan detektatutako kutsatzaile guztien kontzentrazioak dagokion B-EBAren azpitik daudela bermatzeko. Hidrokarburoen presentzia detektatu bada, petrolioaren guztizko hidrokarburoak karakterizatuko dira, eta 50 mg/kg-ko balioa gaindituz gero, lagin horien banakapen analitikoa egingo da “Technical evaluation of the intervention values for soil/sediment and groundwater. Human and ecotoxicological risk assessment and derivation (RIVM, 711701023, 2001)” dokumentuan aintzat hartutako frakzio aromatiko eta alifatikoetan. Aldez aurreko ikerketarik ez badago, lagin bakoitzerako egin beharreko analitika osoa izango da, hau da, lagin bakoitzaren gainean aztertuko dira B-EBA duten kutsatzaile guztiak, TPHez gain, jadanik aipatu den irizpidearekin, bai eta eskura dagoen informazioaren arabera susma daitezkeen beste konposatu guztiak ere.*

*Erabaki unitateen helburua baimendutako hondakindegian desagerraraztea bada, lagin konposatuei indarrean dagoen araudi sektorialaren arabera eska daitezkeen analitika egingo zaie, baita destinoko hondakindegia bere baimenaren baldintzen arabera eskatzen duena ere.*

*Hondakin arriskutsuak desagerrarazteko egiten diren hondeaketetan, kontuan hartu beharko da arriskugarritasuna substantzien guztizko edukiaren arabera izan daitekeela. Hori dela eta, destinoko hondakindegia mota zehazteko aukera ematen duen analitikaz gain (otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritakoaren arabera), analitika bereziak egin beharko dira erabaki unitatearen arriskugarritasunari buruz erabakitzeko (Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 (EB) Erregelamenduaren arabera). Destinoko kudeatzaileari analisi horien guztien berri eman beharko zaio.*



Hondeatu beharreko materialak tratamendura bideratzen badira, analitikak saneamenduaren xede diren kutsatzaileen kontzentrazioa kuantifikatzera ez ezik, aurreikusitako erremediatze prozesurako funtsezkoak diren parametroen karakterizazioa ere bideratu beharko dira.

### **Hondakindegia baimenduan berrerabiltzeko eta ezabatzeko irizpide orokorrak.**

Hondeatu beharreko materialek beren kudeaketarako bete behar dituzten irizpide orokorrak, betiere ingurumen organoari jakinarazita eta karakterizazioen emaitzek ahalbidetzen badute, honako hauek dira:

- Kutsatzaileen kontzentrazioek ezarritako erabilerrako B-EBA gainditzen badute, hondeatutako lurzorua hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda desagerraraztea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina ordeztzen duen eta zenbait zuzentaru indargabetzen dituen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 (EB) erregelamenduaren arabera kudeatu beharko dira.
- **(Indargabetua).**
- Lurzoru naturala bada eta frogatzen bada substantzia kutsatzaile batek ere ez dituela edukien A-EBA eta TPHrako 50 mg/kg-ko balioa gainditzen, hondeatutako materiala kokalekuan bertan berrerabili ahal izango da, edo, hala badagokio, baimendutako betelan batean edo sortu zirenez bestelako betelanetan eta obretan kudeatu, urriaren 10eko Nekazaritza, Arrantza eta Ingurumen Ministerioaren 1007/2017 Aginduan xedatutakoaren arabera.
- Substratu harritsu sana erabilera murrizketarik gabe kudeatu ahal izango da. Lurzoru naturalarekin pareka daitekeen substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, bete beharreko irizpidea aurreko paragrafoetan ezarritakoa izango da.
- TPHen kasuan, berrerabili nahi den material hondeatuak 500 mg/kg-tik beherako kontzentrazioak izan beharko ditu, eta Herbehereetako RIVMek (RIVM report 711701023; Technical evaluation of the Intervention Values for Soil/sediment and Groundwater. Human and ecotoxicological risk assessment and derivation of risk limits for soil, aquatic sediment and groundwater (February 2001) argitaratua duenez, giza osasunerako arrisku larriko balioetatik beherakoak, TPHaren oinarritzko frakzio bakoitzerako, laginen frakzioetan lortutako kontzentrazioekin zuzenean alderatuta. Aurrekoa gorabehera, kokaleku bati aplikatu dakioken B-EBA "beste erabilera batzuk" direnean, kokaleku horretako edozein erabaki unitate TPHaren edukirako berrerabiltze irizpidea 50 mg/kg-ko balioa ez gainditzea izango da.

**Substantzia kutsatzaile batek ere ez badu gainditzen erabilera desberdinetarako zehaztutako B ebaluazioko balio adierazle murriztaileena (B-EBA), ezta petrolioaren guztizko hidrokarburoetarako (TPH) 500 eta RIVM mg/kg-ko balioa ere, hondeatutako materiala kokalekuan bertan berrerabili ahal izango da, inolako mugarik gabe.**

**Kutsatzaileen kontzentrazioak ebaluazio balio adierazle (B-EBA) murriztaileenen eta kokalekurako aurreikusitako erabilerei aplikagarri zaizkien ebaluazio balio adierazleen**



**(B-EBA) artean badaude, lurrak eta harriak betegarri gisa berrerabili ahal izango dira obran bertan, betiere jatorrizko partzelaren barruan, balorizatu beharreko materialaren antzeko lurzoruaren kalitatearen aldaketa bat detektatu den guneetan.**

### **Lurzatiaren azken egokitzapena.**

Lurzoruaren azken egoera, hondeaketa egin ondoren, geratzen den lurzoruaren kalitatearen laginketaren bidez ikertzea beharrezkoa bada, ezin izango dira hondeaketak sortutako hutsuneak bete, harik eta ingurumen organoak jakin arte haren emaitzak bat datozela hondeaketaren helburu balioekin, eta emaitza horien inguruko jarrera hartu arte. Ingurumen organoak berdin jokatu du zimenduak, egitura, hormak, lauzak, zapatak, zolatak eta abar eraikitzeke. Horregatik, hondeaketa planak aurreikusi egin beharko ditu ezponden egonkortasunari dagokionez sor daitezkeen arazoak, laginak hartu, laborategiak erantzuna eman eta ingurumen organoari jakinarazi bitartean.

Ingurumen organoak hondeaketa gunearen azken egokitzapena baimendu ahal izango du hondeaketa planaren barruan. Horretarako, betelanean erabili beharreko materialen jatorria, eta, hala badagokio, kalitatea dokumentatu beharko dira.

### **Hondeaketan ingurumena gainbegiratzeko eta ingurumena zaintzeko plana.**

Hondeaketan ingurumena gainbegiratzeko lanak ingurumen organo adituak onartutako hondeaketa plana betetzeko eta betearazteko lurzoru kutsatuen arloan akreditatutako teknikariek egiten dituzte, hondeaketak aurrera egin ahala. Plan hori, hala badagokio, gertatzen diren egoeretara egokitzen saiatzen dira.

Hala, gainbegiratzeak erabaki unitate bakoitzaren hondeaketa lanen kontrola bermatuko du, azken kudeaketa egokia izan dadin. Horrez gain, hala badagokio, azken kudeaketaren aurretik pilaketa homogeenak eratzea bermatuko du. Gainera, arreta berezia jarriko du aurretiazko ikerketan identifikatu gabeko kutsatzaileak, hondakinak, egiturak, biltegiak eta abar detektatzeko eta ikerketa horretan kuantifikatutakoak nabarmen gainditu ditzaketen kutsatzaileen kontzentrazioak detektatzeko.

Detektagailuak eta landa ekipoak (fotoionizazio detektagailuak, fluoreszentsia detektagailuak, saiakuntza kolorimetrikoak, etab.) erabiliz gero, errazagoa da gainbegiratze lanak egitea, baldin eta datu azkarrak ematen badituzte hondeatutako materiala erabaki unitate homogeenetan bereizten laguntzeko. Metodo horiek kokalekuan egon daitezkeen kutsatzaileen arabera hautatu beharko dira, eta, horregatik, hondeaketaren ardura duten teknikariek aurretiazko ikerketetatik lortutako datuen berri zehatza izan beharko dute.



*Ingurumen organoak, normalean, hondeaketan etengabeko gainbegiratzeak egiteko beharra ezarriko du, eta, beraz, hondeaketa planak hala jaso beharko du. Hondeaketa faseetan hondeaketarekin eta materialen kudeaketarekin zerikusirik ez duten lan osagarriak egiten ari badira, litekeena da etengabeko gainbegiratzea beharrezkoa ez izatea, baina hori behar bezala justifikatu beharko da.*

*Hondeaketan ingurumena gainbegiratzeko lanek, besteak beste, honako hauek jasoko dituzte:*

- Hondeaketa planean jasotako zereginak eta ingurumen organoaren baimenaren ondoriozko eskakizunak betetzen direla zaintzea.*
- Hondeatzeko, kargatzeko, garraiatzeko, pilatzeko, berrerabiltzeko eta abarreko lanak gainbegiratzea eta hondeaketako betelanak egitea, beharrezkoa bada, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren ebazpena eman aurretik.*
- Hondeaketako ura edo hondeaketan sortutako lurzoruaz bestelako hondakinak (eraispeneko hondakinak, hodiak, etab.) kudeatzeko lanak gainbegiratzea.*
- Ingurumen organoak ingurumena zaintzeko onartutako edo eskatutako neurriak gainbegiratzea.*
- Lurzoruen hondeaketa lanekin lotutako segurtasun eta osasun neurriak betetzen direla zaintzea, Segurtasun eta Osasun Koordinazioarekin lankidetzan.*
- Geratzen den lurzoruaren kalitatea karakterizatzeko lanak gauzatzea edo gainbegiratzea.*
- Sortutako dokumentazioa erregistratzea.*
- Hondeatutako lurzoruen eguneroko parteak eta erregistroak egitea.*
- Aldizkako txostenak egitea, hala badagokio, eta hondeaketa amaitzea.*

*Hondeaketan ingurumena gainbegiratzeaz arduratzen diren teknikariek beharrezko autoritatea izan beharko dute, hala badagokio, hondeaketa lanak geldiarazteko, hala eskatzen duten egoeretan (aurrez identifikatu gabeko kutsatzaileak, metakinak eta abar detektatzea, edo kutsatzaileen kontzentrazioak aurrez kuantifikatutakoak baino nabarmen handiagoak direla detektatzea, adibidez). Zirkunstantzia berri horiek berehala jakinarazi beharko zaizkio ingurumen organoari hondeaketaren sustatzaile den pertsona fisiko edo juridikoaren bidez, edo, halakorik ezean, hondeaketan ingurumena gainbegiratzeaz arduratzen den eta lurzoru kutsatuetan aditua den pertsonaren bidez, hondeaketa planean proposatutako destinoen indarraldia justifikatuz edo, bestela, kutsatzaile berriekin, detektatutako kontzentrazioekin eta abarrekin bat datozen bestelako destinoak proposatuz. Kasu horietan, adierazitako zirkunstantziak izan dituzten materialak ebakatu aurretik balidatuko du ingurumen organoak proposatutako kudeaketa bidea.*

*Hondeaketa selektiboko planaren barruan sartzen den ingurumen zaintzako planaren helburua hondeaketa lanek eragin ditzaketen inguruneek ingurumenaren kalitatean izan dezaketen eragina kontrolatzea da, hala badagokio, dagozkion babes neurriak ezartzeko.*



*Ingurumena zaintzeko planean jasoko dira, alde batetik, hondeaketaren aurretik, bitartean eta ondoren eragindako ingurune posibleetan egin beharreko neurketak (hondeaketaren magnitudearekiko eta ingurunearen sentikortasunarekiko proportzionala den irismenarekin), eta, bestetik, lanek ingurune horien kalitatean izan dezaketen eragina kontrolatzeko neurri zuzentzaileak. Gainera, egindako jarduketan eta egindako neurketetan lortutako emaitzen berri ingurumen organoari zein aldizkakotasunez eman proposatuko da.*

*Inpaktuak askotarikoak izan daitezke (hautsa, lurrinak, zaratak, kutsatzaileak lurpeko uretara birmobilizatzea, etab.). Funtsean, lurpeko eta azaleko urak eta atmosfera babesteari buruzko alderdiak jorratuko dira, eta, oinarrizko datu horien arabera, monitorizazio programa bat ezarriko da, arrisku potentzialak murrizteko.*

*Lurzoruaren eta uren kalitateari dagokionez, kutsatutako lurzoruak ikertzeko eta berreskuratzeko arloan akreditatutako erakundeek egin beharko dituzte ingurumena zaintzeko lanak. Bestalde, kontrol atmosferikoak (airearen kalitatea, zaratak) ingurumen ikuskaritzako erakunde batek egin beharko ditu, eta erakunde hori UNE EN ISO/IEC 17020 arauaren arabera akreditatuta egongo da.*

### **Lurpeko uraren kontrola.**

*Lurpeko ura, airearekin batera, ingurune kalteberenetako bat da hondeaketari lotutako kutsatzaileen balizko edozein birmobilizazioaren aurrean. Hondeaketak ingurune horren kalitatean eragina izango duela aurreikusten den lekuetan edo eragina jadanik detektatu den lekuetan, lurrak mugitzeko lanek izan dezaketen inpaktua dela-eta, baliteke laginak hartu behar izatea hondeaketa gunetik ibaian gora eta ibaian behera kokatutako kontrol piezometroetan. Laginketa hori hondeaketa lanen aurretik, bitartean eta ondoren egingo da, lurpeko uraren kalitatearen bilakaera zehaztu ahal izateko aldizkakotasunez.*

*Lurpeko uretan karakterizatu beharreko kutsatzaileak, gutxienez, lurpeko uretan, eta, hala badagokio, lurzuruan identifikatutakoak izango dira, baita erabaki unitateetan kualifikatutakoak ere, baldin eta ingurumen organoak hondeaketa egiteko baimena ematen duen ebazpenean eskatu baditu.*

*Emaitzak ebaluatzeko, kontuan hartuko dira kontzentrazioen espazio eta denbora bilakaera, hondeaketa planean kontuan hartu diren erreferentzia balio aplikagarriei eta ingurumen organoak eskatutakoei dagokienez, arriskuen analisiarekin lotutako balioak barne, hala badagokio. Lurpeko uren kalitate kimikoa hondatu egin dela eta hori hondeaketarekin lotuta dagoela ikusten bada, egokitzat jotzen diren neurri eusle eta zuzentzaileak ezarri beharko dira, esaterako, langunetik ibaian behera hesi hidraulikoak jartzea.*

*Lurpeko uraren kalitatearen gaineko kontrola beharrezkoa izan daiteke hondeaketa amaitu ondoren ere, bereziki saneamendu proiektu baten esparruan planteatu bada.*



*Kontrol horien aldizkakotasuna eta epea hondeaketa planean edo hondeaketaren azken txostenean jasoko dira, eta ingurumen organoak balidatuko ditu.*

### **Gainazaleko uren eta isurketen kontrola.**

*Hondeaketa gainazaleko ur ibilgu baten inguruan egiten bada, laginak hartuko dira jarduketaren xede den lurzatia ibaian gora eta ibaian behera hondeatu aurretik eta hondeatu bitartean, urren kalitatean izan dezakeen eragina baloratzeko, eta, hala badagokio, eragina minimizatzeko beharrezko neurriak ezartzeko.*

*Ponpatzen diren hondeaketa hutsuneko urren laginak isurketa puntuetan hartuko dira. Isurketa hori egiteko, erakunde eskudunaren alde aurreko baimena eduki beharko da, eta ingurumen organoaren aurrean baimen hori eskuragarri dagoela egiaztatu beharko da. Laginketa, isurketa erregimenera eta puntu hartzaileko emari zirkulatzailerara egokitu beharko da. Kontrolatu beharreko kutsatzaileak, gutxienez, lurpeko urren segimenduan aintzat hartutakoak izango dira, urren arloan eskumena duen erakundeak berariaz eskatutakoez gain. Erakunde horrek alde aurreko tratamenduak ezartzea eta abar erabaki ahal izango du. Erakunde eskudunaren baimenik egon ezean, baimendutako kudeatzaile batekin kudeatu beharko da ponpatutako ura.*

### **Kontrol atmosferikoa.**

*Laginketa atmosferikoa bereziki interesgarria da jendea bizi den inguruneetatik gertu edo ingurune sentikorretan egiten diren lur mugimenduetan. Halakoetan, erabaki unitateetan kutsatzaileak detektatzen dira, eta kutsatzaile horietan, hondeaketaren unean gasak eta hautsa mugitzea arazo izan daiteke hurbileko hartzaileentzat, inhalazioa dela eta.*

*Hondeatu aurretik (guneko zuria) eta hondeatu bitartean egin ohi dira. Laginketa puntuek ahalik eta adierazgarritasun handiena bermatu beharko dute kokalekuaren barruan, eta hondeaketa guneen eta emisio horien hartzaile potentzialen arteko tarteko sektoreetan kokatuko dira, bereziki haize nagusiaren norabidean.*

*Arau orokor gisa, immisio laginketa jarraituak egingo dira 24 orduan, eta matrizeetan 10 µm arteko partikulak (PM10) eta gasak kontrolatuko dira, ikerketan detektatutako kutsatzaile nagusiak kontrolatzeko. Immisio atmosferikoan kontrolatu beharreko kutsatzaile bakoitzerako muga balio bat ezarri beharko da. Balio hori, kasuaren edo kutsatzailearen arabera, airearen kalitateari buruzko araudiak, arriskuen analisi batetik eratorritako balioek eta abarrek ezarritakoa izango da.*

*Era berean, hondeaketa planean ezarriko dira neurketa aldiak, ingurumen organoaren txostenen aldizkakotasuna, eta abar.*

*Kutsatzailearen baten kontzentrazioa balio onargarrien gainetik dabilela detektatuz gero, berehala murrizteko neurriak ezarri beharko dira, detektatutako arazoaren arabera modu*



*batekoak edo bestekoak izan daitezkeenak: lurra hezetzea, eguraldiaren araberako geldialdiak programatzea, hutsuneak/pilaketak estaltzea, etab.*

### ***Emitzen berri ematea.***

*Ingurumena zaintzeko programa hondeaketa planean sartuko da neurri zuzentzaileen proposamen batekin batera, kontroletan ingurumenaren ikuspegitik onargarria ez den egoeraren bat egiaztatuz gero. Hondeaketa planean bertan halako egoerarik ez gertatzeko prebentzio neurriak aurreikusita ere, ezin da baztertu kontingentzia plan bat ezartzeko beharra zirkunstantzia bereziek garrantzi bereziko arriskuak ekar ditzaketen kasuetan, hala nola hondeatutako materiala irristatzea, uholde uren ondorioz kutsatzaileak herrestan eramatea..."*

*Hondeaketan hartutako ingurumen neurriak balio onargarrien mailaren barruan kokatu badira, kanpaina guztien emitzen berri emango da hondeaketaren azken laburpen txostenean.*

*Hondeaketa selektiboko plana diseinatzeko eta gauzatzeko erantzukizunak.*

*Hondeaketa selektiboko planak erakunde akreditatuek diseinatu eta gauzatuko dituzte, lurzorua ikertu eta berreskuratzeko, ezarritako akreditazio sistemaren arabera. Halaber, erakunde horiek gainbegiratuak dute planen betearazpena. Hasiara batean, eta 199/2006 Dekretua, akreditazioari dagokionez, eguneratzen ez den bitartean, hondeaketa plana egiteko eta azken txostena idazteko, erakundeak akreditatuta egon beharko du dekretu honen 3. 1.a) artikuluan aurreikusitako jardueretarako. Gainbegiratzeko, artikuluko horren 1.c) atalean ezarritakoa akreditatu beharko da.*

*Era berean, jarduera akreditatzen duen azken txostena erakunde akreditatu batek idatzi eta sinatu beharko du, honako kasu hauetan:*

- Hondeaketa lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren prozedura hasteko kasuetako bati lotuta egiten denean, hondeatutako bolumena edozein dela ere.*
- **Salbuespenen kasuan, hondeatutako bolumena 100 m<sup>3</sup> baino handiagoa denean edo, hondeaketa bolumena edozein dela ere, hondeatutako material guztia edo haren zati bat sortu zen obra ez den beste obra batean berrerrabiltzeko baliatzen denean.***

*Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2 artikulua betez, hondeaketan ingurumena gainbegiratzeko ardura duen erakunde akreditatuak berehala jakinaraziko dizkie dagokion udalari eta ingurumen organoari segurtasunari edo inguruneak jasan dezakeen eraginari buruzko gaiak, baldin eta kutsadura zantzurik detektatzen bada edo lanak behar bezala egitea arriskuan jartzen duten zirkunstantziak agertzen badira.*

*Hondeatutako edo hondeatu beharreko materialen karakterizazioak kutsadura zantzuak ematen baditu, ingurumen organoak lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren prozedura hasteko eskatu ahal izango du, horretarako arrazoitutako ebazpen baten*



*bidez. Hondeaketak lur azaleko edo lurpeko ur kontinentalei eragiten badie, arlo horretan eskumena duten administrazioen baimenen mende egongo da jarduketa.*

*Azkenik, hondeaketatik datozen urak saneamendu sareetara isurtzen badira, dagokion baimena tramitatu beharko da ur horiek kudeatzeaz arduratzen diren udal edo eskualdeko erakundeekin.*

### **Hondeaketa selektiboko planaren edukia**

*Hondeaketa selektiboko planak hondeatu beharreko materialen karakterizaziorako eta hondeaketa gauzatzeko aurreikusitako ekintzen diseinu xehatua jaso beharko du, lanen segimendua eta ingurumen kontrola bermatuz eta hondeatutako materialak, lurpeko ura eta abar behar bezala berrerabili, kudeatu edo tratatuko direla egiaztatuz. Horretarako, hondeaketaren eraginpeko kokalekuari eta lurzoru mailei buruz lortutako informazio guztia, lurzoruaren eta lurpeko uraren kalitatean izango den eragina, eta, hala badagokio, eraikuntza proiektuari edo erremediatze planari eta haren helburu eta eskakizun gehigarriei (estaldurak, betelanak eta abar) buruzko informazioa hartuko ditu kontuan.*

*Hondeaketa selektiboko planak gai hauek jorratuko ditu, gutxienez, ingurumen organoari eman beharreko txostenean:*

- Hondeaketa eremuaren deskribapen eta mugaketa xehatua.*
- Hondeaketaren beharraren justifikazioa, lanak lurzoruaren saneamenduaren, eraikuntza beharren edo bien konbinazioaren ondorio diren zehaztuz.*
- Aurrez egindako ikerketaren laburpena, lurzorueta eta uretan (edo beste ingurune batzuetan) lortutako emaitzak eta ezarritako erreferentzia balioak alderatuta.*
- Hondeatu beharreko lurzoruaren kokapena (horizontalean eta bertikalean) eta bolumena, karakterizazioaren eta destinoaren arabera sailkatuta.*
- Erabaki unitateak, bolumena, materialaren ezaugarriak, emaitzak eta abar ezartzea. Erabaki unitate bakoitzerako laginketa plana deskribatzea. Laginketa in situ edo pilaketetan egingo den zehaztea.*
- Hondeaketa metodologiaren eta ondorengo kudeaketaren deskribapena, eta, hala badagokio, pilaketarako eremuena (azalera, iragazgaizteen xehetasuna, planoko kokapena, etab.).*
- Erabaki unitate bakoitzerako hautatutako destinoen identifikazioa, eta, hala badagokio, hondeaketa azaleratu daitekeen uraren kudeaketa.*
- Obraren ingurumen zuzendaritzak/laguntzak egin beharreko lanen deskribapena eta hondeaketaren gainbegiratzea denboran zehar (hondeaketaren etengabeko gainbegiratzea den edo hondeaketa erritmoen araberako beste irizpide batzuk ezartzen diren, etab.), lurzoruaren amaierako egoera gainbegiratzea eta ikertzea (geratzen den lurzoruaren kalitatea egiaztatzeko erabiliko den protokoloaren xehetasuna barne); baita erakunde akreditatuaren eta talde tekniko gainbegiratzailaren proposamen bat ere.*
- Hondeaketaren ingurumen kontrolerako eta segimendurako neurriak (lurpeko uraren kalitatearen segimendua, inguruneko airearen kalitatearen segimendua, etab.).*

- Lurzatiaren azken egokitzapenerako erabiliko diren materialen jatorria eta ezaugarriak identifikatzea, hala badagokio.
- Egiatzapen zerrenda (PCL), aplikatzekoak diren laukitxo guztietan osatua.
- Planoak. Hondeaketa planak informazioa erantsi beharko du plano(et)an, eskala grafiko eta orientatuarekin (kasuaren arabera, ikertutako azalera, inbentariatutako azalera, hondeatu beharreko azalera, eta, hala badagokio, erregistroko lursailak/ek identifikatzen dituen/dituzten azalera/k, hondeatutako materiala berrerabili nahi den lurzatiaren azalera, etab. gainjarriz eta zalantzarik gabe erakutsiz). Lekuaren kokapen mapa erantsi beharko da. Eraikuntza proiektu bat, erabilera desberdinak eta abar egonez gero, informazio hori planoan sartu beharko da.
- Eranskinak.

**Lur eta harri guztiak edo horien zati bat berrerabiltzeko badira, hondeaketa selektiboko planak informazio hau jasoko du gutxienez:**

- Lurrak eta harriak berrerabiliko diren lekuaren jabearen identifikazioa.
- Destinoko lekuaren kokapena. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioan sartutako kokaleku batez ari bagara, GEOIKER kodea eta lurzoruen kalitateari buruzko ikerketa barne hartzen duen espedientearen kodea.
- Obraren proiektuaren arabera berrerabiltzea aurreikusten den lur eta harri kantitatearen kalkulua.
- Berrerabili beharreko materialak horizontalean eta bertikalean kokatzea, eta karakterizazioaren emaitzak.
- Aplikagarria bada, erabilera xehatuen identifikazioa eta destinoko kokalekuan berrerabilpena gertatuko den guneetako lurzoruen karakterizazioaren emaitzak.
- Aplikagarria bada, balorizatzeko lekuan lurzoru estaltzeko neurriak.
- Hala balegokio, aldi baterako biltegiatzearen aurreikuspena.
- Lurzoru bankua, onarpen agiriarekin.

### **Hondeaketa selektiboko plana gauzatu osteko azken txostenaren edukia.**

Hondeaketa amaitu ondoren, horretarako kontratatutako erakunde akreditatuak txosten bat egingo du, lanean izandako datu eta gorabehera guztiak jasoko dituena. Txosten hori Ingurumen Sailburuordetzari aurkeztuko zaio, azter dezan.

Azken txostenean, gutxienez, honako alderdi hauek jorratuko dira:

- Ingurumen organoak onartutako hondeaketa plana betez egindako lanen deskribapen xehatua.
- Hondeatutako material motak biltzen dituzten datuak (hondeatutako material mota bakoitzaren guztizko bolumena, erabaki unitateak, karakterizazioak eta destinoak).
- Hala badagokio, hondeaketa lanetan egindako karakterizazio kanpainen emaitzak.
- Hondeaketa planean jasotako aurreikuspenak eta proiektua gauzatzearen ondoriozko materialak alderatu ahal izateko taula.
- Betelaneko materialen jatorriaren ziurtagiria, kanpoko materialak ekarri behar izan badira.



- Lurzoruaren kalitateari, eta, hala badagokio, geratzen den urari buruzko informazioa, kontuan hartutako erreferentzia balioekin bat datorrela justifikatuz (aplikatu beharreko EBA edo arriskuen analitik eratorritako xede kontzentrazioak).
- Ingurumena zaintzeko planaren emaitzak.
- Proiektua gauzatzean gertatutako intzidenteen edo bestelako gertaera garrantzitsuen deskribapena, ebazteko hartutako ekintzekin batera.
- Eranskinak:
  - Hondeatutako gunea(k) orokorrean eta eskala egokian mugatzen dituzten planoak.
  - Hondeaketako planoak eta profilak, non argi eta garbi mugatzen diren bai hondeaketa eta betelan eremuak bai hondeatutako materiala berrerabili den eremuak, bertan izandako eragina adierazita.
  - Hasierako karakterizazio laginen eta geratzen den lurzuaren kokapenaren mugaketa grafikoa.
  - Hondeaketa faseen argazki erreportajea, egoera xehatuak eta ikuspegi orokorrak ikusteko aukera emango duena, hondeaketa egiteko beharrezko instalazioak, hondeaketa prozesua, erabaki unitateen ezaugarriak eta lurzuaren azken egoera barne.
  - Hondeaketaren ingurumen segimenduaren fitxak.
  - Kutsatutako lurzoruaren eta lurpeko uren tratamenduaren aurrerapen fitxak, hala badagokio.
  - Jatorrizko buletin analitikoak.
  - Hondeatutako materialen destinoetan egindako kontrol eta segimendu dokumentuak eta onarpen edo tratamendu/suntsipen dokumentuak.

Proiektu konplexu edo handien kasuan, ingurumen organoak segimendu txostenak bidaltzeko eska lezake. Txosten horien edukia azaldutakoaren antzekoa izango litzateke, aldi bakoitzean egindako zereginetara egokituta.

**R0511 eragiketa bat egiten bada, eta, beraz, obratik obrarako erabilera zuzena egiten bada, azken txostenaren edukiak, gainera, erabilitako materialaren ingurumen baldintzak eta berrerabilitako materialen erabilera eta kokapena jaso beharko ditu, zentzu horizontalean eta bertikalean, baita horien karakterizazioaren emaitzak ere.**

**Azken xedapenetatik hirugarrena.** Ingurumenaren Arloko Lankidetzaren Erakundeak arautzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Arloko Lankidetzaren Erakundearen Erregistroa sortzen duen urriaren 16ko 212/2012 Dekretua aldatzea, Dekretu honi dagokionez Ingurumenaren Arloko Lankidetzaren Erakundeak eginkizun berriak esleitzeko.

1. **8.bis artikulua** eransten da, eta honela geratzen da idatzita:

«**8.bis artikulua.** Ingurumenaren Arloko Lankidetzaren Erakundearen mendeko beste prozedura batzuk.



xxxxx/2026 Dekretuari dagokionez, zeinaren bidez eraikuntzako eta eraispeneko obretatik datozen hondakinen eta materialen ekoizpena eta kudeaketa arautzen baita eta ondoren erabiltzeko hondakintzat hartzeari noiz uzten zaion zehazteko irizpideak ezartzen baitira, Ingurumenaren Arloko Lankidetzak Erakundeek (ILE, I. maila) hondakinak kudeatzeko azterlanak eta kudeaketaren azken txostenak egiaztatzen dituzte, Dekretu horri lotutako jarraibide teknikoaren Aginduaren arabera».

2. Sustatzailearen eskariz hasitako prozedurei dagokien blokeari 10. atal berria gehitzen zaio, eta 3. atal berria gehitzen zaio ingurumen organo eskudunak eskatuta hasitako prozedurei dagokien blokeari; beraz, honela idatzita geratzen da I. eranskina:



Prozedura eta jardute eremua	Jarduera maila	Ingurumenaren Arloko Lankidetzaren Erakundearen (ILE) gaitasun teknikoaren betekizunak
<b>BESTE PROZEDURA BATZUK</b>		
Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzako eta eraispenerako hondakinei buruzko dekretua		
Hondakinak eta materialak kudeatzeko azterlanak egiteko	I	Langileen artean, proiektuak egiteko eta obrak zuzentzeko gaitzen duen titulazio akademiko eta profesionala eduki eta elkargoko kide den langile bat egotea gutxienez.
Hondakinak eta materialak kudeatzeko azken txostenak egiteko	I	Gutxienez 5 urteko esperientzia jarraitua izatea arlo horretan, hondakinen kudeaketan esperientzia egiaztatua edukita, edo II. eranskinari jarraituz balorazio jarduerak egiten dituzten langileen barne kualifikazioko prozeduraren arabera kualifikatutako langileak.



3. Sustatzailearen eskariz hasitako prozedurei dagokien blokeari 8. atal berria gehitzen zaio, eta 2. atal berria gehitzen zaio ingurumen organo eskudunak eskatuta hasitako prozedurei dagokien blokeari; beraz, honela idatzita geratzen da II. eranskina:



Prozedura eta jardute eremua	Jarduera maila	ILEko langileen barne kualifikaziorako eskakizun orokorrak
BESTE PROZEDURA BATZUK		
8. Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzako eta eraispenerako hondakinei buruzko dekretua		
8.1 Hondakinak eta materialak kudeatzeko azterlanak egiteko.	I	Proiektuak egiteko eta obrak zuzentzeko gaitzen duen titulazio akademikoa, elkargoan inskribatua.
8.1 Hondakinak eta materialak kudeatzeko azken txostenak egiteko	I	Gutxienez 5 urteko esperientzia jarraitua edukitzea arlo horretan, hondakinen kudeaketan esperientzia egiaztatuz. Behatzaile gisa 2 azterlan eta 2 txosten egiten laguntzea.



**Azken xedapenetatik laugarrena.** *Hondakinak hondakindegietan biltegitratuz eta betelanak eginez desagerraraztea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren aldaketa.*

**6. artikulua h) letra** aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«h) Balorizatu daitezkeen hondakinak, hala nola beira, paper kartoia, ontziak, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak, zura, ekipo elektriko eta elektronikoak, eta altzairuaren fabrikaziotik datozen zepak, altzairu herdoilgaitzaren fabrikaziotik datozenak barne. Zerrenda hori erregelamendu bidez luzatuko da, hondakin berriak balorizatzeko baimena duten kudeatzaileak sortzen diren neurrian».

**Azken xedapenetatik bosgarrena.** *Arku elektrikoko labeetan altzairua fabrikatetik sortutako zepa beltzak balorizatzeko jardueri aplikatzekoa zaien araubide juridikoari buruzko 64/2019 Dekretua, apirilaren 9koa, aldatzea.*

1. 6. bis, ter, quater, quinquies eta sexties artikulua gehitzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

**«6. bis artikulua. – Hondakin izateari uzteko irizpideak**

1. *Ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 5.3 artikuluan adierazitakoari kalterik egin gabe, zepa beltzen balorizaziotik eratorritako agregakin birziklatuek, dekretu honetan aurreikusitako erabilertara bideratzen badira, hondakin izateari utziko diote 3. artikuluan arautzen den baimenak honako baldintza hauek betetzen direla egiaztatzen duenean:*
  - a) *Balorizatu beharreko zepak EHZ 100202 kodeko altzairugintzako zepa beltzak baino ez izatea.*
  - b) *Zepak I. eranskineko irizpideen arabera tratatzea.*
  - c) *Balorizazio prozesuaren ondoren lortutako agregakin birziklatuak 7. artikuluan eta II. eranskinean ezarritako erabilera eta baldintzetara bakarrik egotea bideratuta.*
  - d) *Agregakin birziklatuek Europar Batasuneko Zuzenbidearen beste xedapen batzuetan ezarritakoa betetzea, hots: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko apirilaren 11ko 2024/1157 (EB) Erregelamenduaren (hondakinen lekualdatzeei buruzkoa) 29. artikulua eta 61. artikulua (2. eta 3. atalak), 1257/2013 (EB) eta 2020/1056 (EB) Erregelamenduak aldatzen dituenak, eta 1013/2006 (EE) Erregelamendua, substantzia eta nahaste kimikoen arloko legeria eta produktu jakin batzuen merkaturatzeari buruzko legeria indargabetzen dituenak.*
  - e) *Zepak balorizatzen dituen pertsonak, bidalketa bakoitzerako, adostasun adierazpen bat egitea, 6. ter artikuluan aurreikusitakoaren arabera.*
  - f) *Zepak balorizatzen dituen pertsonak 6. quater artikuluan aurreikusitakoaren arabera kudeaketa sistema bat izatea.*
2. *Artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, erakunde akreditatuek diseinatu eta hartuko dituzte laginak, UNE-EN ISO/IEC 17020 arauaren arabera, Egiaztapenerako Erakunde Nazionalak edo Europar Batasuneko edozein*



estatu kidetako beste egiaztapen erakunde batzuek, baldin eta 2008ko uztailaren 9ko 765/2008 (EE) Erregelamenduan aurreikusitako binakako ebaluazio sistema arrakastaz gainditu badute.

*Erakunde akreditatuak independentea izan behar du bai hondakinak sortzen bai hondakinak dauzkan pertsonarekiko, bai eta hondakinak erabiliko diren destinoko obraren edo lehengoratzearen titularraren eta esleipendunaren erakundearekiko ere. Laginak UNE-EN 14899:2007 arauaren arabera hartuko dira: "Hondakinen karakterizazioa. Hondakinen laginak hartzea. Laginketa plan bat prestatzeko eta aplikatzeko eskema", kontuan harturik UNE-EN 932-1:1997 araua: "Agregakinen propietate orokorrak zehazteko saiakuntzak. 1. zatia: laginketa metodoak" eta UNE-CEN/TR 15310 arauaren serieko txosten teknikoak.*

*Hondakinei buruzko saiakuntzak eta analisiak honako hauek egingo dituzte: UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera akreditatutako laborategiek, Egiaztapenerako Erakunde Nazionalak eta Europar Batasuneko edozein estatu kidetako beste egiaztapen erakunde batzuek.*

3. *Hondakinen kudeatzaileek dekretu honetan ezarritako parametro guztien karakterizazio oso bat egin beharko dute urtean behin, eta parametro kritikoak betetzeko probak egin beharko dituzte 2000 tona sortzen diren aldiro.*

*Parametro kritiko horien identifikazioak hondakinaren osaeraren tarte eta aldakortasuna eta propietateak hartuko ditu kontuan, eta atalase jakin bat gainditzen duten parametroetan zehaztu ahal izango da. Atalase hori gainditzen ez bada, Dekretu honen II. eranskinean ezarritako muga balioekiko aldakortasunagatik edo hurbiltasunagatik parametro garrantzitsuenak hartuko dira kontuan.*

#### **«6. ter artikulua. Adostasun adierazpena**

1. *Zepa beltzak balorizatzen dituen pertsonak adostasun adierazpen bat egingo du agregakin birziklatuaren bidalketa bakoitzera, III. eranskineko ereduaren arabera.*
2. *Adostasun adierazpena bidalketaren jabe egingo den hurrengo pertsonari helaraziko zaio.*
3. *Zepa beltzak balorizatuko dituen pertsonak eta hurrengo erabiltzaileek adostasun adierazpenaren kopia bat gordeko dute gutxienez bost urtez, adierazpena ematen den egunetik zenbatzen hasita, eta agintari eskudunen esku jarriko dute hala eskatzen zaienean.*
4. *Adostasun adierazpena edozein bitartekoren bidez egin ahal izango da, paperean edo formatu elektronikoa, baldin eta haren benetakotasuna, edukiaren osotasuna eta irakurgarritasuna bermatzen bada, ematen den egunetik eta kontserbazioaldi osoan.*
5. *Adostasun adierazpena bidalketa bakoitzaren garraioarekin batera joan beharko da. Bidalketa hainbat garraio unitatetan egiten bada, unitate bakoitzak adostasun adierazpenaren kopia bat izan beharko du.*

#### **6. quater artikulua. Kudeaketa sistema**

1. *Zepa beltzak balorizatzen dituen pertsonak kudeaketa sistema ziurtatu bat ezarriko du, 6. bis artikuluan adierazitako irizpideak betetzen direla frogatzeko.*



2. Kudeaketa sistemak prozedura dokumentatu batzuk izango ditu, honako alderdi hauei dagokienez:
  - a) Tratamenduaren xede diren hondakin erabilien onarpena kontrolatzea.
  - b) I. eranskinean deskribatutako prozesua eta tratamendu baldintzak gainbegiratzea.
  - c) II. eranskinean jasotako baldintzak betetzen direla kontrolatzea, birziklatutako agregakin mota bakoitzaren xedearen arabera.
  - d) Erabiltzaileen oharrak baldintzak betetzeari buruz, tratatutako zepa edo agregakin birziklatu mota bakoitzaren destinoaren arabera.
  - e) a) letratik c) letrara bitartean egindako kontrolen emaitzak erregistratzea.
  - f) Kudeaketa sistema berrikustea eta hobetzea.
  - g) Langileen prestakuntza.
  - h) Prozesua instrumentatzeko eta kontrolatzeko berariazko eskakizunak.
3. Kudeaketa sistemak laginketa diseinuaren metodologia eta tratamenduaren ondoriozko agregakin birziklatu etarako lagin hartzea jaso beharko ditu.
4. I. eranskineko 2. atalean aipatutako edozein tratamendu beste hondakin kudeatzaile batek egiten duenean, kudeatzaile horrek artikulua honetan ezarritako baldintzak beteko direla bermatuko duen kudeaketa sistema bat ezarriko duela ziurtatuko du.
5. Zepa beltzak balorizatzen dituen pertsonak kudeaketa sistamarako eta erregistro etarako sarbidea emango die agintari eskudunei, hala eskatzen zaionean.

**«6. quinquies artikulua. Hondakin izateari uztea helburu duten zepa beltzak balorizatzeko jarduerak baimentzea**

1. Zepa beltzak balorizatzeko jarduerak baimentzeko baldintzak, instalazioen eskakizunak eta balorizazioaren oinarriko eragiketak I. eranskinean deskribatutakoak izango dira. Horiez gain, ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo, hala badagokio, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan.
2. Autonomia erkidegoko ingurumen organoak aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, organo horrek dagokion baimena emango du, eta honako hau jasoko du:
  - a) Ekonomia zirkularra xede, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 5.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla.
  - b) Lege horren 5.2 artikuluan eta Dekretu honen 7. artikuluan ezarritako irizpideak betetzen direla.
  - c) Onartutako erabilerak eta baimenaren lurralde eremua, eta, beharrezkoa denean, substantzia kutsatzaileentzako muga balioak finkatuko dira, giza osasunean eta ingurumenean izan ditzakeen inpaktu kaltegarriak kontuan hartuta.
  - d) Hondakin izateari utzi zaiola adieraztea, baldin eta, administrazio baimena jakinarazi ondoren, hondakina kudeatzailearen instalazioetatik erabiltzailearen instalazioetara irteten bada eta bidalketarekin batera adostasun adierazpena joaten bada.



3. *Autonomia Erkidegoko ingurumen organoak, ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 5.3 artikuluan agindutako hondakin izaeraren amaiera deklaratzan duten baimenak eman ondoren, Hondakinen Arloko Koordinazio Batzordeari eta Hondakinen Sorkuntza eta Kudeaketa Erregistroari jakinaraziko zaie. Informazio hori, gainera, jendaurrean jarriko da ingurumen organoaren egoitza elektronikoa.*

**6. sexies artikulua. - Zepa beltzak balorizatzen dituzten pertsonen betebeharrak, hondakin izateari uztea helburu**

1. *Ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginean jasotako betebeharrak kalterik egin gabe, zepa beltzak balorizatzen dituzten pertsonak honako betebeharrak izango dituzte:*
  - a) *7. artikuluan ezarritako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzea.*
  - b) *Artxibo kronologiko eguneratu bat edukitzea Autonomia Erkidegoko ingurumen organoaren eskura, ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, eta bertan honako hauei buruzko informazioa jasotzea:*
    - *Balorizatu beharreko zepa beltzen kantitatea eta jatorria.*
    - *Zepa beltz horien lote zenbakia.*
    - *Lote horri emandako tratamendua eta izan daitezkeen intzidentziak.*
    - *Agregakin birziklatuen lote zenbakia.*
    - *II. eranskinean aurreikusitako analisien eta laginketen emaitzak.*
    - *Lotearen irteera data.*
    - *Produktuaren erabiltzailearen identifikazioa, erabilera espezifikoak, erabiliko den kantitatea eta bidalketa bakoitzari lotutako adostasun adierazpenen erreferentzia zenbakia.*
    - *Tratamendutik datozen eta hondakin izaera galtzeko ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten hondakinen kantitatea, eta haien destinoa.*
  - c) *Azken erabiltzaileari informazioa ematea sortutako agregakin birziklatuaren ingurumen ezaugarriak buruz, horien arabera egin daitezkeen erabilerei buruz eta erabilera horietarako ezarritako murrizketei buruz.*

2. 10. artikuluari f) letra gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

*«f) Materialaren bidalketa bakoitzean, adostasun adierazpenean jasotako bigarren mailako materialaren ezaugarriak aurreikusitako erabilera egokitzen direla egiaztatzea, eta, hala badagokio, adierazpen hori sinatzea. Era berean, materialak baldintza teknikoak eta ingurumenekoak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa eduki beharko da».*

3. Indargabetu egiten da II. eranskineko 5. puntua («Laginketen maiztasuna»), eta, beraz, honela idatzita geratzen da II. eranskina:



«APIRILAREN 9KO 64/2019 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

1.– Ingurumen irizpideak.

Jarraian, agregakin siderurgikoen erakunde balorizatzaileei eskatzen zaizkien ingurumen irizpideak –Dekretu honetan arautzen direnak– ezartzen dira, Dekretu honetan aurreikusitako erabilera motetarako.

Aplikazio ligatuetan (1. mota) erabiltzen diren agregakin siderurgikoen ez dute ingurumen kontroleko neurririk beharko, ingurunean eraginik ez dutela egiaztatzen denez gero.

Aplikazio ez-ligatuetan erabiltzen diren agregakin siderurgikoen (2. eta 3. motak) ingurumena ebaluatzeko eta kontrolatzeko irizpide hauek bete beharko dituzte:

1. taula. Agregakin siderurgikoen aplikazio motak, erabilera baldintzak eta iragazgaizte elementuak.

Mota	Erabilera baldintzak	Iragazgaizte elementuak
2. mota Erabat iragazgaizta ez den estaldura duten aplikazio ez-ligatuak.	Agregakina material granular gisa erabili eta ingurumen irizpideak betetzen diren erabilerak. Erabat iragazgaiztak ez diren estaldurak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Material granular trinkotuaren estaldura (%97 PM baino gehiagoko dentsitatea) gutxienez 25 zentimetroko lodieran granulometria jarraitua duena.</li> <li>– 3H:1V-ko inklinazioa edo handiagoa duen gainazal landareduna.</li> <li>– Antzeko propietateak dituen beste edozein elementu.</li> </ul>
3. mota Estaldura erabat iragazgaizta daukaten aplikazio ez-ligatuak.	Agregakina material granular gisa erabili eta ingurumen irizpideak betetzen diren erabilerak. Iragazgaizte maila handiko estaldura	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Hormigoizko zoladura, gutxienez 20 zentimetroko lodierakoa.</li> <li>– Gutxienez 20 zentimetroko lodiera duen legar zementua.</li> <li>– Hormigo bituminoso motako asfaltozko geruzak (5 zentimetroko edo gehiagoko lodiera).</li> <li>– Iragazgaizte xafla (adibidez, dentsitate handiko PEkoa), geotestilez babestua.</li> <li>– Antzeko propietateak dituen beste edozein elementu.</li> </ul>

2. – Metalen guztizko edukia.



Agregakin siderurgikoa lurzoruarekin zuzenean kontaktuan erabiltzen den aplikazioetan, 2. eta 3. moten arabera, agregakin horren guztizko kontzentrazioak 2. taulan ezarritakoak baino txikiagoak izango dira, oro har.

2. taula. Agregakin siderurgikoko metalen guztizko edukiaren muga balioak, aplikazio ez-ligatuetaarako.

Parametroa		Muga balioa
Artsenikoa (As)	(mg/kg)	30
Kadmioa (Cd)	(mg/kg)	5
Kobrea (Cu)	(mg/kg)	10.000
Kromoa (Cr) (VI)	(mg/kg)	8
Kromoa (Cr) guztira	(mg/kg)	10.000
Merkurioa (Hg)	(mg/kg)	4
Molibdenoa (Mo)	(mg/kg)	75
Nikela (Ni)	(mg/kg)	110
Beruna (Pb)	(mg/kg)	120
Zinka (Zn)	(mg/kg)	10.000
Banadioa (V)	(mg/kg)	1.000

3.– Lixibiazioa.

Agregakin siderurgikoen lixibiazioa kontrolatu beharko da. Horretarako, lixibiazio saiakuntza egingo zaie, UNE-EN-12457-4 arauaren arabera, eta 3. taulan ezarritako lixibiazio muga balioak gainditzen ez direla egiaztatuko da.

3. taula. Agregakin siderurgikoaren lixibiazioaren muga balioak (UNE-EN 12547-4), 2. eta 3. motetarako aplikazio ez-ligatuetaan.

Parametroa		UNE-EN-12457-4 lixibiazioa	
		2. mota	3. mota
Artsenikoa (As)	(mg/kg)	0,5	0,6
Barioa (Ba)	(mg/kg)	20	25
Kadmioa (Cd)	(mg/kg)	0,04	0,05
Kromoa (Cr) guztira	(mg/kg)	0,5	2
Kromoa (Cr) VI	(mg/kg)	0,1	0,4
Kobrea (Cu)	(mg/kg)	2	3
Merkurioa (Hg)	(mg/kg)	0,01	0,01
Molibdenoa (Mo)	(mg/kg)	0,5	2,8
Nikela (Ni)	(mg/kg)	0,4	0,5
Beruna (Pb)	(mg/kg)	0,5	0,6
Antimonioa (Sb)	(mg/kg)	0,06	0,08
Selenioa (Se)	(mg/kg)	0,1	0,4
Zinka (Zn)	(mg/kg)	4	5
Kloroa (Cl)	(mg/kg)	800	5.000
Fluorra (F)	(mg/kg)	18	30
SO <sub>4</sub>	(mg/kg)	1.000	5.000
Banadioa (V)	(mg/kg)	1,5	4

4.– Hedakortasuna.



*Hedakortasunaren kontrol bat egin beharko da, UNE-EN 1744 arauaren 19.3 atalaren arabera zehaztua, egiaztatzeko zepa beltzak eta zepa zuriak ez direla nahastu.*

*5.– Laginketen maiztasuna.*

**(Indargabetua)».**

4. III. eranskina erantsi da, eta honela dio:



## III. ERANSKINA

**Zepa beltzen tratamendutik eratorritako agregakin birziklatuak hondakin izateari  
noiz uzten dioten zehazteko irizpideekiko adostasun adierazpena**

1	<p>Materiala sortzen/inportatzen duen pertsona Izena: Helbidea: Harremanetarako pertsona: Telefonoa: Faxa: Helbide elektronikoa: Hondakinen Sorkuntza eta Kudeaketa Erregistroko erregistro zenbakia:</p>
2	<p>Tratatutako zepa beltza</p> <p>Arku elektrikoko labeetan altzairua fabrikatetik sortutako zepa beltzak balorizatzeko eta ondoren agregakin birziklatu gisa erabiltzeko jardueri aplikatu beharreko araubide juridikoari buruzko apirilaren 9ko 64/2019 Dekretuaren 7. artikulua eta II. eranskinaren arabera baimendutako erabilera.</p>
3	<p>Lote zenbakia eta tona kopurua:</p>
4	<p>Bidalketa honek bete egiten ditu arku elektrikoko labeetan altzairua fabrikatetik sortutako zepa beltzak balorizatzeko eta ondoren agregakin birziklatu gisa erabiltzeko jardueri aplikatu beharreko araubide juridikoari buruzko apirilaren 9ko 64/2019 Dekretuaren 7. artikuluan aipatutako irizpideak.</p>
5	<p>Bidalketa eskusiboki egokitzen da arku elektrikoko labeetan altzairua fabrikatetik sortutako zepa beltzak balorizatzeko eta ondoren agregakin birziklatu gisa erabiltzeko destino eta baldintzei aplikatu beharreko araubide juridikoari buruzko apirilaren 9ko 64/2019 Dekretuaren 7. artikulua eta II. eranskinan jasotako xede eta baldintzetara.</p>
6	<p>Zepen tratamendutik eratorritako agregakin birziklatuak sortzen dituen pertsonak 6. quater artikulua arabera ezarritako kudeaketa sistema bat dauka ezarrita. Kudeaketa sistema, 64/2019 Dekretuarena, apirilaren 9koa, arku elektrikoko labeetan altzairua fabrikatetik sortutako zepa beltzak balorizatzeko eta ondoren agregakin birziklatu gisa erabiltzeko jardueri aplikatu beharreko araubide juridikoari buruzkoa.</p>
7	<p>Aurreko informazioa osoa eta zuzena dela ziurtatzen dut, nire jakintza eta ulermen leialaren arabera.</p> <p>Izena: Data: Sinadura:</p>
8	<p>Erabiltzailearen adierazpena, non adierazten baita erabilera arku elektrikoko labeetan altzairua fabrikatetik sortutako zepa beltzak balorizatzeko eta ondoren agregakin birziklatu gisa erabiltzeko jardueri aplikatu beharreko araubide juridikoari buruzko apirilaren 9ko 64/2019 Dekretuan eta erabilera aginduan ezarritako baldintzetara egokituko dela:</p> <p>Adierazten dut ezagutzen ditudala material mota, materialaren baldintzak eta erabilera baldintzak. Horrez gain, adierazten dut material horri emango zaion erabilera bat datorrela adierazpen honen 5. atalean jasotako erabilerekin.</p> <p>Izena: Data: Sinadura:</p>



4. Kendu egiten da 2. eranskineko 5. puntua. Laginketen maiztasuna.

**Azken xedapenetatik seigarrena.** *Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen I.B, I.C eta I.D eranskinak aldatzea.*

1. Aldatu egiten dira Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen I.B eranskinaren 1., 2. eta 3. atalak, eta, beraz, honela idatzita geratzen da I.B eranskina:

### **«I.B ERANSKINA**

*Ingurumen baimen bakarria behar duten jarduerak eta instalazioak*

*I. eranskin honetako A atalean jaso ez diren jardueren kasuan, ingurumen baimen bakarraren mende egongo dira honako jarduerak eta instalazio hauek:*

*1. Hondakin arriskutsuak tratatzeko baimena behar duten jarduerak eta instalazio finkoak, honako jarduerak eta instalazio hauek izan ezik:*

- Ekonomia zirkularra xede, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko 2022ko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinetan jasotako eragiketa bereiziek bat etorritik, izaera profesionalarekin hondakinak biltzeko eta tratatzeko eragiketak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoek egindako jarduerak, baldin eta jarduerak horien baimena ez bada instalazioarena bera.*
- Hondakinak balorizatzeko eragiketa bat instalaziorik gabe egiteko asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoek egindako jarduerak.*
- Hondakinak tratatzeko instalazio mugikorak.*

*Jarduerak horiek, berez, ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen aurreikusitako baimen edo komunikazio araubide orokorraren mende egongo dira.*

*2. Hondakin ez-arriskutsuak tratatzeko baimena behar duten jarduerak edo instalazioak, honako jarduerak edo instalazio hauek izan ezik:*

- Ekonomia zirkularra xede, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinetan jasotako eragiketa bereiziek bat etorritik, izaera profesionalarekin hondakinak biltzeko eta tratatzeko eragiketak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoek egindako jarduerak, baldin eta jarduerak horien baimena ez bada instalazioarena bera.*
- Hondakinak balorizatzeko eragiketa bat instalaziorik gabe egiteko asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoek egindako jarduerak.*
- Hondakinak tratatzeko instalazio mugikorak.*

*Jarduerak horiek, berez, ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen aurreikusitako baimen edo komunikazio araubide orokorraren mende egongo dira.*



3. *Atmosfera kutsa dezaketen eta baimena behar duten jarduerak edo instalazioak, instalazio mugikorrek izan ezik».*

2. Indargabetu egiten da Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen I.C eranskinaren 10. atala, eta, beraz, I.C eranskina honela idatzita geratzen da:

### **«I.C ERANSKINA**

#### **Jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jarduerak eta instalazioak**

*1. eranskin honen A eta B ataletan jaso ez diren jardueren kasuan, sailkatutako jardueretarako udal lizentziaren mende egongo dira honako jarduera eta instalazio hauek:*

- 1. Erauzketa jarduerak.*
- 2. Instalazio nuklearrak eta erradioaktiboak.*
- 3. Energia elektrikoa ekoizten duten instalazioak, energia berriztagarria energia elektrikoa bihurtzeko biltze eta eraldatze instalazioak barne, potentzia instalatua 100 kW baino handiagoa baldin badute.*  
*Kanpo gelditzen dira jada finkatutako lur urbanizatueta edo lehendik dauden eraikinetan kokatutako energia fotovoltaiakoaren instalazioak.*
- 4. Industriak, oro har.*
- 5. Gainazal tratamenduak eta bernizatze edo pintatze lanak pistolaz eta antzekoez egiten dituzten tailerrak.*
- 6. Askotariko tailer eta lantegiak (ibilgailu motordunen eta antzekoen mantentze eta konponketa lanak, arotzeria, galdaragintza, muntaketa, mekanizazioa, okindegiko lantegiak, gozogintza, cateringa...), instalatutako guztizko potentzia (potentzia mekanikoa eta elektrikoa, argiteriarena kenduta) 25 kW-koa edo handiagoa denean eta produkziarako berariazko azalera 300 m<sup>2</sup>-tik gorakoa denean.*
- 7. Biltegitratzeko, salerosketarako eta erakusketarako jarduerak edo instalazioak, toxiko, arriskutsu edo sukoi gisa katalogatuta dauden produktuak eta materialak baldin badituzte (500 kg-tik gora bizitegitarako hiri lurzoruan kokatutako instalazioetan, eta 1.000 kg-tik gora gainerako lurzoruetan).*
- 8. Gasolina zerbitzuguneak eta hornidura parkeak, eta erregai likidoak edo gaseosoak banatzeko instalazioak edo antzeko instalazioak.*
- 9. Edozein lurzoru motatan kokatutako erregai likido eta gaseosoak biltzeko instalazioak, 50.000 litrotik gorako edukiera badute.*
- 10. (Indargabetua)**
- 11. Hondakin urak arazteko instalazioak eta edateko ura tratatzeko instalazioak.*
- 12. Arrain haztegiak.*
- 13. Hiltegiak.*
- 14. Dantzalekuak, diskotekak, gazteentzako diskotekak, disko tabernak, karaokeak, taberna bereziak, pubak edo antzeko establezimenduak, baita zezen plaza egonkorrek ere.*
- 15. Jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako beste establezimendu batzuk, baldin eta honako baldintza hauetakoren bat betetzen badute:  
– 300 pertsona edo gehiagorentzako tokia izatea.*

- Indarrean dagoen araudi teknikoaren arabera, arrisku bereziki handikotzat jo eta katalogatu den instalazioren bat edukitzea.
  - Kultura balio handiko eraikinak izatea, beren ezaugarri arkitektonikoek oro har ezarritako baldintza teknikoak erabat betetzea ahalbidetzen ez dutenean.
  - Araubide bereziko establezimenduak izatea, ikuskizunei eta jolas jardueri buruzko araudiaren arabera.
16. 300 pertsona edo gehiagorentzako tokia duten gurtza zentroak.
17. 20 ALU (azienda larriko unitateak) baino gehiagoko abeltzaintzako ustiategiak eta etxeko eskortak, edo ustiategi baliokideak, irailaren 22ko 515/2009 Dekretuaren 3. artikuluko a) atalean edo hori ordeztzen duen arauan jasotzen diren proportzioen arabera; txakurtegiak (hazkuntza eta trebakuntza), 25 txakur baino gehiago hartzeko lekua badute; denak ere, baldin eta lurzoru urbanizaezinean edo lurzoru hiritar industrialean badaude.
18. Etxeko abeltzaintza jarduerak, hau da, 4 ALUtik (azienda larriko unitateak) gorako instalazioak, eta mota guztietako txakur zaindegiak, baldin eta guztiak bizitegitarako hiri lurzoruan badaude.
19. Lege honetan xedatutakoaren arabera, osasunean eta ingurumenean antzeko eragina izan dezaketen beste jarduera batzuk».

3. Indargabetu egiten da Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen I.D eranskinaren 15. atala. Beraz, I.D eranskina honela idatzita geratzen da:

#### **«I.D ERANSKINA**

##### **Jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena behar duten jarduerak eta instalazioak**

- I. eranskin honen A, B eta C ataletan jasota ez dauden jarduerak direnean, jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena beharko dute honako jarduera eta instalazio hauek:
1. Energia elektrikoa ekoizten duten instalazioak eta energia berriztagarria energia elektrikoa bihurtzeko biltze eta eraldatze instalazioak, potentzia instalatua 50 kW-ekoa baino handiagoa eta 100 kW-ekoa edo txikiagoa baldin badute.  
Kanpo gelditzen dira jada finkatutako lur urbanizatueta edo lehendik dauden eraikinetan kokatutako energia fotovoltaikoaren instalazioak.
  2. Askotariko tailer eta lantegiak (ibilgailu motordunen eta antzekoen mantentze eta konponketa lanak, aroztegiak, galdaragintza tailerrak, muntaketa, mekanizazioa, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), I.C eranskineko 5. eta 6. puntuetan daudenak izan ezik.
  3. Aurreko eranskineko 7. puntuan sartuta ez dauden produktuak eta materialak biltegitartzeko, saltzeko eta erakusteko jarduera eta instalazioak.
  4. Erregai likidoak edo gaseosoak biltzeko instalazioak, 50.000 litroko edukia gainditzen ez badute; sailkapen horretatik kanpo geratzen dira gasolindegi batean, hornidura parke batean, banaketa instalazio batean edo horren pareko instalazio batean daudenak.
  5. 100 m<sup>2</sup>-tik gorako azalera eraikia duten ibilgailu gordelekuak.



6. Zerbitzu jarduerak, hala nola haurtzaindegiak, ikastetxeak, osasun zentroak eta farmazia arretarako zentroak, albaitaritza klinikak, polizia etxeak eta segurtasun zentroak, bulegoak, ile apaindegiak, masaje aretoak eta ehorztetxeak.
7. Hotelak, ostatuak, aterpetxeak, landetxeak, egoitza komunitarioak, adinekoen egoitzak eta antzeko establezimenduak.
8. Jarduera sailkatuen lizentzia baten mende ez dauden jendaurreko ikuskizunak edo jolas jarduerak eskaintzen dituzten establezimenduak.
9. Jarduera sailkatuen lizentziarik behar ez duten gurtza zentroak.
10. Jarduera sailkatuen udal lizentzia behar ez duten instalazioak eta jarduerak aurreikusten dituen eranskinean jasotzen ez diren abeltzaintza ustiategi txikiak eta etxeko eskortak.
11. Eraldaketa zentroak.
12. Informazioa tratatzeko eta komunikatzeko zerbitzuak (kalkulu zentroak, datu bankuak, irrati eta telebista errepikagailuak, satellite bidezko errepikagailuak, telefonia mugikorreko antena eta oinarri estazioak, informazioa elektronikoki edo informatikoki tratatzeko zentroak, irrati telefoniako eta irrati telegrafiko estazioak, irrati eta telebista emisoreak eta alarmak kontrolatzeko zentralak) eta antzekoak.
13. Instalazio osagarriak:
  - 13.1 Galdara gelak.
  - 13.2 Aire girotuko instalazioak.
  - 13.3 Hotz ganberen instalazioak.
- 13.4. Erradiodiagnostiko medikoa egiteko instalazioak, hau da, diagnostiko medikoa egiteko X izpien ekipo eta instalazioak, aplikatzekoa den araudiaren arabera.
14. Errausketa laberik gabeko hilerri eta beilatokiak.
15. **(Indargabetua).**
16. Osasunean eta ingurumenean antzeko eragina izan dezaketen bestelako jarduerak».

**Azken xedapenetatik zazpigarrena. Indarrean jartzea.**

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeita egun balioduneko epean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, [ ](e)(a)n.



<b>Eranskina</b>	<b>Edukia</b>
I. eranskina	Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak garbigunean entregatu direla egiaztatzen duen dokumentua.
II. eranskina	ekoizleak eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak instalazio mugikor bati eman dizkiola egiaztatzen duen dokumentua.
III. eranskina	Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko baimen eskaeraren edukia.
IV. eranskina	Hondakin onargarriak eta eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak balorizatzeko instalazioen baldintza teknikoak.
V. eranskina	Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinetatik datozen bigarren mailako materialek hondakin izateari noiz uzten dioten zehazteko irizpideekiko adostasun adierazpena.
VI. eranskina	R0511 eragiketarik eratorritako bigarren mailako materialentzako erantzukizunpeko adierazpena, hondakin izateari uztea dakarrena inplizituki.
VII. eranskina	Planta mugikorretarako obrako instalazioaren informazio eskakizunak eta baldintzak.
VIII. eranskina	Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen balorizaziotik eratorritako bigarren mailako materialen erabilerak.



## I. eranskina

Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak garbigunean entregatu direla egiaztatzen duen dokumentua.

Obra txikiko eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak sortu dituzten edo hondakinok dauzkaten pertsonak garbigunean entregatu beharko dituzte hondakin horiek, formulario honekin batera:

OBRA IDENTIFIKATZEKO DATUAK			
LIZENTZIA ZENBAKIA/ OBRA TXIKIEN JAKINARAZPENA:			
SUSTATZAILEA/EKOIZLEA	Titularraren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia:	Telefonoa/e-maila:	Posta helbidea:
	Probintzia:	Udalerria:	
KONTRATISTA/EDUKITZAILEA	Titularraren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia:	Telefonoa/e-maila:	Posta helbidea:
	Probintzia:	Udalerria:	
ENTREGATUTAKO OBRA HONDAKINEI BURUZKO DATUAK			
EHZ KODEA	HONDAKINA	KANTITATEA (tonak)	ENTREGA DATAK
EHZ 15 01 01 - Paperezko eta kartoizko ontziak.			
EHZ 15 01 06 - Ontzi nahastuak.			
EHZ 170101/170102/170103/170107 - Harri hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, harriak eta arroka, zeramika (sabai aizunen, molduren eta panelen igeltsua alde batera utzita, gainerako harri materialak aprobetxatzea eragozten baitu).			
EHZ 170201 - Zura.			
EHZ 170202 - Beira.			
EHZ 170203 - Plastikoa. (PVCa, gomak, etab.).			

**OBRA IDENTIFIKATZEKO DATUAK**

LIZENTZIA ZENBAKIA/

OBRA TXIKIEN JAKINARAZPENA:

SUSTATZAILEA/EKOIZLEA	Titularraren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia:	Telefonoa/e-maila:	Posta helbidea:
	Probintzia:	Udalerria:	
KONTRATISTA/EDUKITZAILEA	Titularraren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia:	Telefonoa/e-maila:	Posta helbidea:
	Probintzia:	Udalerria:	

**ENTREGATUTAKO OBRA HONDAKINEI BURUZKO DATUAK**

EHZ 17 04 - Metalak.			
EHZ 17 06 - Amiantoa duten isolamendu eta eraikuntza materialak.			
EHZ 17 08 - Igeltsuzko eraikuntza materialak.			
EHZ 17 09 - Eraikuntzako eta eraispeneke beste hondakin batzuk.			



## II. eranskina

**Ekoizleak eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak instalazio mugikor bati eman dizkiola egiaztatzen duen dokumentua.**

Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak sortu dituzten pertsonak honako formulario hau aurkeztu beharko dute hondakin horiek planta mugikorrean entregatzean:

OBRA IDENTIFIKATZEKO DATUAK			
LIZENTZIA ZENBAKIA:		INGURUMENEN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA	
SUSTATZAILEA/EKOIZLEA	Titularraren izen-abizenak eta identifikazio zenbakia:	Telefonoa/e-maila:	Posta helbidea:
	Probintzia:	Udalerria:	
KONTRATISTA/EDUKITZAILEA	Titularraren izen-abizenak eta identifikazio zenbakia:	Telefonoa/e-maila:	Posta helbidea:
	Probintzia:	Udalerria:	
BAIMENDUTAKO KUDEATZAILEA	Identifikazioa:	Baimen zk.	
ENTREGATUTAKO OBRA HONDAKINEI BURUZKO DATUAK			
EHZ KODEA	HONDAKINA	KANTITATEA (tonak)	ENTREGA DATAK
170101	Hormigoia		
170102	Adreiluak		
170103	Teilak eta zeramikazko materialak		
170107	17 01 06 kodean zehaztutakoak ez diren hormigoizko, adreiluzko, teilazko eta zeramikazko materialen nahasketak.		

Hondakinak entregatzeko data:	
Hondakinak dauzkan pertsonaren sinadura:	Planta mugikorraren sinadura:



### III. eranskina

#### Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko baimen eskaeraren edukia.

#### A. Tratamendu finkoko instalazioetan hondakinak kudeatzeko baimen eskaeraren edukia

##### 1. Eskaerak honako hauek jasoko ditu:

- a) Instalazioaren jabea den pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazioa, IFZ barne.
- b) Instalazioa kokatuta dagoen lurraldeko udalaren hirigintza txostena, proiektua bertako hirigintza plangintzarekin bateragarria dela egiaztatzen duena.
- c) Hondakinak tratatzeko eragiketak egingo diren instalazioen kokapena, posta helbidearen eta koordenatu geografikoen bidez identifikatuak eta Espainian erreferentzia ofizialeko sistema geodesikoa arautzen duen uztailaren 27ko 1071/2007 Errege Dekretuaren arabera zehaztuak.
- d) Instalazioaren proiektuaren aurkezpena, instalazioen, haien ezaugarri teknikoaren eta instalazioari edo tratamendu eragiketak egingo diren tokiari aplikatu dakioken bestelako edozein ezaugarriaren deskribapen xehatuarekin. Zehazki, proiektuak honako atal hauek izan beharko ditu:
  - i. Instalazioan hondakinak tratatzeko egin nahi diren instalazioen eta jardueren deskribapen xehatua eta haien irismena, egin nahi diren eragiketa motak adierazita, ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinetan ezarritako kodifikazioaren arabera, eta, hala badagokio, lortu nahi diren material motak, horien oinarritzko ezaugarriak eta eman nahi zaizkien erabilerak ere adierazita. Proiektu horretan adierazi beharko da instalazioak Dekretu honen IV. eranskinean eskatzen diren baldintza teknikoak beteko dituela.
  - ii. Hala badagokio, instalazioa jarriko den lekuaren ingurumen egoera, lurzorua eta lurpeko eta azaleko urak barne, eta aurreikusitako balizko inpaktuak, baita hura ustiatzeari utzi ondoren sor daitezkeenak ere.
  - iii. Baliabide naturalak, hala badagokio, tratatu beharreko hondakinez bestelako lehengaiak eta osagarriak, instalazioan erabilitako edo sortutako substantziak, ura eta energia.
  - iv. Instalazioaren emisioak sortzen dituzten iturriak.
  - v. Instalazioak airera, uretara eta lurzorura egingo dituen emisioen mota eta kantitatea, eta ingurumenean izango dituen ondorio adierazgarrien zehaztapena.
  - vi. Instalazioak sortutako hondakinen hierarkiak ezartzen duen lehentasun ordena aplikatzeari buruzko neurriak.
  - vii. Ingurumenera zuzendutako emisioak kontrolatzeko aurreikusitako neurriak, hautsaren eta zarataren aurkako neurriak barne.



viii. Hala badagokio, interesdunak administrazio publiko eskudunari aurkezten dion dokumentazioa, segurtasunean, pertsonen osasunean eta ingurumenean eragina duten jarduerak kontrolatzeko, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

Ingurumen baimen bateratuaren mendeko instalazioen kasuan, proiektu teknikoak honako hauek ere jasoko ditu:

ix. Aurreikusitako teknologia eta instalaziotik datozen emisioak prebenitzeko eta saihesteko erabiltzen diren beste teknika batzuk, edo, hori ezinezkoa bada, emisio horiek murrizteko erabiltzen direnak. Teknologia erabilgarri onenei buruzko ondorioen arabera, teknika erabilgarri onenak zeintzuk diren adierazi beharko da.

x. Eskatzaileak proposatutako teknologia, teknika eta neurriei dagokienez azertu dituen aukera nagusien laburpena, halakorik balego.

e) Tratatu daitezkeen hondakin motak eta kantitateak (t/urte), EHZ kodeen bidez identifikatuta, tratamendu eragiketa mota bakoitzerako. Era berean, biltegiratze eragiketaren kasuan, gehieneko edukiera erabilgarria (t) ere adierazi beharko da. Hondakin arriskutsuei dagokienez, arriskugarritasun ezaugarriei buruzko informazioa.

f) Aurreikusitako tratamendu eragiketen ondorioz sortzea aurreikusten diren hondakin motak eta kantitateak (t/urte), EHZ kodeen bidez identifikatuta.

g) Hala badagokio, urei eta kostaldeeii buruzko legeriak ur kontinentaletara edo lehorretik itsasora emisioak baimentzeko eskatzen duen dokumentazioa.

h) Lurzorua eta lurpeko urak babesteko betebeharreri buruzko dokumentua, kutsadura prebenitzeko, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.

i) Hondakinei buruzko araudiaren edo ingurumen erantzukizunari buruzko legeriaren arabera eska daitezkeen fidantzari, aseguruari edo finantza berme baliokideari aurre egiteko baliabide ekonomikoak edukitzearen erantzukizunpeko adierazpena.

j) Hala badagokio, instalazioaren titularraren eta biltzeko eta tratatzeko eragiketa egiten duen pertsona fisiko edo juridikoaren artean aurreikusitako ereduizko kontratua, erantzukizunen banaketa deskribatuz.

k) Aplikatu beharreko legerian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen beste edozein informazio eta dokumentazio, baita, hala badagokio, fidantzei eta nahitaezko aseguruiei buruzkoa ere.

l) Eskatzailearen iritziz, indarrean dauden xedapenekin bat etorrira konfidentzialtasuna behar duten datuen zehaztapena.

2. Baimen eskaerarekin batera, aurreko atalean zehaztutako argibide guztien laburpen ez-tekniko bat aurkeztuko da, jendaurrean jartzeko tramitearen ondorioetarako errazago uler dadin.

3. Jarduerari edo instalazioari ingurumen ebaluazio arrunta edo sinplifikatua egin behar bazaio, eskaeran ingurumen inpaktuaren azterketa edo ingurumen dokumentua aurkeztu beharko da, dagokionaren arabera. Eranskin hori egitean, d) atalean jasotako proiektu teknikoaren 1. eta 3. epigrafeetan eskatzen diren edukiak eta ingurumen inpaktuaren azterlanaren edo ingurumen dokumentuaren berezko edukiak sartuko dira, dagokionaren arabera.



4. Hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpen bat erantsiko da, adieraziz hondakin izaerari amaiera emateko, Dekretu honen 19. artikulua araberako kudeaketa sistema bat egongo dela eta UNE-EN-ISO/IEC 17020 arauaren arabera egiaztatutako erakundeekin lan egingo dela programa analitikorako.

## **B. Tratamendurako instalazio mugikorretan hondakinak kudeatzeko baimen eskaeraren edukia**

### 1. Eskaerak honako hauek jasoko ditu:

- a) Instalazioaren jabea den pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazioa, IFZ barne.
- b) Instalazioaren proiektuaren aurkezpena, instalazioen, haien ezaugarri teknikoaren eta instalazioari edo tratamendu eragiketarako egingo diren tokia aplikatu dakioken bestelako edozein ezaugarriaren deskribapen xehatuarekin. Zehazki, proiektuak honako atal hauek izan beharko ditu:
  - i. Instalazioan hondakinak tratatzeko egin nahi diren instalazioen eta jardueren deskribapen xehatua eta haien irismena, egin nahi diren eragiketa motak adierazita, ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinetan ezarritako kodifikazioaren arabera, eta, hala badagokio, lortu nahi diren material motak, horien oinarritzko ezaugarriak eta eman nahi zaizkien erabilerak. Proiektuan adierazi beharko da instalazioak Dekretu honen IV. eranskinean eskatzen diren baldintza teknikoak beteko dituela.
  - ii. Plantako ur eta energia horniduraren deskribapena, plantaren hondakin tratamendurako gaitasuna (t/h), funtzionamendu araubidea (h/urte maximoak eta zenbatetsiak) eta plantarentzat aurreikusitako mantentze lanak.
  - iii. Baliabide naturalak, eta, hala badagokio, tratatu beharreko hondakinez bestelako lehengaiak eta osagarriak, instalazioan erabilitako edo sortutako substantziak, ura eta energia.
  - iv. Instalazioaren emisioak sortzen dituzten iturriak.
  - v. Instalazioak airera, uretara eta lurzorura egingo dituen emisioen mota eta kantitatea, eta ingurumenean izango dituen ondorio adierazgarrien zehaztapena.
  - vi. Instalazioak sortutako hondakinen hierarkiak ezartzen duen lehentasun ordena aplikatzeari buruzko neurriak.
  - vii. Ingurumenera zuzendutako emisioak kontrolatzeko aurreikusitako neurriak, hautsaren eta zarataren aurkako neurriak barne.
- c) Instalaziora eraman nahi diren hondakinak tratatzeko jardueren deskribapen xehatua, ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinetan ezarritako kodifikazioaren arabera egitea aurreikusten diren eragiketa motak adierazita.
- d) Tratatu daitezkeen hondakin motak eta kantitateak (t/urte), EHZ kodeen bidez identifikatuta, tratamendu eragiketa mota bakoitzerako. Hondakin arriskutsuei dagokienez, arriskugarritasun ezaugarriari buruzko informazioa.
- e) Aurreikusitako tratamendu eragiketen ondorioz sortzea aurreikusten diren hondakin motak eta kantitateak (t/urte), EHZ kodeen bidez identifikatuta.



- f) Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko legearen testuategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren aplikazio eremuan sartzen ez diren instalazioek, baimen eskaerarekin batera, ingurumen inpaktuaren azterlana aurkeztu beharko dute, ingurumen inpaktuaren adierazpenari buruzko estatuko edo autonomia erkidegoko araudiak hala eskatzen duenean.
- g) Hondakinen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera eska daitezkeen fidantzari, aseguruari edo finantza berme baliokideari aurre egiteko baliabide ekonomikoak edukitzearen erantzukizunpeko adierazpena.
- h) Planta Industria Establezimenduen Erregistroan inskribatu izanaren agiriaren kopia.
- i) Aplikatu beharreko legerian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen beste edozein informazio eta dokumentazio, baita, hala badagokio, fidantzei eta nahitaezko aseguruiei buruzkoa ere.
- j) Eskatzailearen iritziz, indarrean dauden xedapenekin bat etorrira konfidentzialtasuna behar duten datuen zehaztapena.

2. Hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, adieraziz hondakin izaerari amaiera emateko, Dekretu honen 20. artikulua araberako kudeaketa sistema bat egongo dela eta UNE-EN-ISO/IEC 17025 arauaren arabera egiaztatutako erakundeekin lan egingo dela programa analitikorako.

### **C. Instalazio finko eta mugikorretan hondakinak bildu eta tratatzeko eragiketak egiten dituzten pertsona fisikoek hondakinak kudeatzeko egin beharreko baimen eskaeraren edukia.**

1. Eskaerak honako hauek jasoko ditu:
  - a) Hondakinak tratatzeko jarduera egitea eskatzen duen pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazioa, IFZ eta harremanetarako datuak barne.
  - b) Eragiketa egingo duen pertsona fisikoaren identifikazioa, NANA edo antzekoa eta harremanetarako datuak barne.
  - c) Tratatu nahi diren hondakin motak eta kantitateak (t/urte), EHZ kodeen bidez identifikatuta, eta, beharrezkoa bada, eragiketa mota bakoitzerako. Hondakin arriskutsuei dagokienez, arriskugarritasun ezaugarriei buruzko informazioa.
  - d) Hondakinak tratatzeko egin nahi diren jardueren deskribapen xehatua, egitea aurreikusten diren eragiketa motak adierazita, ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinetan ezarritako kodifikazioaren arabera, eta, hala badagokio, lortu nahi diren material motak, horien oinarritzko ezaugarriak eta eman nahi zaizkien erabilerak ere adierazita.
  - e) Aurreikusitako tratamendu eragiketen ondorioz sortzea aurreikusten diren hondakin motak eta kantitateak (t/urte), EHZ kodeen bidez identifikatuta.
  - f) Tratamendu eragiketa bakoitzerako erabiliko diren metodoak, segurtasun eta arreta neurriak eta aurreikusitako gainbegiratze eta kontrol eragiketak.
  - g) Instalazioan aurreikusitako tratamendu eragiketak egiteko gaitasun teknikoa, besteak beste, eskuragarri dauden ekipoen, bitartekoen eta langileen zehaztasunarekin, pertsona kopuruaren eta pertsona bakoitzak eragiketari eskainiko dion denboraren kalkulua barne.



- h) Hondakinen arloko araudiaren arabera eska daitezkeen fidantzari, aseguruari edo finantza berme baliokidearen kostuei aurre egiteko baliabide ekonomikoak edukitzearen erantzukizunpeko adierazpena.
2. Hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, adieraziz hondakin izaerari amaiera emateko, Dekretu honen 20. artikulua araberako kudeaketa sistema bat eta laborategiak egongo direla, UNE-EN-ISO/IEC 17025 arauaren arabera, lortutako materialen ezaugarri teknikoen eta ingurumenekoen analisiak egiteko.



## IV. eranskina

**Hondakin onargarriak eta eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak balorizatzeko instalazioen baldintza teknikoak**

**1.A. Ekonomia zirkularra xede, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen arabera hondakin izateari uztea dakarten balorizazio eragiketak egiten dituzten instalazioak –eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak tratatzen dituztenak– baimentzeko gutxienerako baldintzak, kasu bakoitzean onargarriak diren EHZen arabera.**

Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko instalazioek, oro har, ekipamendu hauek izan beharko dituzte gutxienez: 1.B atalean adierazitako 1, 2, 3, 4, 7, 8 eta 9a. Ondoko taulan jasotako EHZ kode onargarriekin tratamendu eragiketak egin nahi izanez gero, taula horretan kasu bakoitzerako jasotako ekipamenduak ere izan beharko dituzte.

Hala ere, Autonomia Erkidegoko ingurumen organoak, kudeaketa baimenean, eranskin honetan jasotakoez bestelako ekipamenduak edo ekipamendu gehigarriak eskatu ahal izango ditu, beharrezkoa denean, tratatu beharreko hondakinaren ezaugarrien eta tratamendu eragiketaren arabera.

<b>EHZ ONARGARRIAK</b>	<b>ESLEITUTAKO ERAGIKETA</b>	<b>BEHARREZKO GUTXIENEO EKIPAMENDUA</b>	<b>BEHARREZKO GUTXIENEO GAIKUNTZA EDO BESTE ESKAKIZUN BATZUK</b>
17.01.01* – Hormigoia. (*) eta/edo 17.01.02 – Adreiluak. (*) eta/edo 17.01.03 – Teilak eta zeramikazko materialak. (*) eta/edo 17.01.07 – Kodean zehaztutakoak ez diren hormigoizko, adreiluzko, teilazko eta zeramikazko materialen nahasketak (nahasketarik gabeko hondakina*)	R0506 – Agregakinak ekoizteko hondakin ez-organikoen balorizazioa.	6.1	Ispilu sarrera duten hondakinetan, hondakin ez-arriskutsuak izatearen justifikazioa. Baimendutako kudeatzaileak, gainera, R1201 eta R1203 eragiketarako baimena izan beharko du, bai eta eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak aldeztatik tratatzeko beharrezkoak diren beste eragiketa batzuetarako ere, azken balorizazio eragiketa egiteko.
17 05 07* – Substantzia arriskutsuak dauzkaten trenbideetako balastoa.	R0506 – Agregakinak ekoizteko hondakin ez-organikoen balorizazioa.	12 6.1	Deskutsatu ondoren, hondakin ez-arriskutsua ez izatearen justifikazio analitika egin. Baimendutako kudeatzaileak, gainera, R1201 eta R1203



EHZ ONARGARRIAK	ESLEITUTAKO ERAGIKETA	BEHARREZKO GUTXIENEO EKIPAMENDUA	BEHARREZKO GUTXIENEO GAIKUNTZA EDO BESTE ESKAKIZUN BATZUK
			eragiketarako baimena izan beharko du, bai eta eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak aldeztatik tratatzeko beharrezkoak diren beste eragiketa batzuetarako ere, azken balorizazio eragiketa egiteko.
17 05 08 – Trenbideetako balastoa, 17 05 07 kodean zehaztutakoa ez dena.	R0506 – Agregakinak ekoizteko hondakin ez-organikoen balorizazioa.	6.1	Hondakin ez-arriskutsuak izatea justifikatzen duen analisia. Baimendutako kudeatzaileak, gainera, R1201 eta R1203 eragiketarako baimena izan beharko du, bai eta eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak aldeztatik tratatzeko beharrezkoak diren beste eragiketa batzuetarako ere, azken balorizazio eragiketa egiteko.
17.09.04 – Eraikuntzako eta eraispenerako hondakin nahasiak, 17.09.01, 17.09.02 eta 17.09.03 kodeetan zehaztutakoak ez direnak (eraikuntzako beste hondakin batzuk, hondakin zikina).	eta R0506 – Agregakinak ekoizteko hondakin ez-organikoen balorizazioa.	5.1 5.2 6.1 6.2	Hondakin ez-arriskutsuak izatea justifikatzen duen analisia. Baimendutako kudeatzaileak, gainera, R1201 eta R1203 eragiketarako baimena izan beharko du, bai eta eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak aldeztatik tratatzeko beharrezkoak diren beste eragiketa batzuetarako ere, azken balorizazio eragiketa egiteko.
17.03.02 – Nahasketa bituminosoak, 17 03 01 kodean zehaztutakoak ez direnak.	R0506 – Agregakinak ekoizteko hondakin ez-organikoen balorizazioa.	5.1 5.2 6.1 6.2	Hondakin ez-arriskutsuak izatea justifikatzen duen analisia. Baimendutako kudeatzaileak, gainera, R1201 eta R1203 eragiketarako baimena izan beharko du, bai eta eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak aldeztatik tratatzeko beharrezkoak diren beste eragiketa batzuetarako ere, azken balorizazio eragiketa egiteko. Tratamendu prozesuan, 0-6 mm eta 6-20 mm



EHZ ONARGARRIAK	ESLEITUTAKO ERAGIKETA	BEHARREZKO GUTXIENEO EKIPAMENDUA	BEHARREZKO GUTXIENEO GAIKUNTZA EDO BESTE ESKAKIZUN BATZUK
			frakzioak bereiztea gomendatzen da, aplikazio ez-ligatueterako erabiliko den 6-20 mm frakzioko TPH edukia ahalik eta gehien murrizteko.
<p>Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen agregakinak, EHZ kode honekin:</p> <p>17.01.01 – Hormigoia. (*) eta/edo 17.01.02 – Adreiluak. (*) eta/edo 17.01.03 – Teilak eta zeramikazko materialak. (*) eta/edo 17.08.02 – Igeltsuzko eraikuntza materialak, 170801 kodean zehaztutakoak ez direnak. 17.05.04 – Lurra eta harriak, 17 05 03 kodean zehaztutakoak ez direnak. 17.09.04 – Eraikuntzako eta eraispeneko hondakin nahasiak, 17.09.01, 17.09.02 eta 17.09.03 kodeetan zehaztutakoak ez direnak (eraikuntzako beste hondakin batzuk, hondakin zikina).</p>	R0505 – Hondakin ez-organikoen birziklapena, zementua fabrikatzeko lehengaien orde.	14	Aldez aurreko eskakizuna: R12 eragiketa. Hondakinak trukatzea, zerrendatutako R1etik R11ra bitarteko edozein eragiketaren mende jartzeko. Ispilu sarrera duten hondakinetan, hondakin ez-arriskutsuak izatearen justifikazioa.
<p>Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen agregakinak, EHZ kode honekin:</p> <p>17.01.01 – Hormigoia (*) (hormigoia fabrikazioa) 17.01.02 – Adreiluak (hormigoia fabrikazioa) (*) 17.01.03 – Teilak eta zeramikazko materialak (teilak eta zeramikazko materialen fabrikazioa) (*) eta/edo 17.03.02 – Nahasketa bituminosoak, 17 03 01 kodean zehaztutakoak ez direnak (asfaltoaren eta hormigoia fabrikazioa). 17.08.02 – Igeltsuzko eraikuntza materialak, 170801 kodean zehaztutakoak ez direnak (igeltsuaren fabrikazioa). 17.05.04 – Lurra eta harriak, 17 05 03 kodean zehaztutakoak ez direnak. (lur eta harri naturalak). 17.09.04 – Eraikuntzako eta eraispeneko hondakin nahasiak, 17.09.01, 17.09.02 eta 17.09.03 kodeetan zehaztutakoak ez direnak (eraikuntzako beste hondakin batzuk, hondakin zikina).</p>	R0507 – Hondakin ez-organikoen birziklapena, lehengaien orde, beste fabrikazio prozesu batzuetan.	14	<p>Aldez aurreko eskakizuna: R12 eragiketa. Hondakinak trukatzea, zerrendatutako R1etik R11ra bitarteko edozein eragiketaren mende jartzeko. Ispilu sarrera duten hondakinetan, hondakin ez-arriskutsuak izatearen justifikazioa.</p> <p>R0507 eragiketaren arabera baimendutako kudeatzaileak R12 eragiketaren arabera baimendutako kudeatzaileari eskatu behar dio agregakin balorizatuek ez ditzatela gainditu librazioaren muga balioak.</p>



EHZ ONARGARRIAK	ESLEITUTAKO ERAGIKETA	BEHARREZKO GUTXIENKO EKIPAMENDUA	BEHARREZKO GUTXIENKO GAIKUNTZA EDO BESTE ESKAKIZUN BATZUK
17.05.04 – Lur eta harriak, 17 05 03 kodean zehaztutakoak ez direnak. (lur eta harri naturalak).	R0508 – Material ez-organikoen balorizazioa betelaneetan (backfilling).	Ez du ekipamendu espezifikorik behar.	Nekazaritza, Arrantza eta Ingurumen Ministerioaren Aginduaren baldintzak bete behar dira.
17.05.04 – Lur eta harriak, 17 05 03 kodean zehaztutakoak ez direnak. (lur eta harri ez-naturalak).	R0509 – Material ez-organikoen balorizazioa betelaneetan ez diren eragiketetan (hondakindegia egokitzea)		Hondakindegia onarpenerako jartzen dituen muga balioak bete behar dituzte.
EHZ kode hauen arabera sailka daitezkeen eraikuntza elementuak eta ekipamenduak: 17.01.01* – Hormigoia. (*) eta/edo 17.01.02 – Adreiluak. (*) eta/edo 17.01.03 – Teilak eta zeramikazko materialak. (*) eta/edo 17.02.01 – Zura (habeak, atek...) 17.02.02 – Beira (leihoetako beira...) 17.02.03 – Plastikoa (leio markoak, eroanbideak...) 17.04 – Metalak (burdin hesiak, barandak, metalezko habeak...) 17.05.04 – Lurra eta harriak, 17 05 03 kodean zehaztutakoak ez direnak. (harlanduzko obrak, hargintza...) 17.05.08 – Trenbideetako balastoa, 17 05 07 kodean zehaztutakoa ez dena.	R0511 – Hondakin ez-organikoak berrerabiltzeko prestatzea.	Baldintza teknikoak eta ingurumenekoak bakarrik egiaztatu behar dituzten hondakinen kasuan: ez dute ekipamendu espezifikorik behar, ezta instalaziorik ere.  Garbitu edo egokitu behar diren hondakinen kasuan: baimendutako planta/instalazioa, berrerabiltzeko hondakinak behar bezala garbitzen eta egokitzen lagunduko duten beharrezko ekipamendurekin.  Erabilera zehatzerako eskatzen den egiaztapenerako beharrezko gaikuntza.	Erabilera aginduan oinarrituz egiaztatu beharreko gaikuntza.  Garbitzeko eta egokitzeko beharrezko gaikuntza.
17.05.04 – Lurra eta harriak, 17 05 03 kodean zehaztutakoak ez direnak. (lur eta harri naturalak). 17.05.04 – Lurra eta harriak, 17 05 03 kodean zehaztutakoak ez direnak. (lurzoria kutsa dezaketen jarduerak hartu izan dituzten edo hartzen dituzten kokalekuetatik datozen lurra eta harriak, zuzenean Dekretu honen 22., 23., 24., 25. eta 26. artikuluetako baldintzak <b>betetzen</b> dituztenak).	R0511 Hondakin ez-organikoak berrerabiltzeko prestatzea.	Ez du ekipamendu espezifikorik behar.	Erabilera aginduaren arabera, lurra eta harri naturalak egiaztatzeko beharrezko gaikuntza.



EHZ ONARGARRIAK	ESLEITUTAKO ERAGIKETA	BEHARREZKO GUTXIENEO EKIPAMENDUA	BEHARREZKO GUTXIENEO GAIKUNTZA EDO BESTE ESKAKIZUN BATZUK
<p>17 05 03* – Substantzia arriskutsuak dauzkaten lur eta harriak.</p> <p>17.05.04 – Lurra eta harriak, 17 05 03 kodean zehaztutakoak ez direnak. (Kutsatuta egon daitezkeen kokalekueetatik datozen lur eta harriak, Dekretu honen 22., 23., 24., 25. eta 26. artikuluetako eskakizunak <b>betetzen EZ</b> dituztenak)</p>	<p>R0502 – Hondeatutako lurzoruen deskutsatzea, emaitza lurzorua balorizazioa izateko.</p>	<p>13</p>	<p>Hondakina arriskutsua balitz, hondakinen tipologia hori tratatzeko baimena eduki beharko litzateke.</p>



### 1.B. atala. Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko instalazio finkoetarako ekipamenduen zerrenda.

Ekipamenduak kodetzea	Eska daitekeen gutxieneko ekipamendua
1	<p><b>PLANTAREN PERIMETROA:</b> Aldameneko lursailetan eraginik ez izateko gutxieneko itxitura. Hesi perimetrala landare pantailarekin edo baliokidea den sistema batekin, hautsa eta partikulak ez barreiatzeko.</p>
2	<p><b>HARRERA:</b> Sarreran hondakinak hartzeko eta kontrolatzeko etxola. Baskula eta kamioientzako baskula. Hondakinak tratatzeko BREF dokumentuan eskatzen diren beste sistema batzuk, sarrerak kontrolatzeko.</p>
3	<p><b>BEHARREZKO AZALERAK:</b> Hondakin kantitate bat baimenduko da, baimen eskaeran adierazitako tratamendu azaleraren arabera. 10.000 t hondakin tratatu/urtean gehienez, tratamendurako azalera erabilgarriaren 1.000 m<sup>2</sup>-ko. Planta osoa ibilgailuen eta makinen joan-etorriekiko erresistentea izango den gainazal iragazgaitz baten gainean kokatu behar da, eta urak biltzeko sistema bat izan behar du. Iragazgaitzutako gainazaltzat hartuko da metro bateko lodieran <math>k \leq 1 \times 10^{-7}</math> m/s-ko iragazkortasun hidrauliko saturatua duen hesi geologiko bat, edo babes baliokidea duen beste material bateko geruza bat (adibidez, hormigoi bibratuzko zolata bat). Ihesak edo lixibiatuak biltzeko sistema bat eduki beharko da.</p>
4	<p><b>BILTEGIRATZEA</b> Onartzen den EHZ bakoitzerako tratamendua egin ondoren, biltegiratze eremuak bereizi egingo dira produktu amaitu bakoitzerako eremutik eta errefusetik. Gainera, hondakin arriskutsuak biltegiratzeko eremuak aire zabaletik babestuta egon beharko du, eta isuriaren aurkako kubetak izan beharko ditu.</p>
5	<p><b>AURREHAUTAKETAKO LERROA:</b></p>
5.1	Aurretratamendu lerroa, deskarga eremuarekin, eskuzko bitartekoekin eta/edo bitarteko mekanikoekin.
5.2	Hondakin desegokiak eta bolumen handikoak aurrez tratatzeko lerroa.
6	<p><b>TRATAMENDU LERROA:</b></p>
6.1	Bereizketa granulometrikoa, metalen bereizgailua, birrintze tresneria (inpaktu errota, barailak birrintzeko makina).
6.2	Haize makinak edo zikloiak, hautatzeko/bereizteko kabina, igeltsua eta beste desegoki batzuk bereizteko teknologiak (bereizgailu balistikoak, mahai dentsimetrikoak, identifikazio optikoa...).



Ekipamenduak uak kodetzea	Eska daitekeen gutxieneko ekipamendua
7	<p><b>UREN BILKETA ETA TRATAMENDUA</b></p> <p>Nabe batetik kanpo egiten diren instalazioetarako, jariatze eta tratamendu urak biltzeko sistema bat edukiko da, dekantazio putzu batera, urak biltzeko sistematik datozen solidoak biltzera eta olioak eta koipeak bereiztera bideratzeko.</p>
8	<p><b>ATMOSFERARAKO EMISIOAK ETA ZARATA SAIHESTUKO DUTEN SISTEMAK</b></p> <p>Atmosferarako emisioak sortzea saihestuko duten sistemak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hautsaren aurkako neurriak (ur aspertsoreak eta pilaketen, bideen eta ibilgailuak eta makinak igartzeko eremuen ureztapena).</li> <li>- Zarataren aurkako neurriak (zarataren ondorioak minimizatzeko pantaila akustiko eramangarriak ezartzea obra etxebizitzetatik edo jarduera sentikorretatik gertu dagoenean).</li> </ul>
9	<p><b>ZERBITZU OROKORRAK</b></p> <p>Bulego/artxiborako, garbiketarako, officerako eta bileretarako gelak. Tresnen, ordezko piezen, hornigaien eta segurtasun elementuen biltegia. In situ egin daitezkeen mantentze eta konpontze lanetarako lantegi egokia.</p>
11	<p><b>ANALISIAK EGITEKO ZIURTAGIRIAK</b></p> <p>UNE/EN 17025 arauaren bidez akreditatutako laborategiekin bat datorren ekipamendua, lurzoru kutsatuen arloan erakunde akreditatuaren egiaztapena duena.</p>
12	<p><b>BALASTO ARRISKUTSUA DESKUTSATZEKO EKIPO ESPEZIFIKOAK</b></p>
13	<p><b>LURRAK ETA HARRIAK KUTSATZAILEEN ARABERA DESKUTSATZEKO INSTALAZIO ESPEZIFIKOAK:</b></p> <p>Adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Metal astunak: kasu bakoitzean lurzoruak deskutsatzeko tratamendua egiteko beharrezkoak diren instalazioak (desortzio termikoa, landfarming-a, tratamendu biologikoa, beste instalazio batzuk, lurzoruen garbiketa...).</li> <li>- Hidrokarburoak (TPH, PAH): biorremediazioa, oxidazio kimikoa, lurzorutik lurruna eraztea, biorreaktoreak, desortzio termikoa, lurzoruak garbitzea.</li> <li>- Pestizidak (DDT, lindanoa): biorremediazioa, desortzio termikoa, oxidazioa, fotodegradazioa, disolbatzaileekin eraztea.</li> <li>- Konposatu organiko lurrunak (KOL): lurzorutik lurruna eraztea, oxidazio termikoa, hesi erreaktibo iragazkorak, bioiragazketa, stripping-a.</li> </ul>
14	<p>R0505 edo R0507ri lotutako fabrikazio lerroak: zementua, hormigoia, asfaltoa, igeltsua, adreilu erregogorak eta abar fabrikatzeko lerroa.</p>



### 1.C. atala. Lurra eta harriak biltegitzeko instalazioetarako eskakizunak.

1. "Babestutako lurzoru naturalerako" eremu espezifikoko bat edukitzea, ezaugarri hauekin:
  - a) Pilaketa hesituak eta identifikatuak, lurzoru naturalari, jatorriari eta pilaketa kodeari buruzko informazioarekin.
  - b) Gainazal bateragarrietan bermatutako pilaketak: agregakin naturalak edo lur eta harri naturalak.
  - c) Pilaketen hesien arteko tartea: 6 metro (ekipoak eta makinak igartzeko eta maniobratzeko).
  - d) Leku irisgarria, ibilgailuen eta makinaren zirkulazio ibilbideetatik kanpo.
  - e) Kokapena: lur banku batean kokatuta badaude, gainerako eremuetatik argi eta garbi bereizita.
  - f) Garai lehorrean ureztatzea, landareztatze naturala ahalbidetu eta mantentzeko.
2. Lur eta harri naturaletarako eremuek baldintza hauek bete beharko dituzte:
  - a) Esparru hesitua, sarbide kontrolatua.
  - b) Baskula, gurpilen garbiketa.
  - c) Jariatze uren kontrola, oinarriko drainatzea, dekantazio putzua, areka perimetralak, errotazio baxuko materialen landareztatzea, sektorizazioa.
  - d) Argi identifikatutako sektoreak: sektorearen kodea eta jatorria.
  - e) Pilaketa ezpondak: 25° gehienez.
  - f) Gainazal bateragarrietan bermatutako materialak: agregakin naturalak edo lur eta harri naturalak.
  - g) Zolatu gabeko gainazalak, pilatu beharreko materialekin bateragarriak direnak.
3. Jatorri bereziko lur eta harri naturaletarako edo lur eta harri ez-naturaletarako eremuek, aurreko paragrafoko baldintzez gain, baldintza gehigarri hauek ere bete beharko dituzte:
  - a) Material bakoitza neurri ertaineko pilaketa bereizietan biltegitratuko da, banantze elementuen bidez ordenatuta eta mugatuta: pilaketa bakoitzak 25.000 m<sup>3</sup> gehienez.
  - b) Argi identifikatutako sektoreak: sektorearen kodea, jatorria eta funtsezko ezaugarria.
  - c) Material natural bereziak edo naturalak lurzoru iragazgaiztuaren gainean jarriko dira. (geldoen hondakindegia antzeko baldintzak:  $k = -7$  m/s metro bateko edo gehiagoko lodieran).
  - d) Material naturalen jatorri berezien arabeko sektorizazioa: igeltsuak, eremu bolkanikoetako lurzoruak, ur gazia ukitzen duten materialak eta meatze eremuetako materialak.
  - e) Eraldatutako materialak ez-arriskutsuen hondakindegien antzeko K daukaten lurzoru iragazgaiztuan jarriko dira.  $K = 1 \times 10^{-9}$  m/s, metro bateko edo gehiagoko lodieran.
  - f) Kalitateen arabeko sektorizazioa, ebaluazioaren balio adierazlearen (EBA) eta material naturalen jatorri berezien arabera: igeltsuak, eremu bolkanikoetako lurzoruak, ur gazia ukitzen duten materialak eta meatze eremuetako materialak.
  - g) Material arriskutsuak: biltegitratze baldintzak material arriskutsuen hondakindegietakoen antzekoak izango dira. Pabiloi baten barruan edo kanpoan



biltegitratuko dira, betiere iragazgaituta eta zolatuta. Pilaketak estaldura iragazgaitzez estalita egongo dira.



## V. eranskina

**Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinetatik datozen bigarren mailako materialek hondakin izateari noiz uzten dioten zehazteko irizpideekiko adostasun adierazpena.**

1	Materialaren ekoizlea <sup>1</sup> : Izena: Helbidea: Harremanetarako pertsona: Telefonia: Fax: Helbide elektronikoa: Hondakinen Sorkuntza eta Kudeaketa Erregistroko erregistro zenbakia:
2	Materiala, berez, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen tratamendutik eratorritako bigarren mailako materiala da, xxxxx Aginduaren sailkapenaren arabera, eta mota honetakoa: _____
3	Lote zenbakia eta tona kopurua:
4	Erabiltzaileari emandako materialak xxxxxx Aginduan aipatutako <i>materialaren ingurumen baldintzak</i> betetzen ditu. Baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa erantsi 1. eranskinean.
5	Erabiltzaileari emandako materiala bat dator eraikuntzako eta eraispeneko hondakinetatik datozen bigarren mailako materialen fabrikazioa eta erabilera arautzen duen Agindu Teknikoan edo xxx Dekretuaren 27. artikuluan jasotako <i>erabilera eta baldintzekin</i> . Zehazki, ikus adierazpen honen 2. eranskineko taulan adierazitako bidalketa honen <i>erabilerak eta erabilera baldintzak</i> . <sup>2</sup> . Baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa erantsi 2. eranskin horretan.
6	Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinetatik, lur eta harrietatik edo berrerabili beharreko materialetatik datozen bigarren mailako materialak sortzen dituen pertsonak xxx Dekretuaren 20. artikuluen arabera kudeaketa sistema bat dauka inplementatuta eta egiaztatuta.
7	Bidalketa honetako materiala ez da arriskutsu gisa sailkatzen. 1272/2008 (EE) Erregelamenduaren (1) (CLP Erregelamendua) irizpideek ezartzen dutenez, oso kezagarriak diren substantziak merkaturatzeari buruzko xedapenak betetzen ditu, bai eta 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren (2) (REACH Erregelamendua) XVII. eranskinaren xede diren erabileretarako murrizketak eta 2019/1021 (EB) Erregelamenduaren (3) (Kutsatzaile Organiko Iraunkorrei buruzko Erregelamendua) 3. artikulua ezarritako kutsatzaile organiko iraunkorrak erabiltzeko eta merkaturatzeko debekuak eta murrizketak ere.
8	Bigarren mailako materialek dagokien CE marka eta prestazioen adierazpena dute, baldin eta material eta erabilera hori arautzen duen arau harmonizatu bat badago.
